

39

**HIRUGARREN SEKTOREA
IKUSPEGI KUANTITATIBOA
ETA KUALITATIBOA**

LANERAKO KOADERNOAK HEZIKETA • ENPLEGUA • GAITASUNAK

EKIMENAREN BABESLEA: EUSKO JAULARITZA - JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DIRU-LAGUNTZAILEA: EUROPAKO GIZARTE FONDOA

ARGITARATUTAKO ALEAK

1. EDUCACIÓN Y TRABAJO PRODUCTIVO
2. CAMBIO TECNOLÓGICO Y REPERCUSIONES EN EL EMPLEO
3. PREVER Y FORMAR
4. ANÁLISIS PREVISIONAL DE LOS EMPLEOS DEL COMERCIO MINORISTA EN DONOSTIA
5. EXPERIENCIAS DE FORMACIÓN CONTINUA PARA DIRIGENTES DE PYMES
6. LAS CUALIFICACIONES PROFESIONALES ANTE EL MERCADO ÚNICO
7. LAS MUJERES Y EL MERCADO DE TRABAJO EUROPEO
8. PARO DE LARGA DURACIÓN EN EUROPA: ESTRATEGIAS Y ACCIONES
9. INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO EN FORMACIÓN CONTINUA
10. FORMACIÓN DE FORMADORES: RETOS Y AVANCES
11. GUÍA 1 FORMACIÓN PARA LA PYME: COMPETENCIAS GENÉRICAS DE LOS FORMADORES Y ORGANIZADORES DE PROGRAMAS DE FORMACIÓN PARA PEQUEÑAS EMPRESAS
12. NUEVO CONTEXTO SOCIOECONÓMICO Y ESTRATEGIAS DE DESARROLLO LOCAL
13. CRECIMIENTO, COMPETITIVIDAD Y EMPLEO. ESTRATEGIAS EN LA UNIÓN EUROPEA. RETOS Y PERSPECTIVAS PARA EL PAÍS VASCO
14. MANUAL PARA LA ELABORACIÓN DE PROYECTOS DE DESARROLLO ECONÓMICO LOCAL Y EMPLEO
15. GUÍA 2 FORMACIÓN PARA LA CREACIÓN DE PYMES. COMPETENCIAS DE LOS FORMADORES PARA PROMOVER EL ESPÍRITU E INICIATIVA EMPRESARIAL Y LOS PROYECTOS DE CREACIÓN DE EMPRESA
16. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DEL TERCIARIO DE OFICINA
17. ANÁLISIS Y EVOLUCIÓN DE LOS EMPLEOS DE LA INDUSTRIA METALMECÁNICA
18. FLEXIBILIDAD Y DISTRIBUCIÓN DEL TRABAJO
19. NUEVOS YACIMIENTOS DE EMPLEO
20. LA FORMACIÓN EN CENTROS DE TRABAJO
21. LA CALIDAD DE LA FORMACIÓN
22. TELETRABAJO. IMPACTO DE LAS NUEVAS TECNOLOGÍAS EN LA ORGANIZACIÓN DEL TRABAJO
23. ORIENTACIÓN Y ASESORAMIENTO PROFESIONAL
24. PERFILES Y COMPETENCIAS PROFESIONALES EN EL SECTOR DE LA CONSTRUCCIÓN
25. LOS JUEGOS DE SIMULACIÓN, UNA HERRAMIENTA PARA LA FORMACIÓN
26. INSERCIÓN A TRAVÉS DE LA FORMACIÓN. INSTRUMENTOS PARA INNOVAR LOS PROCESOS DE FORMACIÓN-INSERCIÓN
27. COMPETENCIAS PROFESIONALES. ENFOQUES Y MODELOS A DEBATE
28. ORGANIZACIÓN Y DISEÑO DE LOS PROCESOS DE EVALUACIÓN
29. ESTRATEGIAS REGIONALES Y TERRITORIALES. EL PAPEL DE LAS AGENCIAS DE DESARROLLO
30. VALORIZAR EL CAPITAL HUMANO: RETO CLAVE PARA LA SOCIEDAD DEL CONOCIMIENTO
31. GESTIÓN DEL CONOCIMIENTO Y CAPITAL INTELLECTUAL
32. REORGANIZACIÓN DEL TIEMPO DE TRABAJO. MEDIDAS Y EFECTOS
33. NUEVAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LA COMUNICACIÓN VERSUS CREACIÓN DE EMPLEO
34. PERTSONA ETA ERAKUNDEETAN JAKINTZAREN KULTURA ERAIKIZ
35. ERAKUNDEETAN ZEHARKAKO GAITASUNAK KUDEATZEKO GIDALIBURUA
36. BIZITZAN ZEHARREKO IKASKETA
37. ENPLEGUAREN ARLOAN GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA HEDATZEKO
38. DEMOGRAFIAREN BILAKAERA ETA MIGRAZIO-FLUXUAK: LAN-MERKATUKO ERAGINAK

ALEA. 39

HIRUGARREN SEKTOREA IKUSPEGI KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOA

CIDEC. Centro de Investigación y Documentación sobre problemas de la Economía, el Empleo y las Cualificaciones Profesionales
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Askatasun hiribidea 17-19 Telf.a 943 42 52 57 Faxa: 943 42 93 31 • E-mail.: info@cidec.net

KP. 20004

Imprimategia: Michelena Artes Gráficas S.L.

D.L.: SS-104-91

I.S.S.N.: 1135-0989

P.V.P.: 25 €

**HIRUGARREN SEKTOREA
IKUSPEGI KUANTITATIBOA
ETA KUALITATIBOA**

AURKIBIDEA

	Or.
ATARIKOA	8
AURKEZPENA	9
1. HIRUGARREN SEKTOREAREN EZAUGARRIAK	11
1.1. Zehaztu eta antolatu gabeko hazkundera duen sektorea	12
1.2. Hirugarren sektoreari buruzko ezjakintasuna eta estereotipoak	15
1.3. Kontzeptua eta terminologia	17
1.4. Definizio komun bat onartzeko arrazoiak	21
1.5. Definizio operatiboa	23
1.6. Eredu korporatiboen aberastasuna	28
2. ESPAINIAKO IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARKIDETASUNA	30
2.1. Gizarteko egoera	31
2.2. Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorearen tamaina eta egitura	38
2.3. Hirugarren sektorearen garrantzi ekonomikoa	44
2.4. Hirugarren sektorearen sarrerak	47
3. GLOBALIZAZIOAREN INGURUABARRAK	45
3.1. Hirugarren sektorea-Irabazi asmorik gabeko sektorea nazioartean	46
3.2. Irabazi asmorik gabeko sektorearen ikuspegi konparatua	53
4. IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA EAEN	61
I. BLOKEA. IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA EAE-N	62
4.1. Irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeak	63
4.2. Irabazi asmorik gabeko erakundeen giza baliabideak eta finantza-iturriak	72
II. BLOKEA. GIZARTE-EKIMENEKO IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA EAE-N ...	76
4.3. Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen ezaugarriak	77
4.4. Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak (GEIAE)	79
4.5. Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeen giza baliabideak eta finantza-baliabideak	81
5. GIZARTE EKIMENEKO IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN DINAMIKAK EAEN	90
5.1. Esparru orokorra	91
5.2. Ahuleziak eta indarguneak	93
5.3. Arriskuak	113
5.4. Erronkak eta kudeaketarako alternatibak	119
6. HIRUGARREN SEKTOREAREN ETA EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO HARREMANAK. BIEK EGITEN DUTEN EKARPENA GIZARTE ETA EKONOMIAN SARTZEKO	124
Itun Proiektua	127
Eraginkortasunaren analisia	129
Boluntariotzaren Euskal Plana. Ekintza-lerroak	135
OINARRIZKAO BIBLIOGRAFIA	145
INFORMAZIOA SAREAN	147

TAULEN AURKIBIDEA

1. Erakunde-kopurua eta mota	34
2. Erakundeak. Banaketa ICNPO jarduera-eremuen arabera	34
3. Kuota-kopurua ICNPO jarduera-eremuen arabera	36
4. Boluntarioen banaketa ICNPO jarduera-eremuen arabera	37
5. Lanean ari direnak eta zentzu hertsian boluntarioak direnak (kopuruak eta ehuneko bertikalak)	37
6. Lanean ari direnak eta zentzu hertsian boluntarioak direnak (kopuruak eta ehuneko horizontalak)	38
7. Lanaldi osoko enplegu baliokideak (Kopuruak eta ehuneko bertikalak)	38
8. Lanaldi osoko enplegu baliokideak (Kopuruak eta ehuneko horizontalak)	39
9. Gastua guztira eta ICNPO jarduera-eremuen arabera	40
10. Gastuaren egitura ICNPO jarduera-eremuen arabera (Pezetak milioietan eta ehuneko bertikala)	41
11. Gastuaren egitura ICNPO jarduera-eremuen arabera (Pezetak milioietan eta ehuneko horizontala)	41
12. Gastuaren egitura ICNPO jarduera-eremuen arabera (Pezetak milioietan eta ehuneko bertikala)	42
13. Gastuaren egitura eta banaketa jarduera-eremuen arabera (Pezetak milioietan eta ehuneko horizontala)	42
14. Laburpena	43
15. NGKEen egoitza nagusiak eta biztanleria-dentsitatea milakoetan herrialdeko	51
16. Irabazi asmorik gabeko sektorea. Soldatapeko enplegua eta boluntarioenak (Enplegu osoari buruzko %ak)	56
17. Irabazi asmorik gabeko egituren ereduak, herrialdez herrialde	57
18. Fundazioak. Dentsitatea europako herrialdez herrialde	59
19. EAE. Irabazi asmorik gabeko erakundeen (IAE) tipologia. 2001	63
20. EAE. Lurralde historikoetako elkarteen banaketa	64
21. EAE. Elkarteen bilakaera 1996-2001eko bitartean urtez urte	64
22. EAE. Klub eta kirol elkarteen bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	65
23. EAE. Elkarte profesionalen bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	66
24. EAE. Erakunde erlijiosoak. Kopurua eta motak lurralde historikoaren arabera	67
25. EAE. Fundazioak. Kopuru eta motak lurralde historikoen arabera	68
26. EAE. Kooperatiben bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	69
27. EAE. Elkarkidetasunaren jarduera-eremu nagusiak (%)	69
28. EAE. Irabazi asmorik gabeko erakundeen banaketa INCPO jarduera-eremuen arabera (%)	71
29. EAE. Irabazi asmorik gabeko erakundeen banaketa kontratatutako enplegu-bolumenaren arabera	74
30. EAE. Irabazi asmorik gabeko erakundeen banaketa urteko aurrekontuaren arabera (%)	75
31. EAE. Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeen (GEIAE) tipologia	80
32. EAE. GEIAEn banaketa bazkide-kopuruaren arabera (%)	82
33. EAE. GEIAEn banaketa zentzu zabaleko boluntario-kopuruaren arabera	83

34. EAE. GEIAEn banaketa zentzu hertsian boluntarioak direnen kopuruaren arabera (%)	84
35. EAE. GEIAEn banaketa lanaldi osoko enplegu mailaren arabera (%)	86
36. EAE. GEIAEn banaketa denbora partzialeko enplegu mailaren arabera (%)	88
37. EAE. GEIAEn banaketa aurrekontuaren arabera (%)	88
38. EAE. Pisu-ratioak eta GEIAEn esanahia	89
39. Irabazi asmorik gabeko sektorearen eta gizate ekimenez hirugarren sektorearen panoramika EAEn	89
40. Isolamenduari dagozkion ezaugarriak	94
41. Baliabidegabeziari dagozkion ezaugarriak	96
42. Gardentasungabeziari dagozkion ezaugarriak (I)	98
43. Gardentasungabeziari dagozkion ezaugarriak (II)	99
44. Gardentasungabeziari dagozkion ezaugarriak (III)	100
45. Burokratismoari dagozkion ezaugarriak	101
46. Tokiko demokraziari dagozkion ezaugarriak	104
47. Profesionaltasunari dagozkion ezaugarriak	106
48. Eraginkortasunari dagozkion ezaugarriak (I)	108
49. Eraginkortasunari dagozkion ezaugarriak (II)	109
50. GEIAE. Autoebaluaziorako gaiak (% adostasuna)	111

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Hirugarren sektorearen osagaiak	22
2. Irabazi asmorik gabeko sektorea zifretan laburbilduz	39
3. Hirugarren sektorearen sarrerak	44
4. Irabazi asmorik gabeko soldatapeko enpleguaren ehunekoa enplegu osoarekiko	54
5. Enpleguaren banaketa jarduera-eremuen arabera Espainia eta Mendebaldeko Europan eta 22 herrialdeetako batez bestekoa	55
6. Irabazi asmorik gabeko sektorearen diru-sarrerak herrialdez herrialde	58
7. Irabazi asmorik gabeko sektorearen finantza-iturriak. Espainia, Mendebaldeko Europa eta 22 herrialdeen arteko aldeak	59
8. EAE. Elkarteen bilakaera 1996-2001eko bitartean	65
9. EAE. Klub eta kirol elkarten bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	66
10. EAE. Elkarte profesionalen bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	67
11. EAE. Kooperatiben bilakaera lurralde historikoen arabera. 1997-2001	69
12. EAE. Elkarkidetasun jardueren xedeko jendea	70
13. Elkarteen hazkundearen bilakaera, horiek izena eman duten dataren arabera, Espainian eta EAEn (%)	71
14. EAE. Elkarteen banaketa bazkide-kopuruaren arabera	72
15. EAE. Elkarteen banaketa boluntario-kopuruaren arabera	73

16. Aztertu diren euskal erakundeek jasotako diru publikoaren zenbatekoak (%)	76
17. EAE. GEIAEn banaketa aratutako kolektiboen arabera (%)	80
18. EAE. GEIAEn banaketa bazkide-kopuruaren arabera	82
19. EAE. GEIAEn banaketa zentzu zabalean boluntarioak direnen kopuruaren arabera (%)	84
20. EAE. GEIAEn banaketa zentzu hertsian boluntarioak direnen kopuruaren arabera (%)	85
21. EAE. GEIAEn banaketa lanaldi osoko enplegu mailaren arabera (%)	86
22. EAE. GEIAEn banaketa denbora partzialeko enplegu mailaren arabera (%)	87
23. EAE. GEIAEn banaketa aurrekontuaren arabera (%)	988

ATARIKOA

Asko dira Lanerako Koadernoak bilduma honetako ale hau hirugarren sektorea aztertzerantz eraman gaituzten arrazoiak.

Azpitarratu behar dugu lehenbiziko arrazoiak EAEn hirugarren sektoreari buruz daukagun ezagupena areagotzea dela. Hori horrela, sektore horrek gizartean eta ekonomian duen garrantziaz gain, sektorearen barruan ari diren dinamikak eman nahi dira ezagutzera, hala nola sektoreak eman dituen aurrerapausoak eta aurrean dituen erronkak.

EAEko hirugarren sektoreak gizarteko estrategian, politikan eta programen garapen eta araugintzan duen parte-hartze aktiboaren garrantzia ere erakutsi nahi dira, eta horiekin bat, gizarteratze sozio-ekonomikoa eta lan-munduratzeko zertan diren azaldu adierarik zabalenean.

Bestalde, azpitarratu beharra dago, orain arte metatu ditugun esperientziak erakusten dutenez, euskal Administrazioa eta hirugarren sektoreko erakundeak elkar osatu eta aberastu dutela; eta erakunde horietan gehien nabarmentzen direnak beren jarduerak gizartearen alorrean garatzen dituztenak direla.

Ohartarazi behar dugu, halaber, hirugarren sektoreko erakundeek Eusko Jaurlaritzaren kontsulta-egituretan duten partaidetzan oinarriturik eta batez ere bien artean egin duten lanean oinarriturik lortu dutela -beste era batera ezingo zuketena- egungo sendotasuna eta zerbitzu integral, eraginkor eta kalitatekoa ematea.

Nolanahi ere, ez ditugu ahaztu behar gaur egun geroz eta gehiago diren gizarteko premiak, horiei erantzun egokiak, anitzak eta batzuetan oso bereziak zor baitizkiegu. Premiazkoa da, beraz, hirugarren sektorearen alderdi ahulenak indartzeko eta garatzeko ahalegin guztiei jarraipena ematea eta horiek areagotzea. Beharrezkoa da, halaber, gizarteari eta elkartasunari zor zaien erantzukizun partekatuari bultzada bat ematea, euskal gizarte osoa asmo horretan murgilarazteko.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko apirila

Jesús Monreal ZIA

Eusko Jaurlaritzaren

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren

Enplegu eta Prestakuntzako zuzendaria

AURKEZPENA

“Hirugarren sektorea” izendapena finkatze hutsak argi eta garbi uzten du aldi berean zenbait eginkizun –adibidez, eskubideen errebindikazioa, zerbitzuak profesionaltasunez ematea eta gizartearen parte-hartzearen garapena– burutzen duten erakundeen garrantzia eta erakunde horiek, batez ere azken bosturtekoetan, ohiko ekonomia pribatuaren eta betiko sektore publikoaren atala izan gabe, izan duten hazkunde-prozesua eta garapena, hala nola ekonomiaren eta enplegu-sorkuntzaren arloan erdietsi duten ospea. Horrek guztiak, era berean, sektore hau eratzeko behar diren estatus soziala, antolakuntza eta baldintza ekonomiko bereziak zehaztu beharra eskatzen du.

Sektore horren funtsezko ezaugarriak honako parametro bikoitzez eratzen dira: ekimen pribatuko erakundeak izatea eta irabazi asmorik ez edukitzea. Gutxi gorabehera proportzio handian gainera, bere lana aurrera eramateko ordainik gabeko boluntarioen esku-hartzea da erakunde hauetako askotan ikus daiteken beste ezaugarri bat.

Hala, Lanerako Koaderno honetako lehen kapituluan, sektoreari buruzko ikuspegi orokor bat emanez, erakunde hauen ezaugarri orokorrak eta behinenak ematen dira, hala nola beren jite multiformea eta aniztasuna aztertzen. Bereizitasun horiek guztiak, alde batetik, sektoreak izan duen garapen dibertsifikatuaren ondorio dira, eta bestetik, sektore honi falta zaion definizio eta erregularizazioarena. Horrenbestez, jada has gaitezke zenbait irizpide finkatzen, kontzeptu eta terminoen arteko hurbilpena eta bereizketa zehazteko bidean.

Bigarren kapituluan Espainiako irabazi asmorik gabeko elkarkidetzaren ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboa eskaintzen dugu, hirugarren sektorea izendapenak barnean biltzen dituen erakunde-tipologia guztien mamia ikusteko. Bigarren kapitulu honetan, irabazi asmorik gabeko erakundeen tipologiaz gain, ekimen-esparruaren arabera duten banaketa eta erabiltzen dituzten giza baliabideen ezaugarriak ere ikusiko ditugu. Bestalde, egunez egun sektoreak ekonomian duen eragin ekonomikoa aztertuz, Estatuko ekonomiara egiten duen ekarpenaren garrantzia egiaztatuko dugu, Barne Produktu Gordinean duen parte-hartzea %5,8ko baita.

Gauden garaiko fenomeno bezala, irabazi asmorik gabeko sektorea egungo dinamika globalizatzailean murgildurik jaio da, eta hala ari da garatzen. Hirugarren kapituluan aztertuko dugu gai hori. Fenomeno horrek, bestalde, tokiko izaera duten gobernuz kanpoko erakundeen jarduerarekin zerikusi izateaz gain, bere jarduerak munduko eremu askotara -mundu osora ez esatearren- hedatzen dituzten nazioarteko gobernuz kanpoko erakundeak sortzea ahalbidetu du. Egoera politiko eta ekonomiko

desberdinetako herrialde-ereduen multzo handi batean hirugarren sektoreak duen eragin eta ezaugarrien erreferentziak eta aldeak ikusteak aukera ematen du, sektore honek nazioartean duen irudia ikusteko. Esan daiteke, zalantzarik gabe, sektore osoa mundu mailako zortzigarren potentzia ekonomikoa dela, Brasil eta Errusiaren aurretik.

Hurrengo kapituluetan gure errealitate hurbila aztertuko dugu. Horietan, irabazi asmorik gabeko sektoreak EAEn ezagutu dituen gorabehereri buruzko hainbat azterlan berri jasotzen dira. Hala, bada, laugarren kapituluan, sektorearen egiturari buruzko alderdiak aztertzen dira ikuspegi askotatik begiratur: lurraldeka, jarduera-eremuka, erakundeen izaeraka, eta abar. Baina, betiere, irabazi asmorik gabeko erakunde-multzoaren barruan ondo bereiziz, gizartearen ongizatearekin eta kohesioarekin lotura eta zerikusi handiagoa duten planteamendu eta jarduerak dituzten erakundeak. Beste era batera esanda, izatez baztertuta dauden edota baztertzeko arriskuan dauden pertsona eta giza taldeei zerbitzuak eta arreta ematen dizkieten erakundeak aztertuko dira.

Bosgarren kapitulua, hain zuzen ere, azken erakunde horiei eskaintzen zaie, “Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak” (GEIAE) izenburupean. Kapitulu horretan, ikuspegi kualitatiboz, erakunde hauetan atzeman diren dinamikak, indarguneak eta ahuluneak, kritikak eta balorazio positiboak, eta aurrean dituzten erronkak eta aukerak jaso dira. Gai horiek guztiak aztertuz ikus daitekeenez, erakunde hauen kultura birformulatze-bidean dago, eta horretan giza eskubideak errebindikatzeko funtzioa, gizartean duten proiektzioa edo elkarkidetasun jarduerari duintasuna emango dioten funtzioak lantzen ari dira, hala nola boluntarioen garapenak eta demokrazia parte-hartzaileak izan behar duten funtzioa, edota erakundeen funtzioaren dimentsio desberdinak: elkartearen arteko koordinazioa, instituzioen beste eremu batzuek osatzea, eraginkortasunaren eta gizarteko errentagarritasunaren irizpide propioekin jardutea, eta abar.

Azkenik, seigarren kapituluak EAeko hirugarren sektoreak eta euskal Administrazioak elkarrekin dituzten harremanak aztertuko ditu, horiei buruzko adibide batzuk laburbilduz, adibidez, ITUN Proiektua-Equal Ekimen Komunitarioa eta Boluntariotzaren Euskal Planean finkatu diren ekimen-lerroak.

Amaitzeko, geure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu Jose Ignacio Ruiz Olabuenaga hirugarren sektorearen aztertzaile eta aditu handiari, Lanerako Koaderno honetan izan duen partaidetza estimagarriagatik.

Donostia-San Sebastián, 2004ko apirila

Juan José DE ANDRÉS GILS

CIDECeko lehendakari

*1. Hirugarren sektorearen
ezaugarriak*

1. Hirugarren sektorearen ezaugarriak

Azken bi hamarkadak mundu guztian zehar eta helburu bakar batez (merkatuaren eta Herri-Administrazioaren arteko gizarte-eremuaren premiei aurre egitea) zabaldu diren entitate eta erakundeek sortu duten interes bereziaren lekuko izan dira.

1.1. ZEHAZTU ETA ANTOLATU GABEKO HAZKUNDEA DUEN SEKTOREA

Erakunde eta entitate horiek guztiak anitz izenez ezagutzen dira, adibidez: Gobernuz kanpoko Erakundeak, Erakunde Boluntarioak, Hirugarren Sektoreko Erakundeak edo Irabazi asmorik gabeko Erakundeak, Ekonomia Sozialeko Erakundeak, eta abar. Holako izenak dituzteen diren erakundeek era guztietako jarduerak burutzen dituzte: ospitaleak, kirol-klubak, elkarteak, aseguru-etxeak, unibertsitateak, kongregazio erlijiosoak, talde ekologikoak, giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeak, eta abar, baina guztiak bildu daitezke izen generiko batean barruan: Irabazi asmorik gabeko elkarkidetzak boluntarioak.

Mundu horrek guztiak itxuraz edo benetan aniztasun handia erakusten du, baina azken batean, modu integral edo disimulatuan bada ere, aniztasun hori guztia gizartearen barruan sortu den fenomeno bateko atal bat baino ez da. Eta gainera, fenomeno hori egunetik egunera argiago eta indartsuago agertzen da, bere eraginak ekonomia, kultura eta politikaren arloetara hedatuz.

Irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunak borondatezko elkartasunaren dinamika bideratzen du, geroz eta handiagoa den ikuspegi soziala eskaintzen du eta bere elkartasun organikoak geroz eta eragin eta hedapen handiagoa eta trinkoagoak ditu gizarte modernoetako elkarbizitza kolektiboan.

Tokian tokiko bat-batekotasunari esker sortu den sektore horren ezaugarrietako bat da, alde batetik, mundu osoan duen zabalkundea, eta bestetik, sektoreak berak hartu dituen formen eta estatutu korporatiboan heterogeneotasuna; gainera, gizarte moderno guztietan komuna den fluxu dinamiko bezala sortu da.

Baina mundu modernoaren berariazko adierazpen-produktu bezala agertzen bada ere, erakunde hauek ez dira gaurkoak atzokoak baizik. Aspalditik ari dira gizartearen interes eta mugimenduei laguntzeko mekanismo bezala jokatzeko; azken batean, botere publiko eta interes ekonomikoen zerbitzura dauden gainontzeko instituzioetatik bereizitako erakunde bezala jarduten dute.

Irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunak borondatezko elkartasunaren dinamika bideratzen du, geroz eta handiagoa den ikuspegi soziala eskaintzen du eta bere elkartasun organikoak geroz eta eragin eta hedapen handiagoa eta trinkoagoak ditu gizarte modernoetako elkarbizitza kolektiboan

Hori horrela izanik ere, elkarkidetasun-mugimendu berriaren hipertrofia, “elkarkidetasun-iraultza global”a bezala ere ezagutzen dena, gizarte garaikide guztietara hedatu da azkartasunik handienaz, eta gaur egun esan daiteke hipertrofia hori hogei eta hogeita batgarren mendeen ezaugarri bihurtu dela, nazio-estatuen jaiotza hemeretzigarren eta hogeigarren mendearen hasieraren ezaugarri izan zenaren antzera.

Adierazi behar dugu, Gobernu Kanpoko Erakundeak (ONGak) egungo gizarte globalizatuen funtzionamenduko funtsezko egitate izatera iritsi direla honako arrazoiak direla bide: egitura pribatua eta interes publikorako orientazioa; instituzioetatik kanpokoak baina aldi berean gizartean eragina dutenak; hazkunde etengabea eta era berean hori bultzatzen duten arrazoiak zein diren ez jakitea.

Eta, bestalde, irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunaren aldia eta eremua handiak bezain zabalak dira, eta horiek ulertzea orain arteko ikerlari askok uste zutena baino askoz ere konplexuagoa da. Duela mende askotik hona bere dinamismoz diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeak sortzearen arrazoiak anitzak dira eta ezin dira laburtu estatu baten edo merkatu baten gabezietan, nahiz eta horiek garrantzitsuak izan. Irabazi asmorik gabeko egungo elkarkidetzaren azpian politika arloko desenkantua, politikaren beraren krisia eta desindikalizazioa egon daitezke, hau da, aurrerakuntza edo progresuak eragindako desilusioaren sinboloa eta sintoma izan daiteke elkarkidetzaren. Baina, egia esateko, hori baino zertxobait gehixeago ere bada, eta azpian beste motibazio eta faktore asko daude, hala nola, kultura, politika eta moralarekin zerikusi dutenak.

Oro har eta ahal denik eta modurik abstraktuenean begiratu, mugimendu honek, alde batetik, urrutiratze bat adierazten du aldi berean bai estatuaren eta merkatuaren gabezietatik bai elkartasunik gabeko indibidualtasunean oinarritzen den eragin sozialetik, eta bestetik, kolektibitateak elkartasuna onartzetik sortzen dela islatzen du; edota, beste era batera esanda, mugimendu hau altruismoak izan duen hedapenean eta erantzukizunez partehartzeko eskubidean oinarritzen da. Hortaz, elkartasunaren kultura eta demokraziarako eskubidea eta erantzukizuna –betiere, elkarbizitza kolektiboaren garapenean partehartzen duten heinean– elkartzen dira bertan.

GKEen hazkunde azkarrak, GKE hitza bera “merkatu”an finkatzeak eta iritzi publikoan erakunde hauek hartzen ari diren geror eta indar handiagoak eztabaida sakona sorrarazi dute gizartean, erakunde horiek bete behar duten eginkizunaz. Esan gabe doa eztabaida horren amaiera oraindik urrun dagoela.

GKEen hazkunde azkarrak, GKE hitza bera “merkatu”an finkatzeak eta iritzi publikoan erakunde hauek hartzen ari diren geror eta indar handiagoak eztabaida sakona sorrarazi dute gizartean, erakunde horiek bete behar duten eginkizunaz. Esan gabe doa eztabaida horren amaiera oraindik urrun dagoela

Paradoxikoa badirudi ere, erakunde hauek gizartean izan duten arrakastak berak sarri funtzionamendua burokratizatzea, merkantilizatzea, profesionalizatzea, kudeaketa kontrolatzea eta korporazio mailako beste arazo batzuk ekarri ditu, eta gainera horiek hain larriak dira ezen, batzuetan, erakundeen hasierako izaera bera ere aldatu egin dute eta zalantzan jartzen dute elkartasunaren, altruismoaren eta demokraziaren misio zibila daukaten erakundeen eginkizuna.

Erakunde horien egitura indartu beharrak geroz eta kanpoko *inputs* gehiago eskatzen dute, zehazki, gobernuengandik, ustez horien baliozko alternatiba funtzionalak direlako. Aurrean aipatu dugun gizarte-arrakasta horrek berorrek irabazi asmorik gabeko erakunde hauen elkarkidetasun-mugimendu guztia bidegurutze baten aurrean jarri dute, eta hor urteetan irabazi duten gizarte-kapitalaren errentagarritasunaren bidea asmatzen jakin behar dute, hala nola, beren estatus berriak egiten dizkien eskarietara egokitzeko doitasunak egiten.

Egungo mundu globalari dagokionez, sektoreak lortu duen heldutasunak gizarte globalizatu aktiboaren izateaz hitz egitea garamatza, baita horri dagozkion funtzio eta disfuntzioei buruz ere, edota kultura eta politika arloko eraginei buruz eta, nola ez, gizarte-kapitalaz eta nazioarteko sareez. Gizarteari eskaintzen zaizkion zerbitzuetan mugimendu hauek izan duten eraginak, gatazketan izan duten bitartekaritza lanak, gizarte-eragileak sortzen betetzen duten paperak, enplegu guneak sortzen izan duten eraginak, horko eta hemengo nazioetako BPGan daukaten eraginaren garrantziak, partaidetza demokratikorako plataformatzat duten baliagarritasunak eta globalizazioaren inguruan politikoki jarduteko egiten duten eskaintzak, bada horrek guztiak, herri-administrazioen interesa ezezik, zientzialarien grina ere piztu du, egunetik egunera areagotuz doazen beren indarra eta dinamismoa zehazteko, deskribatzeko, interpretatzeko eta adierazteko.

Eta horrekin guztiarekin bat, gaurko gizartea globalizatzeko prozesuan jokatzen duen paper garrantzitsua aipatu behar dugu.

Boluntarioritza-erakundeek eta horiek gure gizarteetan duten eraginak izan duten gorakadarekin batera, gora egin du, halaber, irabazi asmorik gabeko erakundeen kopurua eta jokabidea ezagutzeko gogoak ere. Izatez, kopuru hori zenbatekoa den jakitea ez da garrantzitsuena, hori baino garrantzitsuago baita gizartearen aurrerakuntzari eta demokraziari egiten dioten ekarpena ezagutzea; hala ere, Administrazioek ahalegin bereziak ari dira egiten, fenomeno honek gai

Egungo mundu globalari dagokionez, sektoreak lortu duen heldutasunak gizarte globalizatu aktiboaren izateaz hitz egitera garamatza, baita horri dagozkion funtzio eta disfuntzioei buruz ere, edota kultura eta politika arloko eraginei buruz eta, nola ez, gizarte-kapitalaz eta nazioarteko sareez

publikoaren kudeaketa politikoan jokatzeko duen papera eta esanahia sakontasunik handienaz ezagutzeko.

Hirugarren sektorea¹, elkartasun altruista antolatuaren eredutzat hartuz, edo erantzukizun zibilaz edo herritarren partaidetza demokratikoaz egiten den jardunaren adierazpentzat hartuz, fenomeno berezia dela esan behar da. Eta fenomeno horren sustrai historikoak, hain zuzen, toki mailan, nazio mailan zein mundu mailan eta mendeetan zehar honako jardueretan erdietsitako esperientzian oinarritzen dira: kofradia, gremio, hirugarren ordenak eta miseriakordia-etxeak, ermandadeak eta fundazioak, babesetxeak, aseguru-etxeak, kooperatibak, lizeoak, zirkuluak, agrupazioak, sindikatuak, alderdi politikoak eta irabazi asmorik gabeko erakundeak izendatzeko erabili diren hainbat eta hainbat organismo.

Fenomeno horrek historian izan duen lekuak, alabaina, ezin du ukatu bere garapena ukituko duten egungo gizartearen bi baldintza estrukturalen eragina: globaltasuna eta elkarkidetasuna, hain zuzen ere, hirugarren sektorea edo irabazi asmorik gabeko sektorea egungo gizarte globalaren fenomeno bereizgarria bihurtzen duena.

1.2. HIRUGARREN SEKTOREARI BURUZKO EZJAKINTASUNA ETA ESTEREOTIPOAK

Gizarte zibilaren egituratze berri honek guztiak, hein handi batean, ezezaguna izaten jarraitzen du, eta oinarri finkatuko baieztapen batzuk izan ezik, anbiguotasun handiak dauzkagu bere egungo egituren gainean; eta hori gutxi balitz ere, hor daude bere funtzionamenduaren dinamikari buruz oraindik indarrean dauden hainbat eta hainbat estereotipo.

Estereotipotari lehena da fenomeno sozial berri eta ezezaguna dela. Horren adierazpenik esanguratsuenak gizarte-elkartasunaren demokratizazio bezala agertzen da, eta horren bidez elkartasun olatu batek (errukitasunean oinarritzen zen karitatea ordezkatzeko duena) kultura berri bat hedatzen omen du, hau da, orain arte ez bere hedapenagatik ez trinkotasunagatik inoiz sentitu ez den elkartasun-kultura omen da. Horren ondorioz etorri den literatura, aurrean esandakoa kontuan izanik, hedapen betean dagoen elkartasun-prozesu baten oihartzun literariotzat jotzen da.

Bigarren lekuan jarriko dugun estereotipoa aurrekoa baino kontzeptualagoa da, eta bere oinarria da **fenomeno hau dimentsio bakarrekoa**

1. Dokumentu honetan, "hirugarren sektore" a terminoa, ikerlari askok erabiltzen duten bezala, "irabazi asmorik gabeko sektore" a terminoaren sinonimotzat erabiliko da.

Gizarte zibilaren egituratze berri honek guztiak, hein handi batean ezezaguna izaten jarraitzen du, eta oinarri finkatuko baieztapen batzuk izan ezik, anbiguotasun handiak dauzkagu bere egungo egituren gainean

dela (azpian dautzan indar sozial berdinez elikatzen dena) eta bakar-bakarrak kanpoko adierazpenetan, itxuran, baino ez dela heterogeneoa. Hala bada, fenomeno gehiago da dimentsio bakarrekoa askotakoa baino. Fenomeno hori, hortaz, forma nuklear (zentralak) eta marjinaletan (periferikoak) garatzen den fenomeno bera litzateke, kategorizatzeko-prozesu simple baten bidez gauzatzeko bideragarritasun bat izango lukeena.

Hirugarren estereotipoak legezkatzat jotzen du fenomeno honi gizartearen barruan dagokion pisua identifikatzea, bere garrantzi propagandistiko eta guzti (batzuetan bakarrik mediatikoa); pisu horren arabera fenomenoari atxikitzen zaizkio hainbat pertsona eta instituzio, gutxi gorabehera berriak, eta hain ezagunak ez diren beste asko bazterrean uzten dira. Horren ondorioz, fenomeno **estatistikoki banan bana zenbatzea eta kuantitatiboki neurtzea (kualitatiboki neurtzea ez aipatzearen) era jakin batzuetako ezaugarriak dituztenetara mugatzen da.** Ondorioz askotan fenomeno identifikatzeko ezaugarri berezi batzuk betetzen dituztenak izaten dira kontuan, adibidez, erregistratuta dauden GKEen kopurua, edo boluntarioritza-plataformei atxikitako kide kopurua kontuan izan dutenak, eta alde batera utziz edo baztertuz, irabazi asmorik gabeko elkarkidetzak mugimenduak, esate baterako, aisialdiarekin zerikusi dutenak.

Hiru estereotipo modu horiek dira, besteak beste, gure gizartean hirugarren sektore honek duen benetako egoerari buruzko aipamena egin aurretik, fenomeno honi lotutako honako baldintzak onartu beharrera garamatzatenak:

- a) Fenomenoa izendatzeko erabiltzen den termino anbiguoak definitzio operatibo bat eskatzen du.
- b) Fenomenoak gizartean ematen diren dimentsio askotako getakizunak barnebiltzen ditu, eta horretan milaka faktorek hartzen dute parte fenomeno bera kaleratu arte eta garatu arte.
- c) Ahalegin ikaragarria eskatzen du, kuantitatiboki neurtu ahal izateko.

Herritarren eguneroko bizitzako elkarrizketetan Gizarte Zibila, Gizarte Zibel Globala, Boluntarioritza, GKE, GGKE, IAE, GEIAE², eta NGKE, Hirugarren Sektorea edo Irabazi Asmorik gabeko Sektorea bezalako deiturek leku bat irabazi badute ere, oraindik nahasketa handia dago eta ez da lortu termino bakoitzak adierazten dituen “kontzeptuen eduki”ak zehaztea, ez eta “kontzeptu bakoitzak muga-

Hirugarren sektorearen edo irabazi asmorik gabeko sektorearen azterketa zehatz eta zorrotz bat egitea galarazten zuten (eta hein batean galarazten jarraitzen duten) oinarriko anbiguotasunei buruzko aipamen bat egin behar da, anbiguotasuna horien ondorioz ezinezkoa izaten baitzen sektore honek gizartean duen eragina eta esanahia ebaluatzea: zehaztu gabeko kontzeptua, historian zehar izan duen garapena, legearen aurreko balio bikoiztasuna, estatistikako pisua eta, azkenik, gizartean duen eragina

2. LSiglak ugalduz doaz etengabe: GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundea) GGKE (Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundea), IAE (Irabazi Asmorik gabeko Erakundea), GEIAE (Gizarte Ekimenerako Irabazi Asmorik gabeko Erakundea), NGKE (Nazioarteko Gobernuz Kanpoko Erakundea).

tu nahi dituen ekintzen unibertso enpirikoa” zedarritzea. Beste era batera esanda, **termino bertsuak erabiltzen dira eduki kontzeptual ezberdinak adierazteko eta eduki bertsuak mugatzen dira termino desberdinak erabiliz.**

1.3. KONTZEPTUA ETA TERMINOLOGIA

Planteamendua

Elkarkidetasuna gizartearen barruan sortutako mugimendua da, eta horren bidez jendeak honakoa bilatu edo eskaini nahi du:

- a) laguntza, sorospena, indarra
- b) adiskidetzak, laguntasuna, kidetasuna, afektua eta konfiantza
- c) ospea, gizarte-estatusa, ahalmena, eragina
- d) elkartasuna, erantzukizuna, konpromisoa eta eskuzabaltasuna lagun hurkoarekin.

Izatez, esan daiteke lau jarrera nagusik elkarkidetasun erakunde bat sortzea ekar dezakeela: bakardadeari ihes egiteko laguntasuna bilatzea; ahultasunari erantzuteko lagun hurkoaren laguntza bilatzea; gizartearen barruan indar bat lortzeko batasuna lortu nahi izatea; eta gizarteko erantzukizuna eta elkartasunak ematen duen asetasuna erdiesteko kohesioa. Horregatik, mugimendu honen arrazoia ezin da esan “gogo misiolari” batean oinarritzen dela bakarrik, hau da, elkarkidetzak ezin da ulertu bakar-bakarrik “lagun hurkoari laguntzeko arrazoi altruistaz eratu den talde”koa izatea, ez eta holako mugimenduak “asmo partekatua dutenen interes komuna defendatzeko sortutako elkarte”ak direla uste dutenen “planteamendu sindikalista” ere.

Helburu nagusia laguntza, sorospena, ahultasunari eta ezintasuna aurre egiteko indarra eskatzea bada, esan daiteke elkarkidetzak onura bat lortzeko bitarteko bat dela. Helburu nagusia laguntasuna, adiskidantza, kidetasuna, afektua eta konfiantza bilatzea bada elkarkidetzak adierazpen-jitea dauka eta estu-estu lotuta dago, zeri-kusi handia dauka, eguneroko elkarbizitzarekin eta aisialdiarekin. Helburu nagusia ospea, gizarte-estatusa, ahalmena, besteengan eragina izatea bada, jite politikodun elkarkidetzari buruz ari gara, nahiz eta hori hauteskundeetako, sindikala, kulturala edo ekonomikoa izan. Eta azkenik, helburu nagusia elkartasuna, erantzukizuna, konpromisoa eta lagun hurkoarekin eskuzabal izatea bada, elkarkidetzak ongizate- eta elkartasun-jitea edukiko du.

Ez da harritzekoa, beraz, elkarkidetzak sortzen duten faktore horien guztien aniztasun horrek elkarkidetasunaren edukia ulertzeko ikuspe-

Esan daiteke lau jarrera nagusik elkarkidetasun erakunde bat sortzea ekar dezakeela bakardadeari ihes egiteko laguntasuna bilatzea; ahultasunari erantzuteko lagun hurkoaren laguntza bilatzea; gizartearen barruan indar bat lortzeko batasuna lortu nahi izatea; eta gizarteko erantzukizuna eta elkartasunak ematen duen asetasuna erdiesteko kohesioa

gi desberdinak sortzea eta ondorioz erreferentzia terminoak ere hainbeste ugaltzea.

Kontzeptua eta terminologia

Honakoak direla esan daiteke **gehien erabiltzen eta aldi berean sektore honen deskripzio eta analisisetan nahaste gehien sortzen duten terminoak:**

a) Gizartekoitasuna: edozein izaera edo jiteko helburu bat lortzeko pertsonok daukagun joera modu egonkorrean elkartzeko. Termino hau da, eduki kontzeptualari dagokionez, zabalena eta GEAC ikerlari-taldeak kaleratu du. Testu-inguru horretan, enpresak ere gizartekoitasunaren adierazpena dira, nolabait. Adiera hau iraultza industrialara eta horrek gizartean izan zituen eraginak aztertu zituzten lehen soziologoek ere (Compte, Spencer, Tönnies, Durkheim...) erabiltzen zuten, eta azkenean Aleis Tocquevillek eman zion benetako hedapena Amerikako demokraziari buruz egin zuen liburu klasikoan.

b) Gizarte zibila: Asko erabiltzen den beste termino bat da gizarte zibilaren hau; duela gutxi kaleratu zen eta oraindik ez dago oso hedatuta, ez hirugarren sektorea aipatzeko behinik behin. Hitz honen bi adiera erabiltzen dira gehienbat arlo honetan: bata zabalena eta beste mugatuagoa. Azken adiera horretan, gizarte zibila terminoak gizarte instituzio, merkatu, boluntarioen elkarte eta gizarteko bizitzako arlo publiko osoa hartzen ditu bere baitan, baina baztertu egiten ditu berriaz estatuak zuzenean kontrolatzen dituen instituzioak.

Gizarte zibila, beraz, zuzenean estatuaren aparatukoa ez dena da eta hitzak berarekin bat darama estatuaren (bere administrazio makineria osoarekin) eta pribatua denaren artean egon behar duen bereizketa edo tartea. Ez du bereizten, printzipioz, bi instituzio mota baino: estatala eta estatala ez dena, publikoa eta pribatua.

Salvador Ginerren hitzetan, ez dago gizarte modernorik bere ezaugarri nagusietan gizarte-askatasunaren eremu autonomo bat aurreikusten ez duenik. Autonomoa, esan nahi da, bai botere politikoaren aurrean bai kanpoko edo beste edonolako esku sartzeko ideologikoren aurrean. Bakar bakarrik esan dezakegu herrialde batzuk beste batzuk baino gehiago hurbiltzen direla eredu perfektura.

Azken batean, gizarte zibila historikoki gizabanakoaren eskubidez, askatasunez eta boluntarioen elkartez eraikitako esfera hura

Gizarte zibila zuzenean estatuaren aparatukoa ez dena da eta hitzak berarekin bat darama estatuaren (bere administrazio-makineria osoarekin) eta pribatua denaren artean egon behar duen bereizketa edo tartea

balitz bezala defini daiteke, zeinaren autonomia eta elkarren arteko konkurrentzia beren interes eta asmo pribatuen atzetik bermatuko diren instituzio publiko baten eskuz; baina Estatua izeneko instituzio publiko horrek ez du esku-hartze politikorik izaten aipatutako giza jardueren eremu horren barruan³.

c) Ekonomia soziala: Ezagunago gertatzen zaigu ekonomia soziala terminoa. Honetan biltzen da helburu ekonomiko eta sozialak funtzio bakar batean jokatzen duten erakundeek multzo guztia, partaide-tza sustatu eta bultzatzen duten erakundeena eta erabakiak hartzerakoan bertako kideen erantzukizuna ezinbesteko baldintzat sartzen dutenena. Ekonomia sozialaren sektoreak, ohiko sektore publiko eta enpresakoaren artean gertatzen ez den moduan, merkatuko askatasun ekonomikoa eta justizia soziala elkarrekin batera eraman nahi duten instituzio guztiak barnebiltzen ditu, ekonomia sozialak uste duelako hori dela gizarteko arazo kolektiboak (langabezia, bizi-kalitatea, etxebizitza, kontsumoa, aurrezpena, hezkuntza, osasuna...) konpontzeko bidea. Gizarte ekonomiari buruz hitz egiten denean, ondasunak eta zerbitzuak sortzeko, seguruak egin edo finantzatzeko merkatuan ari diren enpresa pribatuen multzoa aipatzen da, hau da, etekinak banatzea eta erabakiak hartzea ez daudenean zuzenean lotuta bazkide bakoitzak jarritako diruari

Ekonomia sozialak, beraz, ez ditu biltzen bere baitan onurak lortu nahi dituzten erakundeak, baizik eta onurak funtzionamendu jakin baten barruan bilatzen ari direnak. Ekonomia sozial adierazpenak izan duen gorakada eta sendotzea handiak izan badira ere, hitzaren erabilera ezin izan da anbiguotasunetik itzuri, eta beste adiera batzuekin batera bizi beharrean dago, hala nola hirugarren sektorea, boluntarioen sektorea, ekonomia alternatiboa... eta beste batzuk “antzeko errealitatea deskribatu nahi dutelarik ere, ez dutenak beti jarduera eremu bera mugarritzen”⁴.

d) Boluntariotza: Hitz hau asko erabiltzen dena da gai honi buruzko literatura espezializatuan; honetan barnebiltzen dira inolako bereizketarik gabe boluntarioz osatutako organizazioak (erakundeak). Termino honek elkarrekin boluntarismoan (bakoitzaren borondatea, ez da berariaz filantropia) oinarritzen diren erakundeak aipatzen ditu.

Hitzaren adierak irabazi asmoa legitimotzat jotzen duten elkarrekin nork bere borondatez partehartzea onartzen dutenak zein holako elkarre-

Ekonomia sozialaren sektoreak, ohiko sektore publiko eta enpresakoaren artean gertatzen ez den moduan, merkatuko askatasun ekonomikoa eta justizia soziala elkarrekin batera eraman nahi duten instituzio guztiak barnebiltzen ditu, ekonomia sozialak uste duelako hori dela gizarteko arazo kolektiboak konpontzeko bidea

3. A. Ariño, Diccionario de la Solidaridad, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2.002.

4. Barea J y Monzón J, La Economía Social en España, Ciriec, Valencia 2.003.

etan partehartzea bazterten dutenak onartzen ditu. Inork ez du ukatuko, bestalde, adibidez, enpresarien elkarkidetasuna boluntarioa ez denik.

e) GKEak/GGKEak: Testuinguru honetan GKE kontzeptua hedatu da azken bolada honetan. Hitzak adierazten duenez, estatua- ren antolamenduarekin zuzeneko loturarik ez dutela eta bertako baz- kide edo zuzendarientzat irabazi asmorik ez dutelarik, gizartea laguntzeko eta sustatzeko asmoa duten elkarte guztiak biltzen dira kontzeptu honen baitan. Era honetako erakunde gehienek ikuspegia da beren jarduerak hirugarren munduari eta horren garapenari lagun- tzeko bideratzea. Era honetako erakundeek hasierako ikuspegi horrek sarritan bi erakunde mota bereiztea ekarri du: Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak. Bereizketarekin edo bereizketarik gabe, irabazi asmorik gabeko sek- torearen garrantzi eta funtzionamenduz hitz egiten dugunean, GKEaz ari garela ulertu behar dugu.

f) Gizarte Ekimenerako Irabazi Asmorik gabeko Sektorea: Bi termino erabiltzen dira kontzeptu hau izendatzeko eta bata zein bes- tea erabiltzen dira arazo handirik gabe: Hirugarren Sektorea eta Ira- bazi Asmorik gabeko Sektorea. Horiekin batera batzuetan beste hiru- garren termino bat ere erabili ohi da: Gizarte Ekimena, azken batean, sektorea teorikoki elkarrengandik modu adierazgarrian bereizita dau- den bi sektoretan banatzen duena: batean biltzen dira, izatez, bazter- tuta dauden pertsona edo komunitateei laguntza eta arreta emateko diren unitateak, eta bestean, holako orientaziorik ez duten gainontze- ko erakundeak: eskolak, kirol klubak, aisialdirako zentroak, kultur ateneoak, eta abar.

“Hirugarren sektorea” terminoak argi uzten du estatutik bereizita dagoela, “irabazi asmorik gabe” terminoa merkatuari kontrajarrita dagoela, eta “gizarte ekimena” hitzak indartu egiten du jardueraren onuraduna zeini dagokion.

Jada aurreko lerroetan adierazi denez, ezin dugu ahaztu anbiguo- tasun-egoera problematiko hori ez dela bakarrik terminologia kontu bat, eta ez dela terminologia arazo bat, nahiz eta jite kontzeptual teo- rikoa eduki. Eta definizio bata edo bestea hartu, gizarteko fenomeno honetakotzat jo daitezkeela edota hortik baztertutzat, adibidez, elka- rrekin zerikusirik ez duten (kontzeptuari dagokionean) zenbait era- kunde: kooperatibak, aurrezki kutxak, fundazioak, alderdi politikoak, GKEak, boluntarioen elkarteak, eta abar.

Bestelako zehaztapenik gabe elkarkidetasunari buruz hitz egiten denean, jakindakotzat jotzen da irabazi asmorik ezari egin beharreko

“Hirugarren sektorea” terminoak argi uzten du estatutik bereizita dagoela, “irabazi asmorik gabe” terminoa merkatuari kontrajarrita dagoela, eta “gizarte ekimena” hitzak indartu egiten du jardueraren onuraduna zeini dagokion

aipamena. Baina, ez da hori bakarrik elkarkidetasunaren giza fenomenoari buruz hitz egiteko modu bakarra. Gaiari adituek ematen dioten tratamendua teorikoki bata besterengandik oso urruti dauden bi muturren artean kulunkatzen da. Mutur batean dabiltzanen interpretazioak edo adierak elkartearen helburuak gizarteari zerbitzatzera edo laguntzera mugatzen ditu (GKEak eta GGKEak); beste muturrekoek, ordea, elkarkidetasuntzat daukate irabazi asmorik gabe modu finkoan eta instituzionalean eraturako mugimendua.

1.4. DEFINIZIO KOMUN BAT ONARTZEKO ARRAZOIAK

Asko dira definizio komun eta zehatz bat bilatu beharra eskatzen duten arrazoia, betiere ere aipaturako erakunde horiek ustez betetzen duten gizarte-eginkizuna kontuan izanik, adibidez: gizartearentzat bai Administrazioak bai irabazi asmorik gabeko erakundeek merkatuan baino baldintza hobeto eskaintzen duten ondasun eta zerbitzuen produkzioarako agente bezala gizartean duten eragina; erakunde horiek Administrazioekin alderatuz eskaintzen duten eraginkortasun handiagoa; edota eskaintza-prozesua kanporatzerakoan lortzen diren abantaila handiagoak, batez ere eskaintza hori irabazi asmorik gabeko erakundeek egiten badute.

Merkatuaren “kontratu-porrot”ak, Administrazioaren “zurruntasun”ak eta “kapital sozial”ak abantaila sozial bat ematen diote irabazi asmorik gabeko erakundeei. Alabaina, uste hori berresteko, premiazkoa da egia bera bermatuko duen definizio zehatz bat eskuratzea, eta horrek gainera aldi berean elkarteko elementuak, gehigarri bereizi eta espezifikoko bezala hartuz, espazioari eta denborari begira konparatzeko aukera eman beharko du.

Definizio hori honako hiru ikuspegi kontuan izanik lortu daiteke:

- Lehenengo ikuspegia erakunde hauen oinarrietan dauden *input*-en jitean dago: a) bazkideak, enplegatuak, boluntarioak; b) dohaintzak, dirulaguntzak, kontratak.
- Bigarren ikuspegia, produzitzen dituzten ondasun eta zerbitzuen *output*-etan oinarritzen da.
- Hirugarren ikuspegiak, ordea, elkarteei sortzen dituzten onurak banatzeko modua izaten du kontuan.

Irabazi asmorik gabeko sektorea edo hirugarren sektorea aztertzerakoan bi hutsune atzemango ditugu terminologiaren arloan. Batetik, ez dugu kontzeptu zehatz eta bateragarri aurkituko eta, bestetik, sektoreak elkarrekin tolestutzen diren kontzeptuak, partzialak ez badira, erabili beharko ditugu, hala nola ekonomia soziala, gizarte zibila,

Premiazkoa da egia bera bermatuko duen definizio zehatz bat eskuratzea, eta horrek gainera aldi berean elkarteko elementuak, gehigarri bereizi eta espezifikoko bezala hartuz, espazioari eta denborari begira konparatzeko aukera eman beharko du

boluntariora erakundeen multzo guztia edo gobernuz kanpoko erakundeena, edota hirugarren sektorea besterik gabe.

Alabaina, esandakoa ez da aitzakia, gaiari buruz egiten den azterlan bakoitzean erabiltzen ditugun terminoak, ahal den neurrian zehazteko eta argitzeko, hala jokatzera derrigortzen gaituen akuilua baizik. Ondorioz, badirudi ezinbestekoa dela fenomeno hau aztertzeke eta deskribatzeko egiten den azterlan bakoitza, bertan aztertzen den kontzeptua izendatzeko terminoak zehazten eta finkatzen hastea; lehenbizi, gaiaren kontzeptua eta unibertsoa zehaztu beharko da, alegia.

Ondoren, hirugarren sektorea definitzeko bide batzuen adibideak eskaintzen dira. Aurrenekoak erakunde hauek Estatuaren zein merkatuaren eremutik bereizten dituen elementu negatiboa indartzen du, nahiz eta Manuel Herrera⁵ zorrotzasunez iradokitzen duen bezala, definizio egoki batek ezin du bere eremua kontzepzio negatibora mugatu bazterketan oinarriturik, hau da, ezin da erakundea zer den azaldu ikuspegi positiborik gabeko definizioaz, Estatu eta merkatua “zer ez diren” azalduaz.

Bigarren definizio batek berariaz elkartasunaz eta altruismoaz lagundutako hiru eremu tradizional barnebiltzen ditu: osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak, hots, irabazi asmorik gabeko sektore klasikoa eratzen dutenak

Azkenik, hirugarrenak gizarte-ekimeneko erakundeen multzoa baino ez luke hartuko bere baitan, eta hori oro har bat etorriko li-

1. grafikoa

HIRUGARREN SEKTOREAREN OSAGIAK



5. Herrera M.(2002) “El Tercer Sector”, Diccionario de la Solidaridad, Cuadernos de Solidaridad, Tirant lo Blanch, Valentzia

Irabazi asmorik gabeko sektorea edo hirugarren sektorea aztertzerakoan bi hutsune atzemango ditugu terminologiaren arloan. Batetik, ez dugu kontzeptu zehatz eta bateragarri aurkituko eta, bestetik, sektorean elkarrekin tolestaten diren kontzeptuak, partzialak ez badira, erabili beharko ditugu, hala nola ekonomia soziala, gizarte zibila, boluntariora erakundeen multzo guztia edo gobernuz kanpoko erakundeak edota, besterik gabae, hirugarren sektorea

tzateke Hopkins-en terminologiako “Gizarte-Zerbitzu”ak sektore-arekin. Beraz, gizarte-ekimenean ari diren irabazi asmorik gabeko erakundeen multzoa barnebilduko luke eta irabazi asmorik gabeko sektore zibiko-soziala izango litzateke.

- Horren helburu nagusia giza ezberdintasunak eta gizarte bazterketa eta marjinazioa ekiditea izango lirateke.
- Horren onuradunak honako giza talde kaltetuen sailak izango litzateke, hala nola ahalmen urritasuna edota ezintasuna dutenak, errefuxiatuak edota immigranteak, gutxiengo etniak, atxilotuak, larrialdi egoeran dauden kolektiboak eta gaixotasun kronikoak dituztenak.
- Eta hori guztia lortzeko honako jarduerak bultzatuz: gizarte-boluntarioritza, informazio eta laguntza juridikoa, aholkularitza profesionala, sorospen medikoa, psikosoziala edo sanitarioa, egoitza edo etxeko arreta, eta abar.

1.5. DEFINIZIO OPERATIBOA

Edozein gizarte-gertakizuni dagokion konplexutasun objektiboa kontuan izanik, hala nola gaur egun fenomeno konkretu hau bultzatzen duen dinamismoa, anbiguotasunik txikiena eta adierazpenik handiena ematen duten definizioak erabiltzeko jokabide pragmatikoa hartu beharra ikusten da.

Horrela, bada, aurrean deskribatu dugun fenomeno ez dugu izendatuko ekonomia soziala, gizarte zibila, GKE/GGKE, boluntarioritza-erakundea eta holako terminoekin, baizik Hirugarren Sektorea edo Irabazi Asmorik gabeko Sektorea, bata zein bestea eta beren adierarik zabalenean, hau da, bakarrik “gizarte-ekimen”era mugatu gabe, nahiz eta inolako zalantzarik gabe onartu azken termino horrek irabazi asmorik gabeko elkarkidetzaren fenomenoaren barruan azpisektore honek duen garrantzia.

Definizio hori asmatu dutenek, izatez, definizioa bera unibertsaltzat jotzen dute honako arrazoiengatik: a) terminoaren izaera eta bilakaera alderatu ahal dira gizartearen garapen maila desberdinetan, eta b) horren sustapena edota blokeoa ahalbidetzen duten faktoreak banatzeko balio du.

Haatik, termino horrek ere ez du lortzen egozten zaizkion zehaztapen gabezia eta anbiguotasuna gainditzea, eta ez du lortzen gizarte garatuenak, gizarte modernoak, garapen bidean daudenekin, gizarte aurreindustrialekin alderatzea ez diakronikoki ez sinkroni-

Anbiguotasunik txikiena eta adierazpenik handiena ematen duten definizioak erabiltzeko jokabide pragmatikoa aukeratu beharra ikusten da

koki. Eta ez dio bidezko justiziarik egiten ekonomia sozial, gizarte zibil edo kapital sozialari buruzko teoretatik ondorioztatzen diren ikuspegi teorikoen eduki-aberastasunari ere⁶. Halaz eta guztiz ere, ikerlari ospetsu askoren hitzetan, termino hori da, hain zuzen ere, ulergarriena eta anbiguotasun gutxien duena.

Definizio horrek funtsezko bost irizpide barnebiltzen ditu, eta horien bidez finkatzen ditu hirugarren sektorearen ataltzat ulertzeko, edozein entitatek eduki behar dituen oinarrizko ezaugarriak. Beste era batera esanda, edozein erakundek edo erakunde multzok, honako bost ezaugarriak eduki behar ditu, sektore honetako hartuko bada:

1. Formalki eratuta egotea. Horrek instituzionalizatutako errealitate bat eskatzen du, barrua egituratuta duena eta helburu formalen egonkortasun erlatiboa duena; eta bazkidea zein den eta ez den ondo bereizita eduki behar ditu.

Irabazi asmorik ez duen sektoreak hainbat jokabide hartzen ditu bere baitan, batzuk gizabanakoarenak eta beste batzuk taldearenak, baina jokabide horiek ez dira erakunde egonkorretan mamitzen; alabaina, horrek ez du esanahi ez dutenik eragin ekonomiko garrantzitsurik gizartearen barruan. Jokabide horrek, halaber, bizitzeko modu berezi bat eskatzen du (J. Coleman-ek kapital sozialtzat definitzen duena), eta horren arabera familiak, klanak, auzoak, eta abarrek jokabiderako arau-irizpide batzuk finkatzen dituzte, elkartasunean oinarriturik, eta horiek irabazirik gabeko jokabide boluntario bezala gauzatzen dira. Horien bidez indartsuek (ekonomikoki, ekologikoki, demografikoki...) beren baliabideak ematen dituzte, ahulenen abagune txarra edo egitura-egoera zaila arintzeko, ohiz gizarte horretan bertan merkataritza transakzioetan eta legezko prestazioetan erabiltzen diren bestelako forma batzuk erabiliz.

Hala, badirudi giza kapital eta kapital ekonomiko hori guztia, nolabait, kontuan hartu beharko litzatekeela, irabazi asmorik ez duen sektorearen pisua zehatz-mehatz kalkulatu ahal izateko. Hala ez egitea, hau da, ikerlari horiek egin dituzten kalkuluetan ez sartzea, gizartean duen pisua zehaztasun-bermerik gabe kalkulatzeko ezintasun fisikoaren seinale izango litzateke.

Aldi berean, iritzi horiek bat datoz Demetrio Casadok esaten duenarekin, alegia, gure herrialdeko elkarkidetzaren sektorea ulertzeko,

Definizio horrek funtsezko bost irizpide barnebiltzen ditu, eta horien bidez finkatzen ditu hirugarren sektorearen ataltzat ulertzeko, edozein entitatek eduki behar dituen oinarrizko ezaugarriak: formalki eratuta egotea, pribatua izatea, jardueren autokontrola, etekinak ez banatzea, boluntariotzaren parte hartze handia edukitzea

6. Cfr. Cabrero, Salinas, Perez Díaz, Susanna Morris, Carmina Marcuello

kontuan izan beharko litzatekeela boluntariotzaren milaka eta milaka instituzio daudela eta horiek ezformaltasun ofizialetik gertu dagoen giro ilun batean dihardutela. Erakunde horietako asko gizarte estamentalaren tradizio sozialaren erantzuna baino ez dira eta hala dihardute ezlegezko tasun formalaren inguruan, ez baitira inolako erregistro zibiletan izena emandakoak. Edozein modutara, bi motatako erakunde horiek (informalak eta tradizionalak) definizio honetatik at daude, irizpide zientifikoak eskatzen dutelako baino gehiago, neurtzeko baliabide egokirik ez dagoelako.

2. Pribatua izatea. Hau da, instituzionalki gobernuengandik (nazionala, erkidegokoa eta tokikoak) bereizita egotea. Espainiaren kasuan, definizio horrek sistematikoki baztertzeko ditu Espainiako Zuzenbide Administratiboak arautzen dituen erakunde guztiak, ez ordea Zuzenbide Zibilak arautzen dituenak.

Gizartearen bilakaerak arlo honetan ere zer den kalkulatzeko zailtasun handiak aurkitzen ditu aurrean, gobernu zentral eta autonomikoek gizarte-erantzukizunak transmititzeko erabiltzen duten politikaren ondorioz. Horiek erakunde erdi-publikoen esku jartzen dituzte ohiz Ongizate Estatuak eskaintzen dituen zerbitzu asko eta asko. Baina zerbitzu horiek eskuz aldatzea ez da mugatzen soilik ekonomikoaren arloa, baita autonomiaren zenbait mailetara ere, eta horrekin, azken batean, zaildu egiten da -ezinezko bihurtzen dela ez esatearren- gobernuaren erakundea zer den eta gobernu kanpoko zer den bereiztea.

Adibidez, badira fundazio batzuk, gobernuak, patronalak eta sindikatuek era askotako xedez eratu dituztenak; holako kasuak eta antzeko beste batzuk geroz eta gehiago dira, egunetik egunera sortzen dira berriak. Prozesu hori fundazioen jitea eraldatzen ari da, elkarreana aldatu duten bezala edo gehiago. Lehenak beren ondasunak kudeatzeko instituzioa izatea alde batera utzi eta inoren ondasunak kudeatzera aldatu dira. Bigarrenak, ordeak, gizarte-ekimenaren autonomia galdu eta Herri Administrazioen babes eta diskrezionalitatearen menara jarri dira.

3. Maila instituzionaleko beren jarduerak kontrolatzeko gaitasunez gozatzea. Horrek adierazten du nork bere estatutuak eta erantzukizun korporatiboa eduki behar dituela.

4. Etekinak ez banatzea jabe eta administrarien artean. Erakunde hauek izatez ez dira sortu etekinak sortzeko ez zuzenean ez zeharka; eta ez dira sortu, arau komertzialetara menderatzeko ere. Irabazi asmorik gabeko erakundeak lor ditzakete etekinak, baina

Agian, hirugarren sektorekotzat jotzen diren instituzioen ezaugarriak berezi eta berariazkoena da bertako kideen artean etekinik ez banatzea

horiek erakundearen beraren misio korporatiboaren arabera inbertitu behar dira berriro eta ez erakundea administratzen edo zuzentzen dutenen artean banatu.

Agian, hirugarren sektorekotzat jotzen diren instituzioen ezaugarri berezi eta berariazkoena da bertako kideen artean etekinik ez banatzea. Baina baldintza hori zaila da zehaztasun eta zorrotasun osoz betetzea, kontuan izan behar baita erakunde orok, erakundea izateagatik baino ez bada ere, etekin sozial batzuk ematen dizkiela (ospea, estatus soziala, boterea, legitimazio morala...), etekin ekonomikoez gainera, beren jabe, bazkide edo kudeatzaileei. Irabazi asmorik gabeko erakundeek ez dute xede edo jomuga nagusitzat ondasun ekonomikoa lortzea. Baldintza horrek, hain zuzen, arazo handiak sortzen dizkie kooperatiba eta mutua moduan eratutako erakundeei hirugarren sektorean sartzeko.

Honaino iritsi garelarik, egoki deritzogu kooperatiben egoeraz iritzi batzuk emateari, kooperatibei buruzko Espainiako legeriak⁷ azken aldian izan dituen aldaketak aldaketa. Espainiako legerian kooperatibek merkataritza-jite nabarmena dute, enpresa-jarduerak burutzen dituzten sozietatetzat jotzen baitira, nahiz eta argi eta garbi onartu ez dutela irabazi asmorik. Kooperatiba eta mutuei buruzko Espainiako legeria bilakaera-prozesu bizi batean murgilduta dago, progresiboki kooperatiben egonkortasuna eta lehiakortasun ekonomikoa bermatzeko eta, aldi berean, elkartasun-ideologiatik hurbiltzeko. Honetara iritsi garelarik, Borrajo Dacruzekin bat egiten dugu honako esaten duenean “mutualitateen jabaria elkartasun kolektiboaren arlotik argi eta garbi izaera indibidualistako jabari merkantil eta kontraktualaren arlora lekuz aldatu du hein handi batean”.

Gure gizarteko kooperatibei buruzko historia eta filosofiak, alabaina, printzipio ideologikoak izan dituzte gidari, eta hori horrela izateak irabazi asmoak dituzten erakundeetatik bereizten ditu funtsean. Gertaera horretatik bi ondorio atera daitezke: batetik, legeriak kooperatibei exijitzen die beren etekin netoen ehuneko garrantzitsu bat -kooperatibako bazkideen artean ezingo dena banatu- gordetzea, hezkuntza eta gizarte prestakuntzako planak garatzeko. Dirutza hori, legeak eta kooperatiben ideologiak berak arautzen dutena, kooperati-

Gure gizarteko kooperatibei buruzko historia eta filosofiak, alabaina, printzipio ideologikoak izan dituzte gidari, eta hori horrela izateak irabazi asmoak dituzten erakundeetatik bereizten ditu funtsean

7. Lege Orokorra eta erkidego eta komunitateetako legeak: Euskadi, Katalunia, Andaluzia, Valentzia eta Nafarroa.

bei irabazi asmorik gabeko sektorearen ñabardura ematen dien elementutzat hartu behar da.

Bestalde, gaur egun dauden kooperatiba askok beren helburuetan elkartasunari eta gizarte-lankidetzari lehentasuna eman eta beren bazkideen irabazi asmoak bigarren mailara aldatzeak kooperatibak beste erabateko erakundetzat hartzea eskatzen du, hau da, bestelako enpresei ematen zaien tratamendu bera ez ematea. Hori horrela, komunitateari zerbitzatzeko beren helburuetako lehen mailan jarri eta irabazi asmoa bigarren mailan jarri duten kooperatibak Hirugarren Sektorea⁸ kontzeptuan sartu beharko ditugu. Kooperatibei dagokien erabili ditugun irizpideen antzekoak erabili ditugu mutuei dago-kienez ere.

5. Boluntariotzaren parte hartze handia edukitzea. Hau da, erakundearen parte hartzen dutenak edo ez dutenak beren borondatez aritzea eta ez kanpotik ezarritako obligazio edo ezarpenez. Horrekin batera, definizioan sartzen dira, irabazi asmorik gabeko erakundeak direlarik, beren borondatez nolabaiteko ondarea gehitu dutenak instituzioaren helburu orokorrak⁹ betetzeko. Fundazio pribatuak ohiz ez dute boluntario-kopuru esanguratsurik beren bazkideetan, alabaina horrek ez du esanahi irabazi asmorik gabeko sektorean sartu behar ez direnik.

Kasu askotan zaila izaten da, ezinezkoa dela ez esatearren, erakunde jakin bat edo erakunde-talde bat hirugarren sektorean sartu behar dela edo ez erabakitzea. Errealitate soziala beti da askoz ere konplexuagoa errealitate horretan oinarriturik egindako asmakuntza teorikoa baino¹⁰.

8. Zerbitzua ematearen helburua bazkideen irabazi asmoaren gainetik jartzen duten kooperatibetan aipagarri dira honakoak: gizarteratzeak, irakaskuntzakoak, hezkuntzakoak eta eskolakoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileenak, etxebizitzak eta nekazaritzaak.

9. Garbi dago fundazio pribatuak ez dutela, boluntariotza-elkarteen antzera, boluntario-kopuru handirik beren egituren barruan. Alabaina, horrek ez du galerazten erakunde horiek irabazi asmorik gabeko sektorekotzat hartu behar direnik.

10. Definizio horrek azterlan honetatik kanpo uzten du irabazi asmorik ez duten jardueratalde handi bat nahiz eta gizartean txertaturik egon eta printzipioz eta itxuraz azterlanean sartu beharko litzatekeena izan. Nazioartean gertatzen denarekin konparazioak egiteko xedeak (beste arrazoi batzuekin bat) instituzionalizatuta baina formalki antolatuta ez dauden irabazi asmorik gabeko gizarte-jarduerak duten erakundeak aukeratzera eraman gaitu. Halaxe egin dugu, *Informe Foessaren* (1994) kalkuletan ere bide hori aukeratu delako: familien %9k adineko gaixo eta zaharrei zor zaien gizarte-laguntzarako zerbitzuak ordezkatzeko dituzten ohiz, baina modu informalez eta bat-bateko jitez. Esan dezakegu, halaber, bat gatzela D. Casadorekin, honakoa esaten duenean, guk faktikoki kanpoan uzteko erabakia hartu badugu ere: *“Espainiako elkarkidetasunaren sektorea ulertzeko, kontuan izan beharko genuke Espainian milaka eta milaka erakunde boluntario daudela ezformaltasun ofizialaren inguruko giro ilun batean dihardutenak”*.

Kasu askotan zaila izaten da, ezinezkoa dela ez esatearren, erakunde jakin bat edo erakunde-talde bat hirugarren sektorean sartu behar dela edo ez erabakitzea. Errealitate soziala beti da askoz ere konplexuagoa errealitate horretan oinarriturik egindako asmakuntza teorikoa baino

1.6. EREDU KORPORATIBOEN ABERASTASUNA

Azkenik eta atal honi amaia emateko, hirugarren sektorea osatzen duten erakundeen tipologia aztertu behar dugu. Irabazi asmorik gabeko sektorea deitura operatiboa osatzen duen espektro zabala-ren pean sartzen diren instituzio eta erakundeak asko baino gehia-go direla kontuan izanik, garrantzitsutzat daukagu hain multzo heterogeneoa atalez atal banantzea, gutxienez atalik adierazgarri-nak. Operazio horrek irabazi asmorik gabeko sektorearen tipologia zorrotz bat definitzea eskatzen du aldi berean. Tipologia horretan islatuko lirатеke sektorearen aberastasun soziala eratzen duten osa-kide guztiak banan bana, eta era berean horietako bakoitza bereizi beharko genuke modu estankotan eta bata bestearekin estali gabe.

Asko dira tipologia bat bilatzeko egin diren ahaleginak. Horietako adierazgarrietako batzuk aipatzearen baino ez, gai honi buruzko azterlanak egin dituzten honako sei autore aipatu nahi ditugu: Demetrio Casadoren “Organizaciones Voluntarias en España” (1992); Josep Cucóren “Vida Asociativa” (1992); Kultura Ministerioaren “Demanda Cultural en España” (1978); Ruiz Olabuénagaren “Ocio y Estilos de Vida” (1994), eta Antonio Ariñorena eta Laura Moralesena (2003).

Horren ordeztan eta alderaketak edo konparazioak egin ahal izateko asmoz, Jhon Hopkins Unibertsitatearen Irabazi Asmorik gabeko Nazioarteko Sailkapena (ICNPO) onartu dugu, sailkapen hori erabili delako beste hainbat sozietatetan ere. Horrek esanahi du, erabili ahal izango lirатеkeen sailkapen-irizpide kontaezinetatik bat bakarrik aukeratzeko dela, erakundeak erakunde bezala burutzen duen jarduera nagusian oinarritzen dena, alegia.

Erraz ikus daiteke kodifikatze-irizpide horrek berarekin bat daka-rren aberastasuna, irabazi asmoko erakunde askok burutzen duten jarduera-aniztasunaren kontrakoa izan arren. Zailtasun horrek, enpi-rikoki gaintzina izanik ere, edozein erakundeko jarduera nagusia-ren, garrantzitsuenaren edo adierazgarrienaren arabera kodifikatzeko aukera ematen du.

Sailkapen honek, beraz, irabazi asmorik gabeko sektorean dihar-duten hamabi erakunde-talde identifikatzen baditu ere, ez du gain-ditzen erakunde multifuntzionalak enkoadratzeko zailtasuna, nahiz eta horiek txikiak (zentro sozial asko eta asko) edo handiak izan (ONCE, Cáritas,...). Inori ez zaio ukatzen tipologia-taula honek dauzkan zailtasunak, batez ere bere edukia aplikatzerakoan. Hala ere, uste da bere funtzionaltasun konparatiboa askoz ere handiagoa dela bere zailtasun operatiboa baino.

Jhon Hopkins
Unibertsitatearen
Irabazi Asmorik gabeko
Nazioarteko Sailkapena
(ICNPO) onartu dugu,
sailkapen hori erabili
delako beste hainbat
sozietatetan ere. Horrek
esanahi du, erabili ahal
izango lirатеkeen
sailkapen-irizpide
kontaezinetatik bat
bakarrik aukeratzeko
dela, erakundeak
erakunde bezala
burutzen duen jarduera
nagusian oinarritzen
dena, alegia

IRABAZI ASMORIK GABEKO NAZIOARTEKO SAILKAPENA (ICNPO) HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEI BEGIRA

1. KULTURA ETA ARTEAK: atal honetan sailkatu dira antzerkiak, museoak, zooak, aquariumak, sozietate historikoak eta kulturalak...
2. KIROLAK ETA AISIALDIA: atal honetan sailkatu dira kirol klubak, gizarteko elkarteak, zerbitzuetakoak (Lehoiak, eta abar)...
3. HEZKUNTZA ETA IKERKUNTZA: atal honetan sailkatu dira lehen eta bigarren mailako eskolak, unibertsitate-hezkuntza, lanbide hezkuntza, irakaskuntza jarraitua, ikerketarako institutuak...
4. OSASUNA: atal honetan sailkatu dira ospitaleak, errehabilitazio-zentroak, adimen-osasunerako institutuak, aurrezaintza-zentroak, larrialdietakoak, boluntariotzako anbulantziak...
5. GIZARTE-ZERBITZUAK: atal honetan sailkatu dira haurren zerbitzuak, eguneko zentroak, gazteriaren taldeak, familiarenak, minusbaliatuenak, adinduen egoitzak, errefuxiatuen babesak, etxerik ez dutenei laguntzekoak, elikagaiak banatzen dituztenak...
6. INGURUMENA: atal honetan sailkatu dira ingurugiroa babestekoak, zaintzekoak, garbitzekoak eta berreskuratzeakoak, animaliak eta natura babestekoak...
7. GARAPEN KOMUNITARIOA ETA ETXEBIZITZA: atal honetan sartu dira komunitate eta auzoetako erakundeak, etxeko eta gizarteko garapenerako direnak, etxebizitza sustatzekoak...
8. ERAKUNDE ZIBILAK ETA DEFENTSA: atal honetan sartu dira herritarren erakundeak, herritarren eskubide eta askatasunaren aldekoak, giza eskubideen aldekoak, lege-zerbitzuetan aritzen direnak, krimenari aurre hartzekoak, delinkuenteak gizarteratzeko direnak, kontsumitzailearen defentsarakoak...
9. FILANTROPIA ETA BOLUNTARIOTZAREN SUSTAPENA: atal honetan sartu dira boluntariotzako fundazioak eta plataformak, fondoak biltzen dituztenak...
10. ERLIJIOA: atal honetan sartu dira elizak, sinagogak, meskitak eta gurtzarako zentroak.
11. NAZIOARTEKO JARDUERAK: atal honetan sartu dira laguntza-programak, giza trukerako direnak, garapenean ari direnak, giza eskubideen eta bakearen aldekoak...
12. LANBIDE-ELKARTEAK ETA SINDIKATUAK: atal honetan sartu dira enpresari, profesional eta langileen elkarteak...
13. BESTE BATZUK: atal honetan sartu dira gizarte aurrezaintzarako mutualitateak.

2. Espainiako irabazi asmorik gabeko elkarkidetasuna

2. Espainiako irabazi asmorik gabeko elkarkidetasuna

Espainiako herriari buruz idatzi eta iritzia eman duten guztiak sinestu beharko bagenu, esan beharko genuke herri horren ezaugarriak nagusi eta bereziena indibidualismoa dela, hau da, elkarkidetasunaren antitesi absolutua. Eta, Alexis de Tocqueville-ren tesia egia balitz, hau da, herrialde bateko elkarkidetasunaren garapen mailak herrialde horretako demokraziaren maila ez ezik, herrialde horren imajinazioa, gazteria, elkartasuna eta askatasunaren mailak ere adierazten dituela¹¹, Espainiako gizartea ez litzateke beste herrialde demokratikoak bezain demokratikoa izango eta, aldi berean, herrialderik tristeena eta elkartasun eta askatasunik gutxiena duena izango litzateke.

Irabazi asmorik gabeko sektoreak bizi duen “larrialdi globalizatu”aren marko horretan, Espainiako elkarkidetasunak irudi bikoitza erakusten du gizarteari begira. Alde batetik, elkarkidetzaren herritarren eta gizartearen bizitzaren antolamendu bezala, elkartasuna, askatasuna eta demokrazia sustatzen duten giza bertutetzat jotzen dute gehienek eta, bestalde, elkarkidetzaren gure herrietako elkarbizitzan nabarmentzen den hutsune bat da. Bi interpretazio horiek, alabaina, ez dira egiaztatu, ez eta urrutitik ere, ikerketa sakon eta zorrotzekin, Espainiako gizarteko errealitatearekin bat datozen ala azal-azaleko estereotipo hutsak diren. Espainiako elkarkidetzaren ikuspegi panoramikoak, nahitaez, bi informazio maila horiek jaso behar ditu, hots, elkarkidetasunak Espainiako gizartean duen indarrari buruzkoa eta elkarkidetzaren horrek gizartean duen legitimitatea.

2.1. GIZARTEKO EGOERA

Eta hona hemen lehen galdera, zer maila du Espainiako elkarkidetasunak? Ez dugu, adibidez, frantziarrek, italiarrek, alemaniarrek edo ingelesek bezain elkarkidetasunik? Espainiako elkarkidetasuna eta Espainiako gizartearen bizitzako beste alderdi batzuk alderatzen dituen ikerketa oraindik hastapenetan dago. J. Linz-ek egin zuen lehen saioa frankismo berantiarren garaian, 1941eko Dekretuaren aplikazioak elkarkidetasuna bultzatu baino gehiago murriztu egiten zuenean¹².

Prieto Lacaci-k jarraitu zuen ikerketa haren lortzea 90ko hamarkadara arte; harrezkero, ez da beste inolako informaziorik jaso. Azken

Espainiako elkarkidetzaren ikuspegi panoramikoak, nahitaez, bi informazio maila horiek jaso behar ditu, hots, elkarkidetasunak Espainiako gizartean duen indarrari buruzkoa eta elkarkidetzaren horrek gizartean duen legitimitatea

11. Kaltenbach, P. (1995) *Associations lucratives sans but*. Denoël, Paris.

12. Linz J. (1971) “La Realidad Asociativa de los Españoles” en VV.AA. *Sociología Española de los Setenta*, Madrid: CECA.

ikerlari horrek Barne Ministerioaren erregistroetan¹³ jasotako informazioan oinarriturik egin zuen bere lana, eta bere lanean dioskunez, “1965. eta 1990. urteen bitartean boluntarioen 150.000 elkarte baino gehiago eratu ziren, eta horien %85 irabazi asmorik gabekoak ziren”. Zoritxarrez, boluntarioen beste elkarte batzuei buruzko daturik ez dago, adibidez, aisialdi eta kulturarako sortu zirenak, edo elkarte profesionalak, herritarrek eratu zituztenak edota ongintzarako antolatu zirenak¹⁴.

Espainiako hirugarren sektorearen kuantifikazioari buruzko bibliografia oraindik nahiko urria da, nahiz eta azken hamabost urteetan nahiko modu nabarmenean areagotu. Gai horri dagokionez, aipagarriak dira honako adituen lanak: Tomas Alberich Alvarez Martín (1998), Ariño eta beste batzuk (1998-2001), Barea eta Monzón (1992-2001), Cabra de Luna (1998), Carpio (1999), Casado (1992-1999), Cortés, Henán eta López (1997) Documentación Social (1996), Tomillo Fundazioko Martínez eta González (2000), Giner eta Sarasa (1997), Rodríguez Cabreo eta Julia Monserrat (1996, 2000), Pérez Díaz (1987), Ruiz Olabuenaga (1996-2000), Sajardo (1998), Salinas (2001) eta J.Subirats (1999).

Agian, ez litzateke asko esatea izango, esango bagenu Espainiako bibliografian ez dagoela oraindik azterlan bat irabazi asmorik gabeko sektoreari buruzko ezagupena biltzen duena, ez behintzat edozein azterlani gutxiengo berme bat ematen dioten lau baldintza metodologiko hauetan oinarrituz egindakorik:

- a) Sektore osoa barnebiltzen duen definizioa eman, eta gainera hori arlo guztira zabaltzea daitekeena izatea, alde batetik instituzioengandik zehaztasunez bereizteko eta, bestetik, nazioartean alderatu ahal izateko.
- b) Errolda osoa egiten lagunduko duten estatistika-iturrien bilduma zorrotza egitea¹⁵.
- c) Informazioaren hutsuneak kalkulatzeko eta bateratzeko metodologia bat, hain zuzen ere kalkuluen eduki analitikoaren balioz-kotasuna bermatuko duena.
- d) Denborazko erreferentzia bakarra¹⁶.

13. Prieto Lacaci, R. (1993). “Asociaciones Voluntarias”, en Salustiano del Campo (Dir.), Tendencia Sociales en España (1960-1990) Bilbao: BBV Fundazioa BBV, 1. liburukia..

14. Prieto Lacaci, R. (1993). Aipatutako lana.

15. Ia-ia ulertezina dirudi Kontu Nazionalen sistemak inolako ahaleginik ez egitea finantza-baldintza hau duten erakundeak bere kontabilitean bereizteko. Oraintsu baino ez dira hasi agiri ofizialetan Irabazi Asmorik gabeko Erakunde Pribatuak (IPSFL) izenpean biltzen diren erakundeak estatistikatik bereizten.

16. Afiliazio maila elkarte-kopuruen arabera edo elkarkidetasun-erakunderen batean sartuta dauden pertsonen arabera neurtzen da, baina ez du informazio gehiegirik ematen, eta lan hau egiterakoan, gainera, ezagutzen ez den datua. Laurogeiko hamarkada baino lehen egingako inkesta bat bakarra baino ez da ezagutzen. Hori 1973an egin zen eta elkarteetan zego-

Agian, ez litzateke asko esatea izango, esango bagenu Espainiako bibliografian ez dagoela oraindik azterlan bat, gutxienez, irabazi asmorik gabeko sektoreari buruzko ezagupenari bermea emanaz, eskakizun metodologikoak biltzen duena

Lester Salomonek nazioartean egindako ikerlanak guztira 22 herrialde hartzen ditu bere baitan, horien artean da Espainia ere. Lan horrek hirugarren sektoreari buruzko ikuspegi zabal bat eman nahi du, aurreko paragrafoetan aipatu ditugun lau baldintza metodologiko horietan oinarriturik.

Azterlan honetan 22 herrialde izan dira kontuan, eta horiek guztiak honela taldekatu dira lanaren banaketarako:

- Bederatzi herrialde Mendebaldeko Europakoak: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Herbehereak eta Erresuma Batua.
- Lau herrialde Erdialdeko eta Ekialdeko Europakoak: Eslovakia, Hungaria, Txekiar Errepublika eta Errumania
- Lau herrialde garapen handikoak: Australia, Estatu Batuak, Israel eta Japonia.
- Bost herrialde Amerika latindarrekoak: Argentina, Brasil, Kolonia, Mexiko eta Peru

Lan horren arabera, Espainiako elkarkidetasunaren egiturak hone-lako parametroak ditu funtsean. Parametro horiek aldi berean elkarkidetasunaren garrantzia adierazten dute¹⁷.

Guztira 253.507 irabazi asmorik gabeko erakunde daude, 26 milioi inguru kuota, ia 11 milioi inguru bazkide, gutxi gorabehera milioi bat inguru boluntario ari dira astean lau orduetik gorako dedikazioz sektore honen barruko jardueretan, 475.000tik gora enplegu ordaindu betetzen dira lanaldi osokoak, eta horrek guztiak BPGaren %4ra iristen diren gastu operatiboak eragiten ditu.

en partaidetzari buruzko informazio ematen du. 80ko hamarkadan jada CISek egindako inkesta batean afiliazioa %23,3ko zela adierazten da; 1989an Europako Komunitateak egindako beste inkesta batean, ordea, esaten da Espainiak Komunitate osoko herrialdeetan elkarkidetasun-tasarik apalena duela, %31, hau da, azkena Portugal %24rekin, azkenurrena Grezia %25arekin eta Espainia azkenurrenaren urrena dela. 90ko hamarkadan, Informe Foessa delako txostenean espainiar adinduen afiliazio maila ematen da Foessa Fundazioak egindako ikerketaren arabera kalkulaturik. Foessak dioenez, indize hori %40,4 inguru dabil.

17. Lau hau, zehazgabeziak alde batera utziz, Espainian egin den azterlan bakarra da edukia- ren osotasunari buruz aipatutako baldintzetan egin dena; azterlanak aldi berean nazioarte mailan konparazioak egiteko beta ematen du. Bestalde, sektoreak gizarte espainiarrean erakusten duen panoramika ikusteko aukera ematen du. Hala ere, era honetako erakundeen tipologiari buruz Hopkins taldeak proposatutako eredu-tipologikoetako elkarteetan parte hartzen duten espainolei buruzko daturik edo ikerketarik ez da ezagutzen. Hopkins-en lanaren atzetik etorri dira beste lan batzuk, baina horiek analisia "Gizarte-Ekimen"era mugatzen dute oro har sektore osora bideratu beharrean. Adibidez, Tomillo Fundazioak egindakoa (1998), Foessa Fundazioak egindakoa (Gr. Rodríguez Cabrero, 2003) eta MASEk egindakoa; azken lan hori V. Pérez Díazek koordinatu du Espainiarako, Pau Vidalek Kataluniarako egindakoa eta Ruiz Olabuena-gak Euskal Autonomia Erkidegorako egindakoa (2003).

Guztira 253.507 irabazi asmorik gabeko erakunde daude, 26 milioi inguru kuota, ia 11 milioi inguru bazkide, gutxi gorabehera milioi bat inguru boluntario ari dira astean lau orduetik gorako dedikazioz sektore honen barruko jardueretan, 475.000tik gora enplegu ordaindu betetzen dira lanaldi osokoak, eta horrek guztiak BPGaren %4ra iristen diren gastu operatiboak eragiten ditu

2.2. ESPAINIAKO IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN TAMAINA ETA EGITURA

Erakundeak

Aurreko lerroetan eskaini dugun definizio operatiboarekin bat, irabazi asmorik gabeko sektorea gehienbat zortzi motatako antolamenduz eratutako multzoak osatzen du. Zortzi motatako antolamendu horietan oinarriturik guztira 253.507 erakunde osatu dira gutxi gorabehera. Erakundeen bolumenaren eta pisuaren arabera elkarteak dira gehienak (%69,0), eta jarduera motaren arabera sailkatuz, kultura, kirola eta aisialdia dira gehienak (%58,2).

1. taula

ERAKUNDE-KOPURUA ETA MOTA

Mota	Kopura	%
Elkarteak	174.916	69,00
Fundazioak	5.698	2,25
Kooperatibak	7.822	3,09
Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak	400	0,16
Ikastegiak	6.392	2,52
Kirol-klubak	58.085	22,91
Gizarte-ekimeneko aurrezki kutxak	50	0,02
Osasun-zentroak	144	0,06
GUZTIRA	253.507	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Berak egindakoa

2. taula

ERAKUNDEAK. BANAKETA ICNPO¹⁸ JARDUERA-EREMUEN ARABERA

ICNPO jarduera-eremuak	Kopura	%
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	147.553	58,20
Hezkuntza eta ikerkuntza	35.006	13,81
Osasuna	2.750	1,08
Gizarte-zerbitzuak	7.922	3,12
Ingurumena	5.518	2,18
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	27.424	10,82
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	15.779	6,22
Bitartekari filantropikoak	90	0,04
Nazioarteko jarduerak	530	0,21
Elkarte profesionalak	10.535	4,16
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	400	0,16
GUZTIRA	253.507	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

18. ICNPO International Clasification of NonProfit Organizations. Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Nazioarteko Sailkapena

Irabazi asmorik gabeko sektorea gehienbat zortzi motatako antolamenduz eratutako multzoak osatzen du. Zortzi motatako antolamendu horietan oinarriturik guztira 253.507 erakunde osatu dira gutxi gorabehera

Multzo hori bera erakunde bakoitzak burutzen duen jarduera nagusiaren arabera banakatzen badugu, garbi ikusiko dugu erakunde horietako bakoitzak gizartean duen presentziaren heterogeneotasuna, hala nola bakoitzak jarduten duen eremuen aniztasuna. Lan honetarako egin den kategorizatzea John Hopkins Unibertsitatek emandako ereduaren arabera egin da. (Ikus 2. taula).

Giza baliabideak

Espainiako irabazi asmorik gabeko sektoreak era askotako giza baliabideen multzoa du, eta hori osatzen duten aleak batez ere honela sailka daitezke: bazkideak, enpleguak eta boluntarioak. Bakoitzak bere estatusa dauka eta eginkizun bat betetzen du, beste eginkizun batzuetatik bereizita baina batera eramangarria.

Boluntariotza-elkarte batek zenbateko bazkidetza duen jakiteko bide erabil daitezke: bata, Espainiako irabazi asmorik gabeko berrehun eta berrogeita hamar milatik gorako elkarteek dauzkaten erregistro-kopuruak edo “kuota”k ikustea; bestea, elkarte horietan izena emandako lagunen kopurua begiratzea. Azterlan honetan egin diren kalkuluen arabera, kuota-kopurua 26 milioi pezeta ingurukoa da. Zenbateko horren bolumenak adierazten duenez, Espainiako boluntariotza-elkartei buruz egindako lanetatik ondorioztatzen dena zapuzten dute eta, ondorioz, azterlan horiek zalantzarik gabe onartu aurretik, zehaztapen batzuk egin behar direla adierazten.

Lehenbizi adierazi behar da zenbateko horrek kuota- edo txartel-kopurua erakusten duela, ez formalki izena emandakoen kopurua; izatez, formalki izena emandakoen kopurua askoz ere txikiagoa da, pertsona asko erakunde bat baino gehiagotan agertzen delako. Bigarren, kontuan izan behar da izena emandakoei eta katalogatuei buruzko daturik ez egotean, lagunen zundaketarako metodologia erabili behar izen dela, era honetako erakundeetan Espainian dagoen partaidetza kalkulatzeko.

Bazkideak edo sozioak. Elkarteetako sozio edo bazkideen kopuru horiek elkarte batekoa izategatik ordaintzen duten kuotaren arabera neur daitezke. Bazkide-kopurua guztira 26 milioi lagunekoa da, eta gutxienez sektore honetako erakunderen batekoa direnak guztira 11 milioi dira; pertsona eta kuoten arteko ratioa 0,423ekoa da, hau da, 18 urtetik gorako adina duten espainolen¹⁹ %40. Ondoko taulan jaso da kuoten banaketa eremu eta jardueren arabera.

Erakundeen bolumenaren eta pisuaren arabera elkarteak dira gehienak (%69,0), eta jarduera motaren arabera sailkaturik, kultura, kirola eta aisialdia dira gehienak (%58,2)

19. Pertsona bat elkarte bat baino gehiagotan izena emanda egotearen ondorioz, bazkide-kopurua baino kuota-kopuru handiagoa ateratzen da

3. taula

KUOTA-KOPURUA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA

ICNPO jarduera-eremuak	Kuotak	
	Kopurua	%
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	9.068.752	35,15
Hezkuntza eta ikerkuntza	2.307.115	8,94
Osasuna	1.160.852	4,50
Gizarte-zerbitzuak	2.227.750	8,63
Ingurumena	275.900	1,07
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	2.724.361	10,56
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	1.936.387	7,50
Bitartekari filantropikoak	2.000	0,01
Nazioarteko jarduerak	1.500.000	5,81
Elkarte profesionalak	2.600.600	10,08
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	2.000.000	7,75
GUZTIRA	25.803.717	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

Boluntarioak. Boluntarioak (erakunde bateko bazkideak izan edo ez) bazkideekin batera izango ditugu kontuan. Operatiboki bi definizio erabil daitezke boluntarioen kopurua jakiteko. Boluntarioak zentzu zabalean: hilean gutxienez ere irabazi asmorik gabeko erakunderen batean ordu bete lan egiten duen edozein pertsona. Boluntarioak zentzu hertsian: hilean 16 ordutik gorako dedikazioa duen edozein pertsona, hau da, astean lau bat ordu lan egiten duena era horretako erakundeetan. Bi kolektiboen banaketa ikus daiteke ondoko taulan laburbildurik eta sailkaturik (Ikus 4. taula).

Langileak. Azterlan honen xedeari begira interesa duen hirugarren kolektiboa dela esan dezakegu langileek osatzen dutena. Horiek oro har, boluntario eta bazkideekin gertatzen den bezala, ordainsari bat jasotzen dute erakundeetan egiten duten lanaren truk. Eskura dauzka-gun emaitzak konbinatuz egin dezakegun kalkuluen arabera, kolektibo honek ondorengo emaitzak erakusten ditu; guztira 548.366 lagunek lan egiten dute hirugarren sektoreko erakunde hauetan bai lanaldi osoz bai lanaldi partzialez. Hortaz, esan daiteke 475.179 lagunek lan egiten dutela batez beste lanaldi osoz era honetako erakundeetan.

Zenbateko horri zentzu hertsian boluntariotzat jotzen direnen zenbatekoa (1.026.482 lagun) gehitu behar zaio. Hala, horien dedikazioa enplegu-kopuru bihurtuz gero, edota horren baliokidea litzatekeen lanaldi oso, guztira 253.599 enplegu edo lanaldi ateratzen dira.

Espainiako irabazi asmorik gabeko sektoreak era askotako giza baliabideen multzoa biltzen du, eta multzo hori osatzen duten aleak batez ere honela sailka daitezke: bazkideak, enplegatuek eta boluntarioak

4. taula

BOLUNTARIOEN BANAKETA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA

ICNPO jarduera-eremuak	Boluntarioak (zentzu zabalean)		Boluntarioak (zentzu hertsian)	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	717.767	24,49	224.660	21,89
Hezkuntza eta ikerkuntza	547.867	18,69	126.557	12,33
Osasuna	137.044	4,68	74.963	7,30
Gizarte-zerbitzuak	496.793	16,95	295.095	28,75
Ingurumena	166.237	5,67	82.620	8,05
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	174.031	5,94	55.864	5,44
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	319.041	10,88	109.112	10,63
Bitartekari filantropikoak	7.937	0,27	1.000	0,10
Nazioarteko jarduerak	298.121	10,17	39.352	3,83
Elkarte profesionalak	66.381	2,26	17.259	1,68
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	0	0,00	0	0,00
GUZTIRA	2.931.219	100,00	1.026.482	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

5. taula

LANEAN ARI DIRENAK ETA ZENTZU HERTSIAN BOLUNTARIOAK DIRENAK (kopuruak eta ehuneko bertikalak)

ICNPO jarduera-eremua	Ordaindutako enpleguak		Boluntarioak zentzu hertsian		GUZTIRA	
	Kopurua	% b.	Kopurua	% b.	Kopurua	% b.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	69.820	12,73	224.660	21,89	294.480	18,70
Hezkuntza eta ikerkuntza	129.968	23,70	126.557	12,33	256.525	16,29
Osasuna	67.442	12,30	74.963	7,30	142.405	9,04
Gizarte-zerbitzuak	180.028	32,83	295.095	28,75	475.123	30,17
Ingurumena	1.816	0,33	82.620	8,05	84.436	5,36
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	57.208	10,43	55.864	5,44	113.072	7,18
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	18.820	3,43	109.112	10,63	127.932	8,12
Bitartekari filantropikoak	588	0,11	1.000	0,10	1.588	0,10
Nazioarteko jarduerak	9.670	1,76	39.352	3,83	49.022	3,11
Elkarte profesionalak	11.505	2,10	17.259	1,68	28.764	1,83
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	1.500	0,27	0	0,00	1.500	0,10
GUZTIRA	548.366	100,00	1.026.482	100,00	1.574.848	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

6. taula

LANEAN ARI DIRENAK ETA ZENTZU HERTSIAN BOLUNTARIOAK DIRENAK (Kopuruak eta ehuneko horizontalak)

ICNPO jarduera-eremuak	Ordaindutako enpleguak		Boluntarioak zentzu hertsiano		GUZTIRA	
	Kopurua	% h.	Kopurua	% h.	Kopurua	% h.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	69.820	23,7	224.660	76,3	294.480	100,0
Hezkuntza eta ikerkuntza	129.968	50,7	126.557	49,3	256.525	100,0
Osasuna	67.442	47,4	74.963	52,6	142.405	100,0
Gizarte-zerbitzuak	180.028	37,9	295.095	62,1	475.123	100,0
Ingurumena	1.816	2,2	82.620	97,8	84.436	100,0
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	57.208	50,6	55.864	49,4	113.072	100,0
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	18.820	14,7	109.112	85,3	127.932	100,0
Bitartekari filantropikoak	588	37,0	1.000	63,0	1.588	100,0
Nazioarteko jarduerak	9.670	19,7	39.352	80,3	49.022	100,0
Elkarte profesionalak	11.505	40,0	17.259	60,0	28.764	100,0
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	1.500	100,0	0,0	0,0	1.500	100,0
GUZTIRA	548.366	34,8	1.026.482	65,2	1.574.848	100,0

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

7. taula

LANALDI OSOKO ENPLEGU BALIOKIDEAK (Kopuruak eta ehuneko bertikalak)

ICNPO jarduera-eremuak	OEB*		BEB*		GEB*	
	Kopurua	% b.	Kopurua	% b.	Kopurua	% b.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	55.856	11,75	55.151	21,75	111.007	15,23
Hezkuntza eta ikerkuntza	119.218	25,09	31.262	12,33	150.479	20,65
Osasuna	58.000	12,21	18.662	7,36	76.562	10,51
Gizarte-zerbitzuak	161.224	33,93	73.016	28,79	224.239	30,77
Ingurumena	1.652	0,35	20.408	8,05	22.061	3,03
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	53.298	11,22	13.842	5,46	67.141	9,21
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	15.997	3,37	27.031	10,66	43.028	5,90
Bitartekari filantropikoak	500	0,11	247	0,10	747	0,10
Nazioarteko jarduerak	9.380	1,97	9.794	3,86	19.174	2,63
Elkarte profesionalak	8.629	1,82	4.285	1,69	12.914	1,77
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	1.425	0,30	0,0	0,00	1.425	0,20
GUZTIRA	475.179	100,00	253.599	100,00	728.778	100,00

*OEB: Ordaindutako Enplegu Baliokidea *BEB: Boluntarioen Enplegu Baliokidea *GEB: Guztira Enplegu Baliokidea

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

8. taula

LANALDI OSOKO ENPLEGU BALIOKIDEAK (Kopuruak eta ehuneko horizontalak)


ICNPO jarduera-eremuak	OEB*		BEB*		GEB*	
	Kopurua	% b.	Kopurua	% h.	Kopurua	% h.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	55.856	50,3	55.151	49,7	111.007	100,0
Hezkuntza eta ikerkuntza	119.218	79,2	31.262	20,8	150.479	100,0
Osasuna	58.000	75,8	18.662	24,4	76.562	100,1
Gizarte-zerbitzuak	161.224	71,9	73.016	32,6	224.239	104,5
Ingurumena	1.652	7,5	20.408	92,5	22.061	100,0
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	53.298	79,4	13.842	20,6	67.141	100,0
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	15.997	37,2	27.031	62,8	43.028	100,0
Bitartekari filantropikoak	500	66,9	247	33,1	747	100,0
Nazioarteko jarduerak	9.380	48,9	9.794	51,1	19.174	100,0
Elkarte profesionalak	8.629	66,8	4.285	33,2	12.914	100,0
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	1.425	100,0	0	0,0	1.425	100,0
GUZTIRA	475.179	65,2	253.599	34,8	728.778	100,0

*OEB: Ordaindutako Enplegu Baliokidea *BEB: Boluntarioen Enplegu Baliokidea *GEB: Guztira Enplegu Baliokidea

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

Parametro horiek guztiak Espainiako irabazi asmorik gabeko deskribatzeko eredu bakar batean jokatuta daitezke. Ondoko grafikoan ikus daitezke eredu horren ezaugarri nagusienak²⁰

2. grafikoa

IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA ZIFRETAN LABURBILDUZ

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

20. BBVA Fundazioko ikerlari-talde bera ari da gaur egun datu horiek eguneratzen, baina inolako zalantzarik gabe horiek egungo egoera erakusten dute, hurbiltasun handiz gainera. Horrez gain, datuetan ikus daitekeenez, hirugarren sektorean sortu zenetik gertatu diren aldaketak ez dira uste bezain handiak, ez behintzat ematen duten ikuspegi orokorra desitxuratzeko beste.

2.3. HIRUGARREN SEKTOREAREN GARRANTZI EKONOMIKOA

Enplegua kalkulatzeko egin diren estimazioek aukera eman dute Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastu guztiari buruzko gutxi gorabeherako ebaluazio bat egitera ausartzeko eta hori 4,1 bilioi pezetakoa dela esateko, hau da, BPGaren %5,8, boluntarioen ordaindu gabeko lanari egotzitako balioa barne.

9. taula

GASTUA GUZTIRA ETA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA²¹

ICNPO jarduera-eremuak	Gastua guztira	
	Pezetak milioietan	%
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	769.513	18,79
Hezkuntza eta ikerkuntza	761.918	18,60
Osasuna	492.071	12,02
Gizarte-zerbitzuak	722.799	17,65
Ingurumena	85.131	2,08
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	514.104	12,55
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	233.798	5,71
Bitartekari filantropikoak	25.867	0,63
Nazioarteko jarduerak	78.986	1,93
Elkarte profesionalak	61.059	1,49
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	350.000	8,55
GUZTIRA	4.095.236	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina.

Irabazi asmorik gabeko erakunde baten operatibotasuna, beste edozein motatako erakundearena bezala, hiru elementutan oinarritzen da finantzaketari begira: kapital-gastuak, pertsonal-gastuak eta jarduteko behar diren baliabideak erosteko egiten diren gainontzeko gastu arruntak. Eskura informazio ugari daukagun beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala, sektore honen ezaugarri nagusia da, jarduera berezietan izan ezik, lana faktorea oso trinkoa dela eta oso txikia kapitala. Ondoren ikus daiteke gastu horren banaketa ICNPO sailkapenaren arabera.

21. Lan boluntarioari egotzitako kostua barne.

Enplegua kalkulatzeko egin diren estimazioek aukera eman dute Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastu guztiari buruzko gutxi gorabeherako ebaluazio bat egitera ausartzeko eta hori 4,1 bilioi pezetakoa dela esateko, hau da, BPGaren %5,8

10. taula

GASTUAREN EGITURA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA (Pezetak milioietan eta ehuneko bertikala)

ICNPO jarduera-eremuak	Gastua guztira		Gastu operatiboak		Kapital gastuak	
	Pezetak milioietan	% b.	Pezetak milioietan	% b.	Pezetak milioietan	% b.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	769.513	18,79	682.792	18,46	86.721	21,86
Hezkuntza eta ikerkuntza	761.918	18,60	692.803	18,73	69.115	17,42
Osasuna	492.071	12,02	435.175	11,77	56.896	14,34
Gizarte-zerbitzuak	722.799	17,65	699.327	18,91	23.472	5,92
Ingurumena	85.131	2,08	83.700	2,26	1.431	0,36
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	514.104	12,55	444.193	12,01	69.911	17,62
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	233.798	5,71	212.798	5,75	21.000	5,29
Bitartekari filantropikoak	25.867	0,63	22.107	0,60	3.750	0,95
Nazioarteko jarduerak	78.986	1,93	74.036	2,00	4.950	1,25
Elkarte profesionalak	61.059	1,49	54.131	1,46	6.928	1,75
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	350.000	8,55	297.500	8,04	52.500	13,24
GUZTIRA	4.095.236	100,00	3.698.562	100,00	396.674	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

11. taula

GASTUAREN EGITURA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA (Pezetak milioietan eta ehuneko horizontala)

ICNPO jarduera-eremuak	Gastua guztira		Gastu operatiboak		Kapital gastuak	
	Pezetak milioietan	% h.	Pezetak milioietan	% h.	Pezetak milioietan.	% h.
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	769.513	100,0	682.792	88,73	86.721	11,27
Hezkuntza eta ikerkuntza	761.918	100,0	692.803	90,93	69.115	9,07
Osasuna	492.071	100,0	435.175	88,44	56.896	11,56
Gizarte-zerbitzuak	722.799	100,0	699.327	96,75	23.472	3,25
Ingurumena	85.131	100,0	83.700	98,32	1.431	1,68
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	514.104	100,0	444.193	86,40	69.911	13,60
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	233.798	100,0	212.798	91,02	21.000	8,98
Bitartekari filantropikoak	25.867	100,0	22.107	85,46	3.750	14,50
Nazioarteko jarduerak	78.986	100,0	74.036	93,73	4.950	6,27
Elkarte profesionalak	61.059	100,0	54.131	88,65	6.928	11,35
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	350.000	100,0	297.500	85,00	52.500	15,00
GUZTIRA	4.095.236	100,00	3.698.562	90,31	396.674	9,69

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

12. taula

GASTUAREN EGITURA ICNPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA (Pezetak milioietan eta ehuneko bertikala)

ICNPO jarduera-eremuak	GASTU OPERATIBOAK							
	Gastua guztira		Pertsonal gastuak				Bestelako gastu arruntak	
			Soldatapeko pertsonalaren kostua		Boluntarioen lanari egotzitako gastua			
	Pezetak milioietan	%b.	Pezetak milioietan	% b.	Pezetak milioietan	% b.	Pezetak milioietan	%b .
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	682.792	18,46	193.541	12,89	191.375	21,75	297.876	22,61
Hezkuntza eta ikerkuntza	692.803	18,73	413.593	27,55	108.478	12,33	170.732	12,96
Osasuna	435.175	11,77	200.970	13,39	64.411	7,32	169.794	12,89
Gizarte-zerbitzuak	699.327	18,91	378.059	25,19	253.364	28,79	67.904	5,15
Ingurumena	83.700	2,26	5.726	0,38	70.817	8,05	7.157	0,54
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	444.193	12,01	184.679	12,30	48.033	5,46	211.481	16,05
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	212.798	5,75	55.430	3,69	93.798	10,66	63.570	4,83
Bitartekari filantropikoak	22.107	0,60	1.733	0,12	857	0,10	19.517	1,48
Nazioarteko jarduerak	74.036	2,00	32.501	2,17	33.986	3,86	7.549	0,57
Elkarte profesionalak	54.131	1,46	29.899	1,99	14.869	1,69	9.363	0,71
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	297.500	8,04	4.938	0,33	0	0,00	292.562	22,21
GUZTIRA	3.698.562	100,00	1.501.068	100,00	879.988	100,00	1.317.506	100,00

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

13. taula

GASTUAREN EGITURA ETA BANAKETA JARDUERA-EREMUEN ARABERA (Pezetak milioietan eta ehuneko horizontala)

ICNPO jarduera-eremuak	GASTU OPERATIBOAK							
	Gastua guztira		Pertsonal gastuak				Bestelako gastu arruntak	
			Soldatapeko pertsonalaren kostua		Boluntarioen lanari egotzitako gastua			
	Pezetak milioietan	% h.	Pezetak milioietan	% h.	Pezetak milioietan	% h.	Pezetak milioietan	%h .
Kultura, kirola eta aisialdiko jarduerak	682.792	100,0	193.541	28,3	191.375	28,0	297.876	43,6
Hezkuntza eta ikerkuntza	692.803	100,0	413.593	59,7	108.478	15,7	170.732	24,6
Osasuna	435.175	100,0	200.970	46,2	64.411	14,8	169.794	39,0
Gizarte-zerbitzuak	699.327	100,0	378.059	54,1	253.364	36,2	67.904	9,7
Ingurumena	83.700	100,0	5.726	6,8	70.817	84,6	7.157	8,6
Garapen komunitarioa eta etxebizitza	444.193	100,0	184.679	41,6	48.033	10,8	211.481	47,6
Giza eskubideak eta lege-aholkularitza	212.798	100,0	55.430	26,0	93.798	44,1	63.570	29,9
Bitartekari filantropikoak	22.107	100,0	1.733	7,8	857	3,9	19.517	88,3
Nazioarteko jarduerak	74.036	100,0	32.501	43,9	33.986	45,9	7.549	10,2
Elkarte profesionalak	54.131	100,0	29.899	55,2	14.869	27,5	9.363	17,3
Bestelakoak (Gizarte-aurrezaintzako aseguru-etxeak)	297.500	100,0	4.938	1,7	0	0,0	292.562	98,3
TOTAL	3.698.562	100,0	1.501.068	40,6	879.988	23,8	1.317.506	35,6

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

Espainiako Barne Produktu Gordina (BPG) 1995ean 69,8 bilioi pezetakoa zen. Eta bertako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastu arrunta, boluntarioen lanari egotzitako gastua barne, 3,7 bilioi pezeta ingurukoa zen, aurreko tauletan ikus daitekeenez. Hortaz, esan dezakegu zenbateko hori Barne Produktu Gordinaren %5,2 dela gutxi gorabehera.

Zenbateko hori gutxitu daiteke ordaindu gabeko boluntarioen lanari egotzitako gastua kalkulutik kanpo utziz gero; horrela eginez lortuko genukeen zenbatekoa zorrotzagoa izango litzateke: kasu horretan gastu operatiboak 2,8 bilioi pezetakoak izango lirateke, hau da, BPGaren %4,0. Nolanahi ere, zenbateko hori ere ez makala, batez ere kontuan izaten badugu instituzioek sektore honi egiten dioten bazterketa kontabilitate ofizialeko sailkapen-erregistroetan. (Ikus 12. eta 13. taulak).

Espainiako Barne Produktu Gordina (BPG) 1995ean 69,8 bilioi pezetakoa zen. Eta bertako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastu arrunta, boluntarioen lanari egotzitako gastua barne, 3,7 bilioi pezeta ingurukoa zen, aurreko tauletan ikus daitekeenez. Hortaz, esan dezakegu zenbateko hori Barne Produktu Gordinaren %5,2 dela gutxi gorabehera.

Zenbateko hori gutxitu daiteke ordaindu gabeko boluntarioen lanari egotzitako gastua kalkulutik kanpo utziz gero; horrela eginez lortuko genukeen zenbatekoa zorrotzagoa izango litzateke: kasu horretan gastu operatiboak 2,8 bilioi pezetakoak izango lirateke, hau da, BPGaren %4,0. Nolanahi ere, zenbateko hori ere ez makala, batez ere kontuan izaten badugu instituzioek sektore honi egiten dioten bazterketa kontabilitate ofizialeko sailkapen-erregistroetan.

14. taula

LABURPENA

Irabazi asmorik gabeko sektorearen gastuak	Gastua guztira Pta. ak milioietan	Gastu arrunta Pta. ak milioietan
Boluntarioen lanari atxikitako gastua barne	4.095.236 BPGaren %5,8	3.698.561 %5,2 PIB
Boluntarioen lanari atxikitako gastua sartu gabe	3.215.247 %4,6 PIB	2.818.574 %4,0 PIB

Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

2.4. HIRUGARREN SEKTOREAREN SARRERAK


Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastua guztira 4.095.235 milioi pezetakoa dela esaten badugu, berehala sortzen

Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastu arrunta, boluntarioen lanari egotzitako gastua barne, 3,7 bilioi pezeta ingurukoa da, hau da, Barne Produktu Gordinaren %5,2 gorabehera

zaigu honako galdera, nondik datorkio dirua irabazi asmorik gabeko sektore honi hain gastu handiari erantzuteko? Bada, hiru dira, oro har, sektore honen diru-iturriak: fondoak, batez ere sektore publikotik jasotzen dituenak; dohaintzak, sektore pribatutik jasotzen dituenak (jendeak, enpresek edota irabazi asmorik gabeko sektorean ari diren beste erakunde batzuek emandakoak); eta bazkideen kuotak eta ondasun salmentaz eta zerbitzuak emanez lortutako sarrerak, hots, sektorearen berezko jardunaren bidezkoak. Guzti horri buruz egindako kalkulak jasotzen dira hurrengo grafikoan.

3. grafikoa

HIRUGARREN SEKTOREAREN SARRERAK



Iturria: Ruiz Olabuenaga, 1998. Bertan egina

Bada, hiru dira, oro har, sektore honen diru-iturriak: fondoak, batez ere sektore publikotik jasotzen dituenak; dohaintzak, sektore pribatutik jasotzen dituenak eta bazkideen kuotak eta ondasun salmentaz eta zerbitzuak emanez lortutako sarrerak, hots, sektorearen berezko jardunaren bidezkoak

3. Globalizazioaren inguruabarrak

3. Globalizazioaren inguruabarrak

3.1. HIRUGARREN SEKTOREA-IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA NAZIOARTEAN

Irabazi asmorik gabeko mugimenduaren eta gobernuz kanpoko erakundeen aurrerakuntza garrantzitsua ez erabat ez guztiz ez zela Estatu Batuetako gizartearena susmatze hutsak Baltimoreko John Hopkins Unibertsitateko Zientzia Politikako Institutua, beste holako ikerkuntza-zentro asko bezala, gaia aztertzeraz bultzatu zuen, eta horretarako beste gizarte askotan gertatzen zenarekin konparatzen hastera. Tocquevillek amerikar elkarkidetasunaren berezitasunari buruz egin zuen tesiak berrikuspen akademikoa eskatzen zuen, irabazi asmorik gabeko erakundeen eta gobernuz kanpoko mugimenduen hazkunde ikaragarria benetan “bizitza amerikarraren estilo”a zen (berariazkoa ez bazen ere, hegemonikoa bai bederen) jakiteko, edo, aitzitik, gizarte industrial eta gizarte moderno postindustrialean komunak ziren indarren emaitza zen edo ez ikusteko.

Geroz eta nabarmenagoa zen ikerlarien artean bazela sortzen ari zen indar berri bat geroz eta gehiago ziren erakundeen sorkuntza bultzatzen zuena eta geroz eta gehiago ziren erakunde horiek, gainera, egiturari dagokionez, geroz eta indartsuagoak zirela geroz eta jende gehiago gehitzen zelako elkarkidetasun-mugimendu horietara. Horretaz guztiaz konbentziturik, ikerlari eta adituek beren lanerako gaitzat hartu zuten nazio eta estatu modernoetan sortzen eta itxuratzen ari zen mugimendu edo sektore berri hau.

Garbi eta argi zegoen herri-administrazioak eta merkatuko ekonomiak, gizarteko zutabe instituzionalak direnez, berehala ohartu zirela hirugarren sektore baten agerpenaz, eta sektore hori ez zela gobernuarena bakarrik eta ez zela ezta ere oso-osorik irabazi asmotakoa; berebat, ikusten zuten sektoreak bazuela zerikusirik gizarte-ekonomiarekin, filantropiarekin, partaidetza demokratikoarekin eta gizarte zibilarekin, eta hori, gizarte hori, geroz eta presentzia eta protagonismo handiagoa ari zela hartzen.

Elkarkidetasunaren fenomeno honetan arakatzen badugu, azaletik bada ere, laster ikusiko ditugu, inolako zalantzarik gabe gainera, bi gauza: batetik, fenomeno horrek gizarte guztietan egiten dituen agerpenek paralelismo eta antzekotasuna dutela eta, bestetik, fenomenoaren beraren egituraketa eta eraginak guztiz bestelakoak eta bereziak direla leku eta erakunde bakoitzean.

Elkarkidetasunaren fenomeno honetan arakatzen badugu, azaletik bada ere, laster ikusiko ditugu, inolako zalantzarik gabe gainera, bi gauza: batetik, fenomeno horrek gizarte guztietan egiten dituen agerpenek paralelismo eta antzekotasuna dutela eta, bestetik, fenomenoaren beraren egituraketa eta eraginak guztiz bestelakoak eta bereziak direla leku eta erakunde bakoitzean

Hala bada, ustez sortzen eta sortzen ari zen hirugarren sektorearen egitura eta tamainari buruzko ikerketa herrialde-kopuru txiki batean aplikatzeko egin zen lehen saiakera baten ondoren, nazioarte mailako lehen ikerkuntza burutu zen. Ikerketa hori batez ere nazio-estatu modernoetako erakunde-kopururik zabalenean oinarritutako egiturak erkatzera begira antolatu zen. Hala, hirugarren sektoreari buruzko ikerketari hasierako hipotesi nagusiko²² kontrastea egiteko aukera emango zuten baldintzak bilatuz ekin zitzaion.

Nazioarteko 22 herrialdeetako egiturak elkarrekin erkatzeak fenomeno honen ikerketa sakonagoan aplikarri izan daitezkeen zenbait kontsidero berezi iradokitzen ditu, erkatze horrekin lortutako emaitzak ikusi ondoren. Azpimarratzekoa da horien artean irabazi asmorik gabeko sektorearen benetako izaera atzemateko aztertu behar diren dimentsioen abanikoa irekitzeko premia, sektore hori mundu modernoaren globalizazio-prozesuak baldintzatzen (berak ere, aldi berean, baldintzatzaile bezala jokatzeko du) badu ere. Espainiako irabazi asmorik gabeko erakundeak, gainontzeko herrialdeetako beste batzuek bezala, boterea eta eragiteko gaitasuna ari dira eskuratzen, eta horiek, jakina, ez dira mugatzen herrialdean herrialdeko mugen barrura, Europara eta mundu zabalera ere hedatzen ari baitira.

Gizarte Zibil Globalak (GCSs) eta Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeak (INGOs) laurogeita hamarrek hamarkadan mundu osoan zehar zabaldu diren bi adierazpen dira. Biak geroz eta gehiago diren irabazi asmorik gabeko eta gobernu kanpoko erakundeen erreferentzia dira. Horien operazio-eszenategia eta kudeaketa-erantzukizuna nazio-estatuen eremu administratibo eta politikotik at eta kanpo dago. Erakunde horien erreferentzia-markoa ez da estatu bat ez eta estatu batzuk, baizik estatuez gain munduan zehar zabaltzen den elkarbizitza eta elkarren arteko hartu-emana, eta gainera erakunde horiek sarri askotan estatuen kontrol- eta eragin-gaitasunetik kanpo daude.

22. Kapitulu honetan zehar ikusiko ditugun taulak ikerlan honetarako egindako lanetan oinarritzen dira, besterik esaten ez den bitartean. Horien emaitzak BBV Fundazioak (1998) argitaratu zituen. Lan horretan parte hartu zuten ikerlari-talde osoak definizio bakar bat bilatzeko obligazioa bereganatu zuen sektorearen edukiari dagokionez, hala nola data bereko informazioa emateari dagokionez eta datuen tipologia eta kategorizazio bera erabiltzeari dagokionez. Hala jokatzearen ondorioz, lanetan bildutako informazio guztia estandarizatzeko aukera lortu zen eta, aldi berean, nazioarteko datuekin erkatu ahal izatekoa. Horretarako, 46 herrialde aukeratu ziren hasiera batez, eta azkenean, horietatik guztietatik 22 herrialde aukeratu ziren ikertzaile-taldea osatzeko. Honakoak dira ikerlanean parte hartu zuten 22 herrialdeak:

- Bederatzi, Mendebaldeko Europakoak: Alemania, Austria, Belgika, Espainia, Finlandia, Frantzia, Irlanda, Herbehereak eta Erresuma Batua.
- Lau, Europako Erdialde eta Ekialdekoak: Eslovakia, Hungaria, Txekiar Errepublika eta Errumania
- Lau, garapen handikoak: Australia, Estatu Batatuak, Israel eta Japonia
- Bost, Latinamerikakoak: Argentina, Brasil, Kolobbia, Mexiko eta Peru

Espainiako irabazi asmorik gabeko erakundeak, gainontzeko herrialdeetako beste batzuek bezala, boterea eta eragiteko gaitasuna ari dira eskuratzen, eta horiek, jakina, ez dira mugatzen beren herrialdeetara, Europara eta mundu zabalera ere hedatzen ari baitira

Aitzindari politiko eta finantzarioek “goitik behera” bultzatzen eta kontrolatzen duten globalizazioari kontrajarrita, mugimendu berri honek “behetik gorako” globalizazioa bultzatzen du. Erraz ikus daiteke, nola laurogeita hamarreko hamarkadan zehar nazioez haraindi sortutako mugimendu bat ari den sortzen, partaidetza sozial eta politikoaren indarrez. Herritar-talde eta gizarte-mugimendu horiek elkarrizketak, eztabaidak eta azterketak egiten ari dira, bai mugimenduaren barruko eragileekin bai nazioetako gobernu eta merkataritza-enpresa handien ordezkartzako eragile nagusienekin. Jakina, ez da lehenbiziko aldia finantza-interes bereko talde handiak eta horien ideologiako taldeek beren artean jarduten dutena estatuen oztopo administratiboez gaindi, baina esan daiteke, aldi berean, muga horiez gaindi eratzen ari den holako mugimenduak ez direla izan hain bistakoak eta zabalak.

Nazioarte mailan antolatutako mugimendu erlijiosoak (katolikoak zein islamikoak), espainiar eta britainiar inperioen asmo ekonomiko eta politikoak, EEBren nazioarteko erakundeak, Commonwealth, Gurutze Gorria, Ilargierdia, nazioarteko sindikatuak eta politika sozialistak eta liberalak, bada, mugimendu horiek guztiak duela mendeetatik daude munduan. Baina, inoiz ez dira orain sortu diren beste erakunde sortu, orain arteko erakundeetan inoiz ez da egon orain dauden beste lagunik zuzenean parte hartzen; eta erakunde horiek ez dute izan hain jarduera-eremu zabalik, ez jarduera moten aniztasunik

Are gehiago, Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeak (INGO), adibidez, GreenPeace, Amnesty International, Human Rights Watch, Bakea eta Hirugarren Mundua, geroz eta ospe handiagoa ari dira hartzen eta geroz eta eragin handiagoa dute, jada 1839. urtean Esklabutzaren kontrako Elkarrekin edota 1864. urtean Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak nazioarteko jardunerako erabili zuten ereduak erabiliz. Prozesu horrek 30 erakundetik gora zeuzkan ofizialki erregistraturik 1874an eta 1914an erakunde horiek 1.083 ziren; 1981ean ordea 9.789 erakunde zituen nazioartean zabalduz, eta 1991ean 17.826 ziren, 2001aren hasieran, hau da, hurrengo hamarkadan, 24.797ra iristeko²³.

Erakunde hauek izan duten ugaltzea bezain garrantzitsua da beren artean izan duten lotura-prozesua, hau da, eragin eta botere sozial bateratu bezala eratzeko egin duten bidea. Federazio eta konfederazioen kopurua, hala nola kongresu eta gailur korporatiboena, ziztu

Erakunde hauek izan duten ugaltzea bezain garrantzitsua da beren artean izan duten lotura-prozesua, hau da, eragin eta botere sozial bateratu bezala eratzeko egin duten bidea

23. Anheier, Global Civil Society 2002. Oxford.

bizian ari da gehitzen eta gehitzen. Hiri handiek instituzioen aterpe-
txearenak egiten dituzte, eta ondorioz horietako batzuk elkarkidetasun
globalaren ehunka erakundeen egoitza bihurtzen dira. Horrekin bate-
ra, era honetako erakundeen gailurretan milaka eta milaka ofizialki
erregistraturiko ordezkari biltzen dira, adibidez, Porto Alegreko Foro-
an (Brasil, 2002). Piantaren aburuz, gailur horietan batez beste nazio-
arteko 30 kongresu eratu dira urtean 2000-2001 biurtekoan. Erakun-
deak, bestalde, dimentsio global bat hartzen dute Amnesty Internatio-
nal-ek antolatutakoak²⁴ hartu zuen bezala.

Erakundeen arteko lotura globalen sistemaren bidez lortzen den
emaitza korporatiboak, alde batetik, erakunde erraldoiak sortzeko
bidea ematen du (horrek, jakina, askoz ere garbi eta argiago erakusten
du globalizazioaren jitea), eta bestetik, “lekuan lekuko gutxiengo” txi-
kien kexak eta asmoak “entzuteki global”etara eramateko aukera ema-
ten du eta, aldi berean, maila globaleko laguntza-eskariak berehalako
oihartzuna izateko parada eskaintzen du, etnien, gobernuen eta enpre-
sarien bitartekaritza edo eskuartzerik gabe.

Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeen (INGO) loraldi-pro-
zesu honek gizartearen globalizazioaren eskutik jasotzen du indarra,
baina aldi berean prozesu hori globalizazio mugimendu bera bidera-
tzeko eta mugimenduari indarra emateko baliabide garrantzitsua da.

Gobernu Kanpoko Erakundeek globalizatu egin dute globalizazio
“estatalizatzaile”aren kontrako gatazka bera, hala nola “merkatu neo-
liberal”ak ezarritako irizpide eta arautegiz baino gidatzen ez den glo-
balizazioa. Elkarkidetasun globalizatzaileak ez du arlo politikoan
(alderdi politikoen sistema), sozialean (Ongizate Estatua) edo ekono-
mikoan (konplexu industrialak) estatalizatuta dagoen elkarkidetasuna
bezain finkatu eta sendotua dagoen sistema instituzionalik. Badu,
ordea, malgutasun eta onargarritasun maila askoz ere handiagoa, eta
horrek gaitasuna ematen dio elkarkidetasun modu horri bat-batean
forma eta egitura berriak sortzeko eta horiekin garapen sozioekono-
mikoaren eskaera berriei modu eraginkorragoan erantzuteko. Ertzak
koordinatzeko egiturak indartu egiten dira koordinazio bertikalaren
kalterako, hori, askoz ere zentralizatuagoa izanik, zurrunagoa delako
eta aldaketak nekez onartzen dituelako.

Alabaina, Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeek, funtzio-
namendu korporatiboari dagokionez egituratzeko forma berriekin sis-
tematizatuta daudenak, alegia, zabaltzeko eta hazteko erritmo handia-
goak dauzkate. H. Anheier-ek eta Nuno Themudo-k diotenez, “*Geroz*

**Elkarkidetasun
globalizatzaileak ez du
arlo politikoan,
sozialean edo
ekonomikoan
estatalizatuta dagoen
elkarkidetasuna bezain
finkatu eta sendotutako
sistema instituzionalik.
Badu, ordea,
malgutasun eta
onargarritasun maila
askoz ere handiagoa,
eta horrek
elkarkidetasun modu
horri bat-bateko
erantzuna emateko
gaitasuna ekarri dio**

24. Anheier, ibid, 193. .

*eta gehiago dira sailkapen estandarretatik kanpo gelditzen diren erakundeak, hau da, oinarri konbentzionalik ez ohiko GKEen antzekotasun izpirik gordetzen ez duten antolakuntza-formak, GKEek dituzten ezaugarriak gordetzen ez dituztenak, alegia, edota batzuetan erabat desberdinak direnak*²⁵. Elkarkidetasun globalizatzailearen arrakasta hori, inolako zalantzarik gabe, bere inguru-minguruaren hedapen sistematikoak ematen dion aukera zabalean datza, eta oztopo eta eragozpen guztien gainetik hedatzen ari den inguru horretara egokitzeak aurrera jarraituko du, dudarik gabe, inguruaren hedapen hori ere oraindik ez delako iritsi bere azken mugetara. Guzti horrek agerian jartzen du erakunde mota hauen hazkunde gera ezina hala nola beren aniztasun estrukturala.

Globalizazio-prozesuak hedapen-aukerak eskaintzen dizkie erakundeek, hala nola beren egiturak ugaltzeko, eta aldi berean mugak jartzen ditu horiek garapen korporatiboa izan dezaten.

Elkarkidetasun globalizatzailearen hedapenak funtsean aukera berrien eskaintzan du oinarria, aukera berri horiek estatuen eskuartzedo erantzukizun-eremuetatik kanpo daudenean eta estatu anitzen gobernu-ardurapetik bazter daudenean. Horrekin guztiarekin bat, esan beharra dago hedapen horretan badutela zerikusi komunikazio-teknologiaren iraultzak, espazio eta denboraren koordenadek eta gizarte-interakzioa baldintzatzen duten faktoreek izan dituzten aldaketak.

Baldintza horiek beroiek, aldi berean, jarduteko askatasuna mugatzen duten zedarriak dira; ondorioz, honako paradoxa gertatzen da: estatuak globalizaziotik baztertzea bakar-bakarrik gorde eta berma daiteke estatuen erantzukizun eta gobernuen eraginkortasunean oinarriturik. GKEek NGKEen forma instituzional berriak sortzea eskatzen dute, hain zuzen ere, beren indarra eta baliabide-iturriak estatuen GKEek direnak. Estatuen burokraziek egitura horizontaleko erakunde-sareen premia sortzen dute eta, aldi berean, horiek estatu anitzetan funtzionatzeko hierarkia bertikaletan oinarritzen dira.

Globalizazioak, prozesutzat hartuta, onura handiak ekarri dizkie jende askori eta aldi berean jende asko eta askoren bazterketa ekarri du. Hain zuzen ere, baztertu horien artean sortu da globalizazioari aurre egingo dion elkarkidetasunean oinarritutako indarra, hala nola baztertuen liberalizazio eta biziberritzeko garai berri batzuek ekarriko dituzten onurak demokratizatu eta unibertsalizatuko dituen garapenaren aldeko elkarkidetasun solidarioa.

Globalizazioak, prozesutzat hartuta, onura handiak ekarri dizkie jende askori eta aldi berean jende asko eta askoren bazterketa ekarri du. Hain zuzen ere, baztertu horien artean sortu da globalizazioari aurre egingo dion elkarkidetasunean oinarritutako indarra

25. N. Themudo, *Global Civil Society*, 2002. Oxford.

Globalizazioaren eta elkarkidetasunaren artean dagoen erantzute-akuilatze erlazio bikoitzaren eraginez, garrantzi handiagoa hartzen dute globalizazioari buruzko arazoek bertan parte hartzen duten eragileek baino. Alde batetik, erabat globalizazioaren alde nabarmentzen direnak daude, eta horietan badira batzuk globalizazioa kapitalismo lehiakorrenaren barruan ikusten dutenak, eta beste batzuk mundu osoan araututa dagoen merkatuak elkarren artean lotzen dituen uzta-ritzat jotzen dutenak, baina batzuk zein besteak, aldi berean, giza eskubideak unibertsalizatzearen aldekoak dira, hori egitea mundu osoaren garapen teknologikoa hedatzeko bidetzat jotzen dutelako; azken batean, globalizazioa “ondasun handi”tzat daukate.

Bestetik, eta jarrera horiei kontrajarrita, globalizazio-prozesua Estatu-Nazioen mundura ekartzaren aldekoak daude. Eta horien artean ere, badira batzuk kapitalismo globala defendatzen dutenak, nahiz eta mugak diskriminaziorik gabe irekitzearen eta araudi unibertsal berri bat jartzearen kontra egon; eta badira beste batzuk erabat kapitalismo globalistaren aurka daudenak. Globalizazioa “ondasun handi”tzat jotzen dutenen kontra, azken horiek globalizazioa “berez kaltegarri”tzat jotzen dute. Hain prozesu konplexuarekin zerikusi duten anbiguotasun, jauzi eta atzeramateak atzeramate, jite globaleko elkarkidetasuna globalizazioaren hedapen-dinamikaz baliatzen da eta aldi berean globalizatzen laguntzen du.

15. taula

NGKEEN EGOITZA NAGUSIAK ETA BIZTENLERIA-DENTSITATEA MILA-KOETAN HERRIALDEKO²⁶

Herrialdea	Egoitza kop.	Dentsitatea
Belgika	1.203	120,7
Frantzia	1.143	20,1
Estatu Batuak	1.084	4,3
Erresuma Batua	949	16,5
Suitza	650	96,8
Alemania	492	6,2
Herbehereak	361	24,1
Italia	310	5,5
Suedia	247	28,9
Danimarka	242	47,1
Espania	76	2,0

Iturria: Anheier, H. Global Civil Society, 2002. Bertan egina.

26. Anheier, H. Global Civil Society, 2002. Oxford.

Elkarkidetasunaren etorkizunak ez du gelditu edo ahulduko den itxurarik ematen, are gehiago badirudi hazteko, funtzionaltasun gehiago hartzeko eta hedatzeko itxura ematen duela

Elkarkidetasunak aurrera darrai etengabe, ez ordea izaera erraldoia lortzeko bidean edo bertara biltzen diren erakunde kopurua ugaltzarren, baizik eta beren arteko estrategiak eta partaidetzak lortzarren. Elkarkidetasunak beraz erakundeen arteko sareak sortu eta sendotu nahi ditu, globalizazioa aurrera eramateko bidetzat jotzen duelako jokabide hori.

Elkarkidetasunaren etorkizunak ez du gelditu edo ahulduko den itxurarik ematen, are gehiago badirudi hazteko, funtzionaltasun gehiago hartzeko eta hedatzeko itxura ematen du. Gizartean geroz eta indar eta eragin handiagoa du, eta horrek erne jartzen ditu begirada asko, irabazi asmorik gabeko korporatibismoa iruzur-jokabideetan eror ez dadin zaintzeko.

Elkarkidetasunak kanpora begira erakutsi behar duen gardentasuna *sine qua non* baldintza bihurtu da, irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunak gizartean orain arte eduki ez duen legitimotasun maila handi bat izan dezan. Baina, kontu handiz ibili beharra dute, legitimotasun hori gal ez dezaten, erakundeek gizartean duten eraginaren garapenak erakundeak beraiek sortze-helburuetatik desbideratzera eramán ditzaketelako. Horri kontrajarrita, gardentasunaren aldeko ahaleginak profesionalizazio-programa garrantzitsu baten laguntza behar du, elkarkidetasun-mugimenduaren eraginkortasunik handiena bilatuz, eraginkortasuna komertzialari edo estatuenari itzuri egingo diona, horiek ez dutelako zerikusirik inolaz ere misio-kontzeptuarekin eta herritarren solidaritatearekin, hain zuzen ere irabazi asmorik gabeko sektorearen ezaugarriekin.

Badirudi, beraz, horrek guztiak elkarkidetasunaren erronkaren aurrean jartzen gaituela, hau da: helburuak lortzea, baina zentralizazioaren eta deszentralizazioaren artean oreka operatibo bat bilatuz, hots, estandarizazioaren eta malgutasunaren arteko oreka erdietsiz. Aurrerapauso berri horretan, Espainia azken lekuetan dago, zenbait adierazleri kasu egiten badiegu, behintzat: NGKEen egoitza nagusi zaharkituak, horien dentsitatea, enplegu maila, eta abar. Adibidez, Espainiako irabazi asmorik gabeko sektorean lanaldi osoz ari direnen 475.179 lanpostuetatik (1995), 9.380 edo %2 NGKEenak dira edo horiekin zerikusi dutenetakoak, eta zentsu hertsian boluntarioenak diren 253.599 lanpostuetatik, 9.789 edo %3,9 ari dira lankidetzan NGKEekin²⁷.

**Espainiako irabazi
asmorik gabeko
sektorean lanaldi osoz
ari direnen 475.179
lanpostuetatik (1995),
9.380 edo %2
NGKEenak dira edo
horiekin zerikusi
dutenetakoak, eta
zentsu hertsian
boluntarioenak diren
253.599 lanpostuetatik,
9.789 edo %3,9 ari dira
lankidetzan NGKEekin**

27. Anheier, H. 2002.

3.2. IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN IKUS-PEGI KONPARATUA

Lester Salomonek elkarkidetasunaren mundu mailako iraultzatza jo du bere nazioarteko azterlan konparatiboan. Lan horretan 22 herrialde aztertu ditu eta ikusi du horietako bakoitzean mugimendua geroz eta handiagoa dela. Hedapen-prozesu hori egungo gizarte-ongi-zateko politikak zalantzan jartzen dituen mugimendua da, estatuek gidatzen duten bilakaeraren aurrean etsipena erakusten duena, sozialismo estatalaren kolapsoa edota ingurumena narriatzeak sortzen duen kezka etengabea. Mundu mailan gertatzen ari den prozesu horretan, aztertutako herrialde guztietan ikus daitezkeen bost ezaugarri dira nabarmen, eta horiek dira hain zuzen sektore honen gorabeherak sortzen duen interesaren arrazoi (Salomon, 2001, 20. orrialdea).

- Irabazi asmorik gabeko sektorea, sozial eta politikoki duen eraginaz gain, oso indar ekonomiko garrantzitsua da eskualde eta herrialde gehienetan, nazioetan lortu dituen enplegu eta gastuei dagokienez oso maila altuak lortu dituelako.
- Alde handiak daude herrialde batetik bestera sektore honen presentziaren intentsitateari dagokionean. Esan daiteke, halaber, Tocqueville-ren tesietan goraiatzan zen iparamerikarren nagusitasuna amaitu dela, kontuan izan behar baita, herrialdez herrialdeko erkaketan, lehen mailetan Herbehereak, Irlanda, Belgika eta Israel daudela.
- Erakundeetan nagusi dira aisialdiarekin zerikusi dutenak, eta langile-kopuruari dagokionez, gizarte-zerbitzuetan lan egiten dutenak dira gehienak; eta bai bata bai bestea boluntario-kopuru handienak dituztenak dira.
- Dirusarrera handienak sektore publikoen iturrietatik datoz, baita emandako zerbitzuen ordainetik ere, eta ez filantropiatik.
- Sektorea bereziki nabarmentzen da enplegua sortzen duen sektoretzat, batez ere European.

Ruiz Olabuenagaren zuzendaritzapean aritu den ikertzaile-taldeak egin duen ahalegin konparatiboak aukera ugari eskaintzen ditu, ondoren ikus daitezkeen bezala, Espainiako egoeraren zirkunstantzia eta berezitasunak eta Europa eta munduko gainontzeko herrialdeetakoak modu sistematikoan alderatzeko.

Munduko ekonomia handienetan zortzigarrena

Irabazi asmorik gabeko sektorea, gizarte zein politika mailan duen garrantziaz gain, indar ekonomiko aparta da aztertu diren herrialde

Irabazi asmorik gabeko sektorea, gizarte zein politika mailan duen garrantziaz gain, indar ekonomiko aparta da aztertu diren herrialde guztietan. Mendebaldeko Europa irabazi asmorik gabeko sektore garatuena duen eskualde bezala nabarmentzen da

guztietan. Herrialde horietako sektore horrek ekonomia nazional bereizia eratuko balu, Salomon-en grafikoan ikus daitekeenez, munduko ekonomia handienetan zortzigarrena izango litzateke, hau da, Brasil, Errusia, Kanada eta Espainiaren aurretik.

Sektore honek 1,1 bilioi dolar mugitzen ditu eta gutxi gorabehera 19 milioi laguni ematen die lanaldi osoko enplegua. Bestalde, ikerlanean aztertu diren herrialdeetako irabazi asmorik gabeko sektorearen gastuak BPGaren %4,6koak izan ziren batz bestea.


Alde handiak eskualde eta herrialdeen artean

Hirugarren sektoreak gizartean duen hedapena zabala bada ere, hedapen horrek alde handiak dauzka herrialde batetik bestera. Alde horietan zerikusi handia duten faktoreak dira herrialdearen tamaina eta herrialdearen garapena.

Ageri denez, hirugarren sektorea hainbat handiago da herrialdea zenbat eta garatuago izan, baliabideen eskuragarritasunarekin zerikusi handia duelako. Boluntzariotza kontuan hartuz, Mendebaldeko Europa irabazi asmorik gabeko sektore garatuena duen eskualde bezala nabar-

4. grafikoa

IRABAZI ASMORIK GABEKO SOLDATAPEKO ENPLEGUAREN EHU-NEKOA ENPLEGU OSOAREKIKO



Iturria: La Sociedad Civil Global 2001. BBVA. Bertan egina

Hiru bosten inguru edo boluntariotzak betetzen duen dedikazio-denboraren %55 bi arlo nagusitan ematen dira: aisialdi-jarduerak, kirolak barne, eta gizarte-zerbitzuak

mentzen da eta gainera boluntarioen partaidetzarik garrantzitsuena duena da. Paradoxikoa bada ere, AEBak, irabazi asmorik gabeko erakundeen haztegia ematen bazuen ere, ez dira hirugarren sektore handiena dutenak, ez behintzat enpleguaren ehunekoari begiratzen badiogu.

Hala, AEBetako irabazi asmorik gabeko sektoreak soldatapeko enplegu osoaren %7,6 hartzen du, baina AEBen gaineratik daude, adibidez, Herbehereak %12,4arekin, Irlanda %11,5arekin eta Belgika %10,5arekin.

Gizarte-ongizate zerbitzuen nagusitasuna

Munduko irabazi asmorik gabeko enpleguaren bi heren gizarte-ongizate zerbitzuetako hiru arlo tradizionaletan biltzen dira: hezkuntza, enplegu osoaren %30 hartzen duena; osasuna, beste %20a hartzen duena, eta gizarte-zerbitzuak, %18 bereganatzen duena. Bestalde, aisialdi- eta kultura-jarduerek %14 hartzen dute.

Haatik, eredu hori nabarmen aldatzen da boluntariotza kontuan hartzen dugunean. Hiru bosten inguru edo boluntariotzak betetzen duen dedikazio-denboraren %55 bi arlo nagusitan ematen dira: aisialdi-jarduerak, kirolak barne, eta gizarte-zerbitzuak.

Bestalde, Mendebaldeko Europako (eta bereziki Espainiako) irabazi asmorik gabeko sektorean lan egiten duten gehienak gizarte-zerbitzuen arloan ari badira ere, esan daiteke argi eta garbi arlo hori gainbehera doala. Horixe adierazten du behinik behin kirola- eta aisialdi-jarduere-tan parte hartzen duten boluntarioen kopuru handiak, eta baita ere herritarren eskubideen aldeko eta lege-aholkularitzaren aldeko taldeetan ari direnek

Enplegu-sortzaile garrantzitsua

Sektore honek enpleguaren sorkuntzan duen garrantzia bereziki adierazgarria da Mendebaldeko Europan. Enpleguaren hazkundera batez ere osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloan gertatzen da. Irabazi asmorik gabeko sektorearen enplegu-bolumen erlatiboak gorabehera handiak erakusten ditu leku batetik bestera: Herbeheretan nekazaritzakoa ez den enplegu osoaren %12,6 bada, Mexikon, adibidez, %1 da. Aztertutako 22 herrialdeetako batez bestekoa %4,6 da. Horrenbestez, Espainia batez besteko globalaren azpitik dabil, baina Finlandia eta Austriaren gaineratik (biak %4,9an baitabiltza).

Nolanahi ere, irabazi asmorik gabeko sektorearen benetako tamaina nolakoa den jakiteko, kontuan hartu beharrekoa gertatzen da boluntarioen lana. Horri begira, hain zuzen, Espainiako irabazi asmo-

Irabazi asmorik gabeko sektorearen enplegu-bolumen erlatiboak gorabehera handiak erakusten ditu leku batetik bestera: Herbeheretan nekazaritzakoa ez den enplegu osoaren %12,6 bada, Mexikon, adibidez, %1 da

16. taula

IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA. SOLDATAPEKO ENPLEGUA ETA BOLUNTARIOENA (ENPLEGU OSOARI BURUZKO %AK)

Herrialdeak	Soldatapeko enplegua	Boluntarioen enpleguak	Guztira
Herbehereak	12,6	5,1	17,7
Irlanda	11,5	2,7	14,2
Belgika	10,5	2,5	13,0
Israel	9,2	1,8	11,0
Estatu Batuak	7,6	4,1	11,7
Australia	7,2	2,9	10,1
Erresuma Batua	6,2	4,4	10,6
Alemania	4,9	4,7	9,6
Frantzia	4,9	3,1	8,0
22 herrialdeen batez bestekoa	4,6	2,2	6,8
Austria	4,5	2,3	6,8
Espainia	4,5	1,2	5,7
Argentina	3,7	0,6	4,3
Japonia	3,5	1,1	4,6
Finlandia	3,0	3,3	6,3
Peru	2,4	0,5	2,9
Brasil	2,2	0,2	2,4
Txekiar Errepublika	1,7	2,1	3,8
Hungaria	1,3	0,3	1,6
Eslovakia	0,9	0,4	1,3
Errumania	0,6	1,4	2,0
Mexiko	0,4	0,3	0,7

Espainiako irabazi asmorik gabeko enpleguaren %31,8 gizarte-zerbitzuetan ari da. Ehuneko hori Mendebaldeko Europakoa (%27,0) baino handiagoa da eta erraz gainditzen du aztertu diren 22 herrialdeetako ehunekoak: %18,3, hots, bederatzi puntuko diferentzialarekin

Iturria: La Sociedad Civil Global 2001. BBVA. Bertan egina

rik gabeko sektorean ari den boluntariotzak areagotu egiten ditu Mendebaldeko Europari buruzko (%10,3 mailarik handiengan) diferentziak.


Espainiako irabazi asmorik gabeko enpleguaren %31,8 gizarte-zerbitzuetan ari da. Ehuneko hori Mendebaldeko Europakoa (%27,0) baino handiagoa da, eta erraz gainditzen du aztertu diren 22 herrialdeetako ehunekoak: %18,3, hots, bederatzi puntuko diferentzialarekin. Gizarte-zerbitzuen arloko enpleguaren nagusitasun argi hori Austrian, Frantzian eta Alemanian ere gertatzen da. Espainiak,

halaber, irabazi asmorik gabeko enpleguaren ehuneko handia erakusten du garapenaren arloetan (%11,2) eta aholkularitza juridikoa-ren arloan (%3,4); bi arloen batuketak Espainiako irabazi asmorik gabeko enpleguaren %14,6ko batura ematen du.

Espainiari dagokionez, hiru erakunde-sare handi bereizten dira: ONCE, Gurutze Gorria eta Cáritas. Adibide gisa aipatzearren, ONCEk soldatapeko 40.000 langile ditu, hau da, Espainiako irabazi asmorik gabeko enplegu osoaren %8,4.

5. grafikoa

ENPLEGUAREN BANAKETA JARDUERA-EREMUEN ARABERA ESPAINIA ETA MENDEBALDEKO EUROPA ETA 22 HERRIALDEETAKO BATEZ BESTEKOA



Iturria: La Sociedad Civil Global 2001. BBVA. Bertan egina

Espainia gizarte-zerbitzuak nagusi izango liratekeen eredu batean sartuko litzateke Frantzia, Alemania eta Austriarekin batera. Lau herrialde horietan esperientzia eta eragin handia izan du, eta oraindik ere badu, eliza katolikoak, batez ere arreta sozial eta pertsonalaren arloan

17. taula

IRABAZI ASMORIK GABEKO EGITUREN EREDUAK, HERRIALDEZ HERRIALDE

Eredua*	Herrialdeak
Hezkuntza da arlo nagusia	Argentina, Israel, Belgika, Mexiko, Brasil, Peru, Irlanda, Erresuma Batua
Osasuna da arlo nagusia	Japonia, Herbehereak, Estatu Batuak
Gizarte-zerbitzuak dira arlo nagusia	Austria, Frantzia, Alemania, Espainia
Kultura- eta aisialdi-jarduera dira nagusi	Txekiar Errepublika, Hungaria, Errumania, Eslovakia
Eredu orekatua	Australia, Kolonbia, Finlandia

* Soldatapeko enpleguan oinarriturik


Iturria: La Sociedad Civil Global 2001. BBVA. Bertan egina

Eskuarki begiraturaz, irabazi asmorik gabeko sektorean bost egitura-eredu ikus daitezke; eta horiek multzoan nagusi den arloaren arabera bereizi dira: hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, kultura-jarduerak, edota arlo horien guztien oreka bat dutenak.

Espainia gizarte-zerbitzuak nagusi izango liratekeen eredu batean sartuko litzateke Frantzia, Alemania eta Austriarekin batera. Lau herrialde horietan esperientzia eta eragin handia izan du, eta oraindik izaten jarraitzen du, eliza katolikoak, batez ere arreta sozial eta personalaren arloan. Batez beste herrialde horietako sektore honetako enpleguaren %44 inguru gizarte-arretako zerbitzuetan ari dira, nahiz eta horietako bi herrialdetan, Espainian eta Frantzian, alegia, enplegu horren zati handi bat hezkuntza arloan ari.

6. grafikoa


IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN DIRU-SARRERAK HERRIALDEZ HERRIALDE



Iturria: Global Civil Society, 2001. Bertan egina

7. grafikoa

IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN FINANTZA-ITURRIAK. ESPAINIA, MENDEBALDEKO EUROPA ETA 22 HERRIALDEEN ARTEKO ALDEAK



Iturria: La Sociedad Civil Global 2001, BBVA. Bertan egina.

Diru-sarreraren jatorria

Gaingiroki begiraturaz, irabazi asmorik gabeko sektoreak antzeko egitura hartzen ditu leku ezberdinetan; hala diru-sarrerarik handienak emandako zerbitzuengatik jasotakoak izaten dira.

Bestalde, irabazi asmorik gabeko sektoreak gobernuen finantzaketei zor dien menekotasuna askoz ere txikiagoa da Espainian Europako gainontzeko herrialdeetan baino: sektore publikoaren ordainketen bidezko sarrera guztien ehuneko batez bestekoa Espainian %32,1ekoa bada, aztertu diren Mendebaldeko Europan (Austria, Belgika, Finlandia, Frantzia, Alemania, Irlanda, Herbehereak, Espainia eta Erresuma Batua) %55,6koa da.

18. taula

FUNDAZIOAK. DENTSITATEA EUROPAKO HERRIALDEZ HERRIALDE

Herrialdea	Kop.	Kop./100.000 bizt.
Suedia	20.000	200
Danimarka	14.000	272
Turkia	9.300	16
Erresuma Batua	8.800	16
Alemania	8.300	10
Suitza	8.000	111
Espainia	6.000	15

Iturria: Foundations in Europe. Betterslmann 2001,

Irabazi asmorik gabeko sektoreak gobernuen finantzaketei zor dien menekotasuna askoz ere txikiagoa da Espainian (%32,1) Europako gainontzeko herrialdeetan (%55,6) baino. Bestalde, kuota eta zerbitzuen ordainketa bidez sektoreak izaten duen sarrera maila, ordea, askoz ere handiagoa da Espainian Mendebaldeko Europako gainontzeko herrialdeetan baino

Kuota eta zerbitzuen ordainketa bidez sektoreak izaten dituen sarrera maila, ordea, askoz ere handiagoa da Espainian Mendebaldeko Europako gainontzeko herrialdeetan baino: %40 eta %37,2 batez beste eta hurrenez hurren; eta filantropia bidezko sarrerak ere nahiko handiagoak dira Espainian beste herrialde horietan baino: %18,8 eta %7,2 hurrenez hurren.

*4. Irabazi asmorik
gabeko sektorea EAEn*

4. Irabazi asmorik gabeko sektorea EAEn

Sarri gertatzen denez, aditu eta ikerlari askok, osotasuna bere zatikiren batekin nahastuz, “gizarte-ekimen”eko azpisektoreaz hitz egiten dute, termino horrek irabazi asmorik gabeko sektore guztia barnebiltzen duelakoan. Baina ohitura hori nahaste-borraste eta anbigutasuna hedatzeko baino ez da izaten; joera horrek ez du inolako argibiderik eta bereizketarik eskaintzen. Errore horri itzuri egiteko, lan honetan bi bloke eratu ditugu; batean, EAeko irabazi asmorik gabeko sektore osoa aztertuko dugu; bestean, irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenaren sektorea ikusiko dugu, horixe baita bere baitan arlo horretan diharduten irabazi asmorik gabeko erakundeen multzoa hartzen duena, hots, Gizarte-ekimenerako irabazi asmorik gabeko erakundeak (ONLAS) izenekoak hartzen dituena.

I. BLOKEA IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA EAE-N

Aurreko ataletan aipatu dugunez, gauza jakintzat jotzen dugu Espainiako elkarkidetasun-mugimendua nahiko ahula dela eta beste herrialde batzuetakoarekin alderatuz gutxi garatuta dagoela. Baina euskal gizarteari dagokionez, bestelakoa da oso gure gizartearen elkarkidetasunari buruzko iritzia. Hemengo elkarkidetasuna gorai-patzen duen tradizioa XVIII. mendean hasi zen Jovellanos eta Larra-mendirekin, eta horri Antonio Truebak jarraitu zion XIX. mendean eta J. Apalategi eta beste batzuek XX. mendean.

Bi interpretazio horiek, oro har Espainiakoa eta bereziki Euskadikoa, ez dira alderatu, ezta gutxiagorik ere, ikerkuntza zorrotz eta sakonez. Beharrezkoa da, beraz, iritzi horiek kontrajartzea eta horretarako azterketa serioak egitea, errealitate sozialarekin bat datozen edo estereotipo hutsak diren jakiteko. Gizartearen barruan elkarkidetasun asmoa dagoela esaten duen tesia, printzipioz, asmo hori ez dagoela esaten duena bezain sinesgarria da; hortaz, elkarkidetasuna guregandik urruti dagoela aitortzea, gure gizartean ez eza-guna bezain sustraitua den fenomeno dela ere aitortu daiteke.

EAeko elkarkidetasunak hiru ezaugarri ditu, eta horiek esanguratsuak badira ere, ez dira askorik aldentzen, ikusi dugun bezala, Espainiakoak dituen ezaugarri orokorretatik.

Lehenbizi, esan behar da elkarkidetasunak arrakasta sozial ikaragarria izan duela bere hedapenean, eta horrek ikertzaile guztiak hemengo elkarkidetasunari buruz zuten iritzia aldatzera edo zuzentzera derrigortu dituela.

Gauza jakintzat jotzen dugu Espainiako elkarkidetasun-mugimendua nahiko ahula dela eta beste herrialde batzuetakoarekin alderatuz gutxi garatuta dagoela. Baina euskal gizarteari dagokionez, bestelakoa da oso gure gizartearen elkarkidetasunari buruzko iritzia

Bigarrenez, elkarkidetasun-mugimendu honek orain arte inoiz ezagutu ez den gizarte-onespena jaso du, eta hori benetako pizgarri bihurtu da, elkarkidetasun-mugimenduari honako eskaerak eta gomendioak egiteko: kudeaketa teknifikatze, bere arduradun eta zuzendariak profesionalizatzea, giza baliabideak berritzea eta gizartearen premia berriei buruzko kontzientziatze handiagoa onartzea.

Hirugarrenez, sektoreak egituratze berri bat izan du, historian zehar jokatu duen eginkizun demokratizatzaile, bateratzaile, berritzaile eta sustatzailearekin jarraitzeko; horixe baita euskal gizarteak lehen eta orain eskatzen diona.

2000. urtearen hasierako egoera nolakoa zen jakiteko, ez litzateke bide okerra aukeratzea izango Euskal Autonomia Erkidegora extrapolatzea Espainiako egoerari buruzko datuak. Zorionez, erabili dugun iturriak adierazten duenez, extrapolatze hori bideragarria litzateke, baina gure iritziz ez da beharrezkoa hala egitea, EAEko elkarkidetasunaren tamaina eta egituraren egoerari buruzko informazio eguneratuago eta gaurkotuago daukagulako.

4.1. IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREKO ERAKUNDEAK

EAEko hirugarren sektoreko elkarkidetasun-mugimendua oso-oso konplexua da, bai instituzionalizatzeko hartzen duen forma juridikoari dagokionez, bai gizartean abian jartzen dituen jardueri eta horre-

EAEko hirugarren sektoreko elkarkidetasun-mugimendua oso-oso konplexua da, bai instituzionalizatzeko hartzen duen forma juridikoari dagokionez, bai gizartean abian jartzen dituen jardueri eta horretan burutzen duen eginkizunari dagokionez eta bere lanaren xedeko biztanleria-tarteei dagokionez

19. taula

EAE. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN (IAE) TIPOLOGIA. 2001²⁸

IAEen tipologia	Kopurua	%
Elkarteak	13.658	67,83
Klubak eta kirol-elkarteak	3.885	19,29
Kooperatibak	41	0,20
Fundazioak	414	2,06
Elkarte profesionalak	1.312	6,52
Erakunde erlijiosoak	821	4,08
Aurrezki kutxen gizarte-ekintzak	3	0,01
ONCE, Gurutze Gorria eta Cáritas	3	0,01
GUZTIRA	20.137	100,00

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

28. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren menpeko Elkartearen Erregistro Orokorra; Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

tan burutzen duen eginkizunari dagokienez eta bere lanaren xedeko biztanleria-tarteei dagokienez.

Elkarkidetasun-mugimenduaren tamaina zenbatekoetara bihurtzeak, berezko konplexutasunari erantzuteaz gain, lan ikaragarria eskatzen du: gaur egun dauden irabazi asmorik gabeko elkarte guztiak barnebilduko dituen errolda egitea. Eusko Jaurlaritzak haztatu dituen erregistroak erabiliz –horrela egiteak erabilitako erreferentzia-iturriari jite formala ematen dio–, Euskadiko irabazi asmorik gabeko elkarkidetasun-mugimenduaren nahiko irudi egokia finkatu ahal izan da. 19. taulak (aurreko orrialdea) EAEko hirugarren sektorea eratzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeen egoera eerrakusten du.

Hogei milatik gora erakundez osatutako zuhaitz honen enbor nagusia elkarteek osatzen dute, eta horiek irabazi asmorik gabeko erakunde guztien bi herenetik gora dira. Elkarte horiek EAEko hiru lurralde historikoetan daude banatuta bakoitzaren egoera demografikoaren proportzioan.

Hogei milatik gora erakundez osatutako zuhaitz honen enbor nagusia elkarteek osatzen dute, eta horiek irabazi asmorik gabeko erakunde guztien bi herenetik gora dira

20. taula

EAE. LURRALDE HISTORIKOETAKO ELKARTEEN BANAKETA

Elkarteak	Kopurua	%
Bizkaia	6.807	49,84
Gipuzkoa	4.484	32,83
Araba	2.367	17,33
Guztira	13.658	100,00

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Gelditze- edo ahultze-egoeratik urrun, irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunak gorako joera etengabea erakusten du bere erakundeen kopuruari dagokionez. 1996-2001 bitartekoan zehar, elkarteek %37,4ko hazkunde-tasa izan zuten. Jarraikian datorren taulan ikus daiteke elkarteek bitarteko horretan izan zuten bilakaera:

21. taula


EAE. ELKARTEEN BILAKAERA 1996-2001EKO BITARTEAN URTEZ URTE

Urte	1996	1997	1998	1999	2000	2001	Hazkundera 1996-2001
Elkarteak guztira	9.938	10.607	11.215	11.859	12.428	13.658	%37,4

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

8. grafikoa

EAE. ELKARTEEN BILAKAERA 1996-2001EKO BITARTEAN



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Elkarte horietatik guztietatik %10,4k gizarte-ekintzaren arloan dihardute zerbitzuak eskainiz eta giza talde ahulenen eta bazterte-arriskuan dauden kolektiboen (emakumeak, adingabeak, ezintasunen bat dutenak, gaixoak, adinduak, toxikomanoak, presoak, immigranteak, errefuxiatuak eta babestuak, gutxiengo etniak...) interesak defendatuz

Garrantziaren goitik beherako ordenan klubek eta kirol elkarteek osatzen duten blokea dator bigarren lekuan. Horiek guztira 3.885 entitate dira eta 1997-2001 bitartekoan %15,6ko hazkunde-tasa izan zuten.

22. taula

EAE. KLUB ETA KIROL ELKARTEEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 1997-2001


		1997	1998	1999	2000	2001	1997-2001eko hazkundera
Araba	Klubak	579	589	615	673	711	22,80
	Kirol elkarteak	442	474	487	489	491	11,09
Bizkaia	Klubak	1.245	1.268	1.321	1.387	1.436	15,34
	Kirol elkarteak	113	129	135	142	158	39,82
Gipuzkoa	Klubak	876	895	916	934	959	9,47
	Kirol elkarteak	105	120	122	127	130	23,81
GUZTIRA		3.360	3.475	3.596	3.752	3.885	15,63

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Gelditze- edo ahultze-egoeratik urrun, irabazi asmorik gabeko elkarkidetasunak gorako joera etengabea erakusten du bere erakundeen kopuruari dagokionez. 1996-2001 bitartekoan zehar, elkarteek %37,4ko hazkunde-tasa izan zuten

9. grafikoa

EAE. KLUB ETA KIROL ELKARTEEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 1997-2001



Garrantziaren goitik beherako ordenan bigarren lekuan dator klubek eta kirol elkarteek osatzen duten blokea. Erakunde horiek guztira 3.885 entitate dira eta 1997-2001 bitartekoan %15,6ko hazkunde-tasa izan zuten

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Argi dagoenez, kirol erakunde horiek, irabazi asmorik gabeko sektorekotzat jotzen direnean ere, ez dira gizarte-ekimenaren arloko irabazi asmorik gabeko erakundeen multzokotzat jotzen

Garrantziaren arabera ordena horretan hirugarren lekuan dator elkarte profesionalen blokea. EAeko erregistro ofizialak emandako datuen arabera, elkarteak 1.312 dira guztira (226 Araban, 434 Bizkaian, 253 Gipuzkoan eta 399 EAE osoan). Elkarte horien hazkunde-tasa %21,5ekoa izan zen 1997-2001 bitartekoan, hau da, aurreko paragrafoetan aztertu diren elkarteen antzekoa.

23. taula


EAE. ELKARTE PROFESIOALEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 1997-2001

	1997	1998	1999	2000	2001	1997-2001eko hazkundea
Araba	200	226	226	226	226	%13,0
Bizkaia	365	370	403	426	434	%18,9
Gipuzkoa	198	213	230	245	253	%27,8
EAE	317	333	356	386	399	%25,9
GUZTIRA	1.080	1.142	1.215	1.283	1.312	%21,5

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

10. grafikoa

EAE. ELKARTE PROFESIOALEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. 1997-2001



Profesionalen elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira eta beren xede nagusia, oro har, lanbide-jarduera bakoitzeko espezialitate edo adarraren interes multzoa planteatzea eta defendatzea da

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Profesionalen elkarteak irabazi asmorik gabeko erakundeak dira eta beren xede nagusia, oro har, lanbide-jarduera bakoitzeko espezialitate edo adarraren interes multzoa planteatzea eta defendatzea da.

Nahiz eta elkarte hauek irabazi asmorik gabekoak izan eta beren asmoa nolabait gizarte-ekimenekoa izan, ez dira sartzen gizarte-ekimeneko elkarten sailean; hortaz, irabazi asmorik gabeko erakundee-takotzat jotzen dira besterik gabe.

Elkarte profesionalen atzetik datoz elkarte erlijiosoak; guztira 821 dira, horietatik 126 Araban daude, 347 Bizkaian eta 348 Gipuzkoan. Guztira identifikatu diren 821 elkarte horietatik 37, edo %4,5, gizarte-ekimenaren arloan ari dira.

24. taula

EAE. ERAKUNDE ERLIJIOSOAK. KOPURUA ETA MOTAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

Motak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
Erakunde katolikoak	122	336	343	801
Gutxiengoaren erlijioak	2	7	5	14
Fundazio kanonikoak	2	4	0	6
GUZTIRA	126	347	348	821

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Aurreko pasarteetan aipatu dugun goitik beherako ordenari jarraiki, irabazi asmorik gabeko erakundeen bosgarren blokea dator; horretan EAEn errolda edo erregistro bakar batean biltzen diren fundazioak sartu dira. Gogoratu behar dugu erregistro hori 1994ko Legearen²⁹ babesean egin zela, lege horrek erregistro guztiak koordinatzeko aukera ematen zuelako. Horrela bada, 2001. urtean 414 fundazio ziren izena emandakoak, eta guztiak daude motaz mota sailkaturik.

Fundazio horien xedeak aztertuz, ikusi da horietan 74k, edo %18k, gizarte-ekimenaren arloan diharduela.

25. taula

EAE. FUNDAZIOAK. KOPURU ETA MOTAK LURRALDE HISTORIKO-EN ARABERA

Motak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Guztira
Ongintza-hezkuntzakoak	36	79	51	-	166
Laguntzakoak	27	49	24	-	100
Kulturakoak	6	20	12	-	38
Era askotakoak	13	52	37	8	110
GUZTIRA	82	200	124	8	414

2001. urtean 414 fundazio ziren EAEn izena emandakoak

Iturria : El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Seigarren blokea, ordea, kooperatibek osatzen dute; guztira 41 dira azterlan honetarako jarri ditugun baldintzak (irabazi asmorik gabeko erakundeak izatea eta gizarte-ekimenaren arloan aritzea) betetzen dituztenak. Sailkatutako kooperatiba horiek gutxiengoak dira kooperatiba guztiekin alderatuz; hau da: EAEn guztira 1.279 kooperatiba daude (234 Araban, 530 Bizkaian eta 515 Gipuzkoan). Ondoko taulan dator multzo horren bilakaera, eta bertan ikus daitekeenez 1997-2001 bitartekoan zehar %15,2ko hazkundera izan dute³⁰.

29. Baieztapen hori hein batean da bakarrik egia, fundazio erlijiosoek, Espainiako Estatuak Aulki Santuarekin egindako konkordatu dela eta, ez dutelako zertan sartu Justizia Ministerioaren Erregistro Zibilean.

30. Kooperatiba horietako bakoitza irabazi asmorik gabeko elkarteen sail honetan sartu edo ez arazo gaitza izan da konpontzen. Printzipioz, erakunde horietan irabazi asmorik gabeko baldintzaren izaera gehiago da filosofikoa juridikoa baino, izatez ez dira agertzen entitate juridiko bezala erregistroan izena ematerakoan. Alabaina, 2000. urtean 27/1999 legea onartuta gero, erakunde horietako batzuek, (21) herriaren mesedekoek, onespina lortu dute, eta horrek printzipioz guk ere irabazi asmorik gabeko erakundetzat hartu ditugu. Bada beste talde bat ere (20) gizarte-ekimenaren arloan kokatzen dena. Hortik dator, beraz, bi multzo horiek biak batera sail honetan sartzea.

26. taula


**EAE. KOOPERATIBEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABE-
RA. 1997-2001**

	1997	1998	1999	2000	2001	1997-2001eko hazkundera
Araba	191	199	209	210	234	22,5
Bizkaia	464	474	489	507	530	14,2
Gipuzkoa	455	451	460	477	515	13,2
GUZTIRA	1.110	1.129	1.157	1.194	1.279	15,2

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

11. grafikoa

**EAE. KOOPERATIBEN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABE-
RA. 1997-2001**



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Erakunde horiekin guztiekin batera sartu dira azterlan honetan EAEn dauden hiru aurrezki kutxek antolatzen dituzten gizarte-ekimeneko jarduerak, hala nola beste hiru entitate, banan bana kontuan hartuz: ONCE, Gurutze Gorria eta Cáritas

Elkarte multzo hori guztia egituratzen duten jarduera-eremuak, Eusko Jaurlaritzak egin dituen zerrendetako tipifikazioarekin bat etorriz, honako taulan zehazten diren kategorietan sailkatu dira:

27. taula

EAE. ELKARKIDETASUNAREN JARDUERA-EREMU NAGUSIAK (%)

	%
Kultura orokorra ³¹	48,4
Kultura berezia ³²	5,7
Politiko-sozio-ekonomikoa ³³	13,3

31. Kultura orokorra: Sail honetaketzat jotzen dira honako jardueretan ari diren elkarteak: literatura, arte ederrak, musika, dantza, folklorea, abeskatzak, antzerkiak, zinemagintza eta bideoa, argazkiak, zezenketak, atsedena, gastronomia, asialdia, eskualdeetako etxeak, kirola (konpetizioa ez denean), yoga eta arte martzialak, irratia, kultura-promozioa, filatelia-numismatika eta mikologia.

32. Kultura berezia: zientziak, teknikak, ikasketak eta euskararen sustapena.


Asko nabarmentzen dira, pisu handia dutelako, honako kolektiboekin lan egiten duten erakundeak: minusbalioak eta gaixoak, adinduak, adingabeak eta emakumeak.

Familia eta kontsumoa ³⁴	5,3
Irakaskuntza ³⁵	12,0
Gazteria ³⁶	4,1
Auzoetakoa ³⁷	6,0
Ongizate-laguntza ³⁸	5,2
Guztira	100,0

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

12. grafikoa

EAE. ELKARKIDETASUN JARDUEREN XEDEKO JENDEA



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Eusko Jaurlaritzaren sailkapen-zerrendaren eta Johns Hopkins Unibertsitatearen INCPO (Irabazi Asmorik gabeko Erakunde Nazioarteko Sailkapena) sailkapenaren artean homologazio bat bilatu nahian, EAEko irabazi asmorik gabeko erakunde-kopuruaren banaketa portzentuala egin da.

33. Politiko-sozio-ekonomikoa: iritzi-taldeak, emakumearen promozioa, adingabeak, talde feministak, enplegu-sustapena, naturismoa, ekologia, gizatasuna, bakezaletasuna, sektoreen promozioa, beste kolektibo batzuk eta nazioarteko elkartasuna.

34. Familia eta kontsumoa: guraso-elkarteak, gaixoen gurasoak, alargunak, bananduak, ezkongabeko amak, hirugarren adina, etxeko andreak eta kontsumitzaileak.

35. Irakaskuntza: ikasleen guraso-taldeak, ikasleak (LODE), estudiantek, ikasle ohiak.

36. Gazteria: gazteak eta aisialdia.

37. Auzoak: auzo-elkarteak, jabeen elkarteak, lagun-taldeak...

38. Ongizate-laguntza: ezinduak, gaixoak, drogazaleak, alkoholikoak, baztertuak, istripuetako laguntza, erreskate-taldeak, adinduei laguntzea, beste kolektibo batzuei laguntzea.

28. taula

EAE. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN BANAKETA INCPO JARDUERA-EREMUEN ARABERA (%)

	%
Kultura- eta aisialdi-jarduerak	54,5
Hezkuntza eta ikerkuntza	15,7
Osasuna	1,7
Gizarte-zerbitzuak	7,6
Ingurumena	2,4
Garapena eta ostatuak	11,5
Gizarte-eskubideak	4,9
Nazioarteko jarduerak ³⁹	1,5
Sailkatu gabekoak	0,2
GUZTIRA	100,0


Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Bilakaera

Euskal elkarkidetasunaren egiturak bilakaera konstantea erakusten du bere erakundeen kopuruari dagokionez. EAEn dauden elkarten kopurua, aurreko ataletan esanenez, %37 areagotu da 1996-2002 bitartekoan zehar. Baina fenomeno hori ez da berariaz EAEkoa, berrogeiko hamarkadatik hona erregistratu diren elkarte berrien kopuruak izan duen bilakaera erakusteko egin den honako grafikoan ikus daitekeenez.

13. grafikoa

ELKARTEEN HAZKUNDEAREN BILAKAERA, HORIEK IZENA EMAN DUTEN DATAREN ARABERA, ESPAINIAN ETA EAEN (%)



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

39. Nazioarteko elkartasuna.

INCPO (Irabazi Asmorik gabeko Erakundeen Nazioarteko Sailkapena) sailkapenari kasu eginez, bereziki nabarmentzen dira kultura- eta aisialdi-jarduerak egiten dituztenak, horiek hartzen baitute guztiaren %54,51

4.2. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN GIZA BALIABIDEAK ETA FINANTZA-ITURRIAK

EAEko elkarten kopuruak izan duen hazkunde mamitsuak berarekin bat dakar giza baliabideak eta finantza-iturriak gehitu beharra. Bai euskal gizarteak bai herri-administrazioak geroz eta sentiberatasun handiago ari dira hartzen eta sektore honetara ematen dituzten laguntza handitzeko joera hartzen dute. Erakunde hauen giza egitura eta finantza-iturria eskura dituzten baliabideetan gauzatzen da, eta hori EAEko BPGaren %6,8koa dela kalkulatzen da.


Giza baliabideei dagokienez, bereiztu egin behar dira alde batetik bazkideak, bestetik boluntarioak eta, azkenik, soldatapekoak.

Bazkideak

Nagusi dira, giza baliabide mugatuak dituztelarik, 11-100 bitarte bazkide dituzten erakundeak. Erakundeen %1 bakarrik iristen da 10.000tik gora bazkide edukitzera.

14. grafikoa

EAE. ELKARTEEN BANAKETA BAZKIDE-KOPURUAREN ARABERA



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Erakunde gehienak 11tik 100 bazkideko tartean daude. Sektorea, hortaz, arketipikoa dela esan dezakegu: oso tamaina txikiko elkarteak dira (gutxi gorabehera, bat hamarreko) gutxienak; gehienak (guztien erdia gutxi gorabehera) tamaina ertain-txikikoak dira, eta bada-go beste tarte bat (erakunde guztien herena hartzen du) erakargarri bihurtu dena biztanleria handiago batentzat. EAEn, behintzat, gutxi dira tamaina handiko erakundeak, hau da, 10.000 bazkideetik gora

Nagusi dira, giza baliabide mugatuak dituztelarik, 11-100 bitarte bazkide dituzten erakundeak

dituztenak. Laburbilduz, bada, EAEko irabazi asmorik gabeko sektorearen ezaugarri dira xedearen ugaritasuna eta tamaina txikiko elkar-teen oparotasuna.


Nahiz eta hori horrela izan, irabazi asmorik gabeko erakundeek 2.188.718 kuota batzen dituzte; eta kontuan izanik jende asko elkar- bat baino gehiagotan izena emanda dagoela, esan daiteke guztira 758.172 lagun (18 urtetik gorako biztanleriaren %44,1) daudela irabazi asmorik gabeko erakunderen batean sartuta.

Boluntariotza

Irabazi asmorik gabeko erakunde guztietan boluntarioak egotea ez da nahitaezkoa ez betekizun unibertsala, baina erakunde gehie- nek dute boluntarioen nolabaiteko laguntza, nahiz eta erakunde horietan ari diren boluntarioen kopurua txikia izan. Zazpi erakun- detik batek bakarrik gaitzesten du boluntarioen laguntza. Erakun- dearen barruan boluntarioak dituztenen artean gehienak 10 lagu- netik beherakoak dira eta ondoren datoz 10etik 50 boluntario bitar- te dituztenak.

15. grafikoa

EAE. ELKARTEEN BANAKETA BOLUNTARIO-KOPURUAREN ARABERA



Iturria : El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Oro har, erabilitako erreferentzia-iturriaren arabera, irabazi asmorik gabeko euskal erakundeetan 219.937 boluntario ari dira, gutxienez hilean ordu bete egiten dutenak erakundearen xedeko lanetan. Zenba- teko horien arabera, 18 urtetik gorako biztanleriaren %12,8k bere aisialdiaren zati bat ematen du irabazi asmorik gabeko erakunderen batean. Boluntario-laguntza handiagoa ematen dutenak (hilean gutxie-

Zazpi erakundetik batek bakarrik gaitzesten du boluntarioen laguntza. Erakundearen barruan boluntarioak dituztenen artean gehienak 10 lagunetik beherakoak dira eta ondoren datoz 10etik 50 boluntario bitarte dituztenak

Oro har, erabilitako erreferentzia-iturriaren arabera, irabazi asmorik gabeko euskal erakundeetan 219.937 boluntario ari dira, gutxienez hilean ordu bete egiten dutenak erakundearen xedeko lanetan

nez ere hamasei ordu) 50.480 (18 urtetik gorako biztanleriaren %2,9) inguru dira; horiek jotzen dira zentzu hertsian boluntariorzat.

Soldatapekoak

Aipatutako iturriari jarraikiz, irabazi asmorik gabeko euskal erakundeek %16,8k langileren bat dute kontraturik lanaldi osoz, eta %25,5ek denbora partzialez.

29. taula

EAE. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN BANAKETA KONTRATUTAKO ENPLEGU-BOLUMENAREN ARABERA

Lanaldi osokoen enplegu maila	%	% metatua
Batere ez	83,2	83,2
10etik behera	11,1	94,3
10etik 49ra	4,2	98,5
50etik 100era	0,3	98,8
100dik gora	1,2	100,0
Denbora partzialeko enplegu maila	%	% metatua
Batere ez	74,5	74,5
10etik behera	24,0	98,5
10etik 49ra	1,3	99,8
50etik 100era	0,2	100,0
100dik gora	0,0	100,0

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

EAEko irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeek 65.392 lagun dauzkate kontraturik, hau da, EAEko biztanleria aktiboaren %7 gutxi gorabehera. Horietatik, %70 inguruk (45.430 lagun) lanaldi osorako kontratua dute, eta gainontzeko %30ek (19.962 lagun) denbora partzialekoa.

Hori guztia lanaldi osora itzuliko bagenu, EAEko irabazi asmorik gabeko sektoreak sortzen duen soldatapeko enplegua, oro har, 55.411 lagunekoa izango litzateke, edota bestela esanda, EAEko enpleguaren %6,8.

Finantza-baliabideak

Irabazi asmorik gabeko euskal erakundeek aurrekontua gutzira –betiere aurreko atalean aipatu dugun erreferentzia-iturrian

EAEko irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeek 65.392 lagun dauzkate kontraturik, hau da, EAEko biztanleria aktiboaren %7 gutxi gorabehera

Hori guztia lanaldi osora itzuliko bagenu, EAEko irabazi asmorik gabeko sektoreak sortzen duen soldatapeko enplegua, oro har, 55.411 lagunekoa izango litzateke, edota bestela esanda, EAEko enpleguaren %6,8

egin diren aitorpenen arabera, ia 2.620 milioi eurokoa da, hau da, EAEn sortutako BPGaren %6,8. Azterketa erakunde bakoitzaren aurrekontura bideratzen badugu, Euskal Autonomia Erki-degoko irabazi asmorik gabeko erakunde gehienek hogeita hamar mila eurotik (5.000.000 pezeta) beherako aurrekontua daukate beren xederako. Datu horrek adierazten duenez, EAEko irabazi asmorik gabeko erakundeek baliabide ekonomiko gutxi-rekin jokatzen dute.

30. taula

EAE. IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN BANAKETA URTEKO AURREKONTUAREN ARABERA (%)

Urteko aurrekontua. 2000. urtea	%	% metatua
30.000 €-tik behera	64,0	64,0
30.001 €-tik 60.000ra	14,2	78,2
60.001 €-tik 300.000ra	11,1	89,4
300.001 €-tik 600.000ra	4,7	94,1
600.001 €-tik 3.000.000ra	4,3	98,4
3.000.000 €-tik gora	1,6	100,0

Hala, erakundeen %64k 30.000 eurotik (5 milioi pezeta) beherako aurrekontua du urtean.

Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV. Cindes 2002. Bertan egina

Euskal erakundeen aurrekontu, gastu eta sarreraren azterketak erakunde horien tamaina txikia berretsi baino ez du egiten. Hala, erakundeen %64k 30.000 eurotik (5 milioi pezeta) beherako aurrekontua du urtean. Eta urtean 600.001 eurotik (100 milioi pezeta) gorako aurrekontua duten erakundeak ez dira %6ra iristen. Uste da dirukopuru txiki horrek ez duela aukerarik ematen gauza handiak egiteko ez eta mugaz gaindi urrutira iristeko ere

Zirkunstantzia hori bereziki nabarmentzen da ingurumenaren arloko elkarteetan, giza eskubideen defentsan ari direnetan, hala nola kultura- eta aisialdi-jardueretan ari direnetan, eta talde txiki batean izan ezik, egoera horrek erakusten duenez, elkarkidetasunak hainbat arazori egin behar dio aurre, bere eguneroko lana aurrera eramateko. Baina, egoera horren aurrean, distira bereziz nabarmentzen dira –aukera gehiago dituzte, hobeto antolatuta daude, eta konplexutasun eta profesionaltasun handiagoz jokatzen dute– gizarte-ekintzaren arloan ari diren elkarteak, horietako erdiak baino gehiagok 30.000 eurotik gorako aurrekontuak

dituztelako urtean; beste horrenbeste esan daiteke, elkarte horiek diru-sarreretara iristeko duten aukeraz.


Diru-sarreraren iturriak

Irabazi asmorik gabeko erakundearen diru-sarreraren egiturari buruzko iturri horrek gure esku jarri duen informazioa aztertuz, ondorengo banaketa egin daiteke. (Ikus 16. grafikoa).

Jende askok zalantzan jartzen du ondoko grafikoak adierazten duen egoera; horretan ikusten denez –elkarteen diru-iturri handienak erakunde publikoek ematen dituzte–, erakundeak lotuegi daude gobernuaren ekimenetara.

16. grafikoa

AZTERTU DIREN EUSKAL ERAKUNDEEK JASOTAKO DIRU PUBLIKOAREN ZENBATEKOAK (%)⁴⁰



Iturria: El Sector No Lucrativo en la CAPV, Cindes 2002. Bertan egina

II. BLOKEA

GIZARTE-EKIMENEN IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREA EAE-N

Aurreko lerroetan jada adierazi denez, “hirugarren sektorea” eta “irabazi asmorik gabeko sektorea” termino biak, bata zein bestea, gauza bera adierazteko sinonimotzat erabiltzen badira ere, “irabazi asmorik gabeko sektorea” generikoak “gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorea” termino espezifikoak adierazten duen bestelako errealitatea adierazten du. Lehenak entitate-multzo handi eta heterogeneoagoa adierazten du; bigarrenak, berriz, entitate gutxiago baina homogeneoagoak biltzen ditu.

40. 231 euskal elkartek emandako datuak.

Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektoreak, teorikoki, de facto baztertuta dauden, edota baztertuta gelditzeko arriskua duten, pertsona eta komunitateei zerbitzu eta arreta emateko xede nagusia duten erakundeak hartzen ditu bere baitan

Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektoreak, teorikoki, *de facto* baztertuta dauden, edota baztertuta gelditzeko arriskua duten, pertsona eta komunitateei zerbitzu eta arreta emateko xede nagusia duten erakundeak hartzen ditu bere baitan.

4.3. GIZARTE-EKIMENENKO IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN EZAUGARRIAK

Lan honetarako erabili dugun informazio-iturriak Gizarte Ekimeneko Irabazi Asmorik gabeko Erakundeei (GEIAE) buruz nabarmentzen dituen ezaugarrietan lehena da heterogeneotasuna eta aztertu diren ia erakunde guztien egituraren ikusten den txikitasuna. Ezaugarri dute, halaber, gure gizarteko korrante globalizataileenganako enpatia eta ia denak beren jatorriko nukleo lokalaren ideologian dituzte sustraiak.

Aipameneko azterlanean adierazten denez, elkarre horiek txikiak izaten dira, baina ez oso konplexuak antolamenduari dagokionez; gai jakin baten inguruan espezializatzeko joera dute, eta gainera, gehienak udalerri edo eskualde bateko lurraldearen barruan kokatzen dira.

Oro har, beren lana elkarteko bazkideen alde bideratzen bada ere, talde handiagoen arazoak konpontzeko eta gizarte ongizatea bultzatzeko laguntza ematen dute, eta lortzen dituzten emaitzak taldeaz haraindi eramaten dituzte eta komunitate osora hedatzen laguntzen.

Guztiak bat egiten duten lana mesedegarri da herri eta hirietako erakundeak elkartzen dituen bilbe sendoa eratzeko; azken batean, gizarte indartsuago eta eratuago antolatzeko. Beren ikuspegi partikularistaz eta kolektibo txikien interes bereziak defendatzeaz lortu nahi duten helburuak, aldi berean, giza arlo zabalagoen ongizatea areagotzeko behar den elkartasuna bultzatzen du. Tokian tokiko erakundee-tako zelulak sarri eskualdeko sare bihurtzen dira eta horiek, geroko bilakaeraren ondorioz, estatuen mugak gaingitu eta nazioarteko gobernuz kanpoko erakunde (NGKE) bihurtzen dira.

Askotan benetako enpresa-zerbitzu bezala funtzionatzen dute, eta beren ezaugarriak gehiago hurbiltzen dira enpresen ezaugarrietara gobernuz kanpoko erakundeenetara baino. Beste batzuetan, ordea, administrazio eta finantzari dagokionez sektore publikoari geroz eta lotuago eta menperatuago joaten direnez (zerbitzuen zeharkako kudeaketa eta sektore publikoaren eskutik jasotzen duten diru-laguntzak direla bide), ezabatu egiten dira enpresa eta gobernuz kanpoko erakundeen arteko mugak.

Bestalde, erakunde horien ezaugarri berezi, deigarri eta agerienak honako arrazoietan dute jatorria:

Euskadiko irabazi asmorik gabeko erakunde guztiek batera egiten duten lana mesedegarri da herri eta hirietako erakundeak elkartzen dituen bilbe sendoa eratzeko; azken batean, gizarte indartsuago eta eratuago antolatzeko

Heterogeneotasuna, beren gizarte-zerbitzuen eskaintzak barnebiltzen dituen helburuei dagokienez. Ez litzateke gehiegikeria handia izango honako baieztapena egitea: gizartean ematen diren premia guztiei erakunderen bat dagokie, premia horri erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko xedea duena: immigranteen elkarteak, gaixoenak eta gaixoen familiakoenak, ezinduenak, alargunenak, adinduenak, emakumea sustatzearen aldekoak direnak, nazioarteko elkartasuna bultzatzen dutenak, eta abar.

Ezberdintasuna, erakunde bakoitzaren biografia instituzionalean; hala, badira erakunde batzuk mendea bete dutenak eta beste batzuk sortu berriak direnak, horietako batzuk gainera 2000. urteaz geroztik eratutakoak (Aexme, Ibar nagusien etxea, Alboan viudos, eta abar).

Aniztasuna, bai bazkide-kopuruari dagokionez bai aurrekontuen zenbatekoari dagokionez. Erakunde batzuk, adibidez, Guretze Gorria, Intermon, ANESVAD, Eskuak Elkarturik, Ayuda en Acción eta Médicos sin Fronteras, milaka bazkidekoak dira, eta beste batzuk, milaka direnak, beren bazkideen (hamarka edo ehunka batzuk baino ez) kuotekin baizik ez dabilta, eta bazkideek ordaintzen duten kuota hori gainera gehienetan zenbateko sinboliko hutsa izaten da.

Anbiguotasuna, batez ere instituzioei begira; kontuan izan behar baita, erakunde hauek gobernuz kanpokotzat jotzen dutela beren burua eta aldi berean, gauza askotan, Administrazioaren gizarte-politikaren “esku gauzatzaile”en eginkizuna betetzen dutela. Horren adibidetzat aipatzen da, alde batetik, gizarte-ekimenerako irabazi asmorik gabeko erakunde (GEIAE) askok fondo publikoei zor dien menekotasuna; eta bestetik, erakunde horien espezializazioa zenbait zerbitzuetan, esaterako, Ongizate Estatuaren kontzepzio klasikoan Herri-Administrazioek eman beharko lituzketen zerbitzuetan.

Espezializazioa zerbitzua ematerakoan. Gizarte-zerbitzuei, nazioarteko elkartasunari eta garapenaren laguntzari dagokienez, eginkizunak bereizteko joera ikusten da geroz eta garbiago. Administrazioak eginkizunak arautu, finantzatu eta kontrolatzeko erantzukizuna bereganatu du, eta irabazi asmorik gabeko erakundeek (IAE) zerbitzuak emateaz arduratzen dira. Horrela jokatzearekin, bestalde, eginkizunak bikoiztea ekiditen da eta baliabide publikoak hobeto banatzen.

Lan honetarako erabili ditugun iturrien egileen aburuz erraz egiaztatu daitezkeen ezaugarri horiez gain, badira, aurrekoak bezain garrantzitsuak direlarik, **argitu beharra duten beste ezaugarri batzuk**, adibidez:

Gizartean ematen diren premia guztiei erakunderen bat dagokie, premia horri erantzuteko zerbitzuak eskaintzeko xedea duena

Kostua/eragingarritasuna erlazioa. Hori benetan baloratzeko ez dago oraindik ikerlan eta txosten fidagarririk (ez dago ezta ere erabiltzaileen asegarritasun mailari buruzko ezagupen kontrajarririk ere). Hala ere, esan daiteke, hurbilpen bat egin daitekeen kasuetan oso emaitza onak ikusten direla.

Beren zerbitzuak ematerakoan erakunde hauen abantaila-egoera nabarmenarazten duten ezaugarriei dagokienez, hiru ezaugarri berezi aipa daitezke; nolana ere, ezaugarri horiek ez dira beste inguru administratiboetan ikusten direnetatik oso bestelakoak:

- **Espezifikotasuna**, are espezifikagoak diren erakundeak geroz eta gehiago direlako, erakunde horiek hartzaile mota konkretuetara bideratzen direla, adibidez, ezintasunen bat dutenak, droga-menpekotasuna dutenen familiakoak, eta abar.
- **Azkartasuna**, zerbitzuak eratu eta ezartzerakoan azkar jokatzeko dutelako; erakunde hauek beren zerbitzuak eskatzen dituztenen eskarietara egokitzen dira eta ez dute loturarik administrazioaren burokraziarekin.
- **Herrian sustraitua** daude, eta horrek hurbiltasun bat ematen die beren jatorriko gizarte-inguruarekiko. Herritarren benetako eskaerak ere hobeto ezagutzen dituzte; era honetako erakundetzat jo beharko genituzke, adibidez, auzo elkarteek sortzen dituzten zaharren egoitzak.

4.4. GIZARTE-EKIMENEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK (GEIAE)

Azterlan honetarako erabili dugun erreferentzia-iturriak jada aipatu den “gizarte-ekimena” definizio operatiboarekin bat datozen erakundeak bereizi ditu erakunde-multzo osotik. Horretarako, kategoria bakoitza eta sarritan erakunde indibidualizatu bakoitza aztertu ondoren, aipatu erreferentzia-iturriak EAEn⁴¹ dauden eta diharduten (zuzenean edota ordezkartzean) GEIAEn inbentarioa egin du fidagarritasun (bere ustez) nahikoaz. Inbentario horrek honako tipologietan sailkatu ditu erakundeak:

41. P Horretarako, honako azterketa egin da Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Fundazioen Erregistro Ofizialean:

- a) Elkarrekin dagokienez, 1. taulako 3., 4. eta 8. motatakoen barruan azpimota egokiak aukeratu dira, eta horietatik 1.414 baino ez dira aukeratu, betiere erakunde bakoitzaren azterketa indibiduala egin ondoren.
- b) Fundazioei dagokienez, antzeko arazketa egin da banan bana, eta guztira 74 erregistratu “gizarte-ekimen”ekotzat.

Beren zerbitzuak ematerakoan erakunde hauen abantaila-egoera nabarmenarazten duten ezaugarriei dagokienez, hiru ezaugarri berezi aipa daitezke: espezifikotasuna, azkartasuna eta herrian sustraiturik egotea

Alabaina, eremu geografiko horren muga hertsia bateragarriak gertatzen dira oso helburu ugartasun handi batekin eta programen heterogeneotasunarekin, hau da, gizarteko beharrezan 31. taula


EAE . GIZARTE-EKIMENEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN (GEIAE) TIPOLOGIA

Tipologia	Kopurua	%
Elkartek	1.414	90,12
Fundazioak	74	4,72
Kooperatibak	41	2,61
Erakunde erlijiosoak	37	2,36
Aurrezki kutxen gizarte-ekimenak	3	0,19
GUZTIRA	1.569	100,00

Iturria: El sector no lucrativo de acción social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza- Edex 2003. Bertan egina

17. grafikoa

EAE. GEIAE-N BANAKETA ARATUTAKO KOLEKTIBOEN ARABERA (%)



Iturria: El sector no lucrativo de acción social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex 2003. Bertan egina

Gizarte-sektoreko erakunde zati handi batek, dela ekimenik ez dagoelako dela bestelako arrazoi batzuk tarteko, ez du onarpen ofizialik, herri erabilerako entitate bezala, PFEZaren %0,52tik eratorritako gizarte-funtsaren banaketan parte hartzeko. Erakunde horietako hirutik batek baino ez du herri erabilerako onarpen ofiziala

- c) Kooperatibei dagokienez, guztira 1.279 dira, eta horietatik aukeratu den egokien zerrendan sartu ditugu edo "herriaren intereseko"tzat jo direnak (21), edo berariaz gizarte-ekimenerako erakunde bezala erregistratu direnak (20); horrela, 41 kooperatiba aukeratu dira.
- d) Profesionalen elkargoei dagokienez, erregistro berri honetatik kanpo gelditu dira guztiak definizio operatiboan sartzen ez direlako.
- e) Kirol erakundeetara dagokienez, profesionalen elkargoei buruz erabilitako irizpide berberak erabili ditugu.
- f) Erakunde erlijiosoei dagokienez, guztira 821 badira ere, 37 baino ez ditugu aukeratu sailkapen honetarako, beste guztiak ez direlako sartzen definizio operatiboan.

aniztasunari edota bazterketa egoerari erantzun bat emateko borondatearekin; azken finean, beren jardueren helburuekin. Esan ohi da, ez funtsik gabe, gutxienez gure erkidegoari dagokionean, gizarte-bazterketa mota guztietako protagonistek daukatela irabazi asmorik gabeko erakunderen bat atzetik, eta horrek arrakasta handiago edo txikiagorekin, ahalegin guztiak egiten duela bazterketa egoera hori arintzeko. Eta hori argi eta garbi ikusten da sektore honek artatzen dituen kolektibo motak aztertuz gero. Gizarte-ekimeneko euskal sektorearen jarduna, izatez, era askotako giza kolektiboetara bideratzen da, eta horiek guztiak ari dira gizarte-bazterketa edo alboraketa jasaten.

4.5. GIZARTE-EKIMENEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN GIZA BALIABIDEAK ETA FINANTZA-BALIABIDEAK

Elkarteen jardueraren xede diren tarte sozialetan ematen den heterogeneotasunaren eta aniztasunaren arteko kontraesana, alde batetik, eta bestetik, jarduera horretarako eratutako erakunde korporatiboen txikitasun geografikoa zein administratiboa, benetan deigarriak gertatzen dira erakunde horien tamaina eta egitura (giza baliabideei eta finantza-baliabideei dagokienez) kontuan hartzen badira.

Bazkideak

Hogei euskal erakundetik batek bakarrik dauzka mila bazkidetik gora, eta lautik batek bakarrik gaintitzen du 500 bazkideko kopurua. Kontrako muturrean, zortzi erakundetik batek hamar bazkide baino gutxiago dauzka, eta lautik bat 25 bazkidetik beherakoa da. Hiru erakundetik batek 50 bazkide baino gutxiago dauzka, eta bitik bat 100dik beherakoa da.

Euskal elkarteetan %70ek 200 bazkidetik behera dute, eta %95ek 1.000 bazkide baino gutxiago.

Elkarte txikien nagusitasun horrek ez du esanahi EAeko gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorean diharduten erakundeetako bazkideen baturak txikia izan behar duenik, 418.440 lagunekoa baita. Zifra horri dagokionez, esan behar dugu nahiko garrantzitsua dela, batez ere kontuan izaten badugu EAEn 18 urtetik gorako populazioa zazpiehun mila ingurukoa dela.

Gizarte-ekimeneko euskal sektorearen jarduna, izatez, era askotako giza kolektiboetara bideratzen da, eta horiek guztiak ari dira gizarte-bazterketa edo alboraketa jasaten

32. taula

EAE. GEIAEN BANAKETA BAZKIDE-KOPURUAREN ARABERA (%)


Bazkide-kopurua	Número de	%	% metatua
10etik behera		12,6	12,6
10etik 24ra		13,6	26,2
25etik 49ra		10,2	36,4
50etik 99ra		17,6	54,0
100dik 199ra		16,2	70,2
200dik 499ra		15,7	85,9
500dik 999ra		9,4	95,3
1.000tik 1.999ra		2,0	97,4
2.000tik 4.999ra		1,8	99,2
5.000etik 9.999ra		0,3	99,6
10.000 edo gehiago		0,4	100,0

Euskal elkarteen %70ek 200 bazkideetik behera dute, eta %95ek 1.000 bazkide baino gutxiago

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza-Edex 2003

18. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA BAZKIDE-KOPURUAREN ARABERA



Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza- Edex 2003. Bertan egina

Garbi dago bazkide askok erakunde bat baino gehiagotan ematen duela izena; horren ondorioz, erakundeetako bazkideen (edo kuoten kopurua) batura ez dator bat erakunderen batean izena emandakoen (horiei “bazkide-kopurua deituko diegu) zen-

batekoarekin. Irabazi asmorik gabeko erakunderen batean bazkide direnen kopurua kalkulatzeko, aurrean aipatu dugun erreferentzia-iturriak kuota-kopurua eta erakunde bat baino gehiagotan dabilzanen indizea erkatu ditu.

Horrela, Euskadin GEIAEtan aridiren bazkide guztien kopurua atera da; eta hori 181.185 lagunekoa da, hau da, EAEn bizi den 18 urtetik gorako biztanleriaren %10,5 inguru.

Boluntarioak

Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen barruan ari den bigarren kolektiboa giza baliabideek osatzen dutena da, zentzu zabalean zein hertsian⁴² boluntariotzat jotzen direnena.

Boluntarioen kopuruari dagokionez ere euskal elkarteek oro har kopuru txikiak dituzte. Boluntario hitzaren adierazpen zabalena erreferentziatzat hartuz, hau da, bere aisialdiaren zati bat (nahiz eta hilean ordu bat bakarrik izan) irabazi asmorik gabeko erakunderen batean ematen duena, erreferentzia-iturriak adierazten du bost erakundetik batek ez duela boluntario bakar batik ere, eta ia erdiak hamar baino gu-

EAEn gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektoreko erakundeetan erregistratuta dauden bazkideen batura guztira 418.440 ingurukoa da; zenbateko hori garrantzitsutzat jotzen da, batez ere kontuan hartzen badugu EAEn 18 urtetik gorako biztanleria 1.700.000 ingurukoa dela

33. taula

EAE. GEIAE-N BANAKETA ZENTZU ZABALEKO BOLUNTARIO-KOPURUAREN ARABERA

Boluntarioak zentzu zabalean	%	% metatua
Batere ez	20,8	20,8
10etik behera	27,5	48,3
10etik 24ra	26,3	74,6
25etik 49ra	11,9	86,5
50etik 99ra	4,6	91,1
100dik 199ra	5,7	96,8
200dik 499ra	2,1	98,9
500dik gora	1,1	100,0


Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzaren Edex 2003

42. Irabazi asmorik gabeko sektoreari buruz BBVA Fundazioak erabilitako metodologia jarraituz *sensu lato* boluntariotzat jotzen dugu bere denbora eta lana eskaintzen diozkiona irabazi asmorik gabeko erakunderen bati, betiere denbora hori gutxienez hilean ordu batekoa bada; *sensu stricto* boluntariotzat jotzen dugu, ordea, erakundeari astean lau ordutik gora eman dizkiona.

txiago duela. Aztertutako erakundeen lautik hiru 25 boluntariotik behera dabil, eta hamarretik batek bakarrik dauka 100 boluntariotik gora.

19. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA ZENTZU ZABALEAN BOLUNTARIOAK DIRENEN KOPURUAREN ARABERA (%)



Bost erakundetik batek ez du boluntario bakar batik ere, eta ia erdiak hamar baino gutxiago du

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzaren Edex 2003. Bertan egina

34. taula


EAE. GEIAEN BANAKETA ZENTZU HERTSIAN BOLUNTARIOAK DIRENEN KOPURUAREN ARABERA (%)

Boluntarioak zentzu hertsian	%	% metatua
Batere ez	31,4	31,4
10etik behera	41,4	72,8
10etik 24ra	14,2	87,0
25etik 49ra	8,2	95,2
50etik 99ra	1,6	96,8
100dik 199ra	1,4	98,2
200dik 499ra	1,4	99,6
500dik gora	0,2	99,8
Ez da agertzen	0,2	100,0

Iturria: El sector no lucrativo de acción social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzaren Edex 2003. Bertan egina

20. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA ZENTZU HERTSIAN BOLUNTARIOAK DIRENEN KOPURUAREN ARABERA (%)



57.846 lagun dira EAEn hilean gutxienez ordu bat ematen dutenak boluntario-lanetan gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakunderen batean. Horietatik %26k (13.250tik gora lagun) astean lau orduetik gorako lana egiten du boluntario bezala erakunderen batean

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza- Edex 2003. Bertan egina

Azterlanean esaten den bezala guztira 57.846 lagun dira EAEn hilean gutxienez ordu bat ematen dutenak boluntario-lanetan gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakunderen batean. Horietatik %26k (13.250tik gora lagun) astean lau orduetik gorako lana egiten du boluntario bezala erakunderen batean. Boluntario lanetan diharduten horietatik gehienak, aldi berean, irabazi asmorik gabeko erakundeetako boluntarioak edota bazkideak dira. Hori bai, bazkide horiek lotura handia dute erakundearen egiturarekin; bazkide horiek ez dira mugatzen izena emate hutsera edota bazkidekuota ordaintzera.

Enplegua

Hirugarren kolektiboa irabazi asmorik gabeko erakundeetan egiten duten lanagatik ordainsaria jasotzen duten langileek osatzen dute. Erakundeen %33,8k badute norbait kontraturik lanaldi osorako eta beste bat denbora partzialerako.

Halako enplegua ematen duten erakunde txikiek, gehienek, denbora partzialerako kontratuak dituzte; erakunde handietan, ordea, gehiago dira lanaldi osoko kontratupean ari direnak.

35. taula


EAE. GEIAEN BANAKETA LANALDI OSOKO ENPLEGU MAILAREN ARABERA (%)

Lanaldi osoko enpleguak	%	% metatua
Batere ez	66,2	66,2
10etik behera	20,6	86,8
10etik 49ra	11,8	98,6
50etik 100era	0,2	98,8
100dik gora	1,2	100,0

Iturria: El sector no lucrativo de acción social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza- Edex 2003.

21. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA LANALDI OSOKO ENPLEGU MAILAREN ARABERA (%)



Iturria: El sector no lucrativo de acción social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza- Edex 2003. Bertan egina

36. taula

EAE. GEIAEN BANAKETA DENBORA PARTZIALEKO ENPLEGU MAILAREN ARABERA (%)


Denbora partzialeko enplegua	%	% metatua
Batere ez	61,8	61,8
10etik behera	33,8	95,6
10etik 49ra	3,3	98,9
50etik 100era	1,1	100,0
100dik gora	0,0	100,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex 2003

Erakundeen %33,8k badute norbait kontraturik lanaldi osorako eta beste bat (%38,2k) denbora partzialerako

22. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA DENBORA PARTZIALEKO ENPLEGU MAILAREN ARABERA (%)



Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza - Edex 2003. Bertan egina

EAEen gizarte-ekimeneko arloan ari diren irabazi asmorik gabeko erakundeek 18.612 langile dituzte guztira, hau da, EAEko biztanleria aktiboaren %2 gutxi gorabehera. Horietatik guztietatik bi heren inguruk (ia 12.288 lagun) lanaldi osoko kontratua dute, eta hirugarren herenak (ia 6.324 lagun) denbora partzialekoa. Zenbateko horiek guztiak lanaldi osoko jardunera itzuliz, erakunde hauek guztira sortzen duten enplegua 15.450 lanpostu inguru dabil, hots, EAEko lan eskaintza orokorraren %1,9.

Finantza-baliabideak

Orain arteko erreferentzia-iturri berari jarraiki, irabazi asmorik gabeko sektoreak EAEen 520 milioi euroko (86.500 milioi pezeta inguru) aurrekontua dauka, hau da, EAEen sortutako BPGaren %1,4 gutxi gorabehera.

Giza baliabideak aztertzerakoan ikusi dugunez, erakundeak txikiak izatean arlo honetako elkarkidetasunaren aurrekontua ere apala gertatzen da, horien banakako aurrekontuen batuketaz ateratzen dena delako. 2000. urtean ia erakundeen erdiak 30.000 eurotik (5 milioi pezeta) beherako aurrekontua zeukan, eta %15ek bakarrik gainditzen zuen 300.000 euroko (50.000 milioi pezeta) aurrekontua.

Zenbateko horiek guztiak lanaldi osoko jardunera itzuliz, erakunde hauek guztiak sortzen duten enplegua 15.450 lanpostu ingurukoa da, hots, EAEko lan eskaintza orokorraren %1,9

37. taula

EAE. GEIAEN BANAKETA AURREKONTUAREN ARABERA (%)


Urteko aurrekontua. 2000. urtea	%	% metatua
30.000 €-tik behera	49,2	49,2
30.001etik 60.000 €-ra	17,9	67,1
60.001etik 300.000 €-ra	18,0	85,1
300.001etik 600.000 €-ra	7,5	92,6
600.001etik 3.000.000 €-ra	5,4	98,1
3.000.000 €-tik gora	1,9	100,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza- Edex 2003

Irabazi asmorik gabeko sektoreak EAEn 520 milioi euroko (86.500 milioi pezeta inguru) aurrekontua dauka, hau da, EAEn sortutako BPGaren %1,4 gutxi gorabehera

23. grafikoa

EAE. GEIAEN BANAKETA AURREKONTUAREN ARABERA (%)



Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza- Edex 2003. Bertan egina

Honako adierazleen taulan orain arte ikusitakoaren panoramika erakusten da:

38. taula

EAE. PISU-RATIOAK ETA GEIAEN ESANAHIA

Ratioak	Irabazi asmorik gabeko sektorea %	GEIAE %
Ratioa, bazkideak/biztanleria >18	44,1	10,5
Ratioa, boluntarioak zentzu zabalean/ biztanleria>18	12,8	3,4
Ratioa, boluntarioak zentzu hertsian/ biztanleria>18	2,9	0,8
Ratioa, enplegua/biztanleria aktiboa	7,0	2,0
Ratioa, lanaldi osoaren enplegu baliokidea/ lanaldi osoaren enplegu baliokidearen eskaintza	6,8	1,9
Ratioa, aurrekontua/BPG	6,8	1,4

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza- Edex 2003. Bertan egina

39. taula

IRABAZI ASMORIK GABEKO SEKTOREAREN ETA GIZATE EKIMENEN HIRUGARREN SEKTORAREN PANORAMIKA EAEN

Adierazleak	Irabazi asmorik gabeko sektorea	GEIAE	GEIAE/Irabazi asmorik gabeko
Erakunde-kopurua	20.137	1.569	7,8
Kuota-kopurua	2.188.718	418.440	19,1
Bazkide-kopurua	758.172	181.185	23,9
Boluntarioak zentzu zabalean	219.937	57.846	26,3
Boluntarioak zentzu hertsian	50.408	13.258	26,3
Guztira boluntarioak	225.345	71.104	31,5
Lanaldi osoko enplegua	45.430	12.288	27,0
Denbora partzialeko enplegua	19.962	6.324	31,7
Guztira enplegua	65.392	18.612	28,5
Lanaldi osoaren enplegu baliokidea	55.411	15.450	27,9
Aurrekontua (euroak milioietan)	2.620	519	19,8

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex 200

*5. Gizarte-ekimeneko irabazi
asmorik gabeko sektorearen
dinamikak EAEn*

5. Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen dinamikak EAEn

Ondoko orrialdeetan zehar EAeko gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektoreari buruz egindako ikerlan baten emaitza batzuk ikusiko ditugu; lan hori aipatu dugu jada aurreko orrialdeetan. Oraingo honetan, sektorean atzemandako indarguneak eta ahuluneak aztertuko ditugu bereziki, eta horiekin bat gaia miatzeko ikuspuntu berriak gehituko ditugu. Eginkizun horretan jite kualitatiboa izango dugu kontuan gehienbat. Hala, orain arte eman diren aurrerakuntzak eta etorkizunari begira dauzkagun erronkak izango ditugu hizpide.

5.1. ESPARRU OROKORRA

Ezingo da ukatu gizarte-eskubideen defentsarako erakundeak, gizartearen beste edozein laguntzarako direnak bezala, erakunde “aitzindari”ak izaten direla jarduera kolektiboko programak eta proiektuak garatzerakoan.

Horrela, adibidez, immigranteen erakundeak geroz eta handiagoak diren immigrazio-fluxuek sortu berri duten egoerari erantzun bat emateko sortu dira bat-batean. Alabaina, jada aipatu dugun erreferentzia-iturriak adierazten duenez, gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakunde askok –guztien %20-%30 inguru– ez dute egitura eta eginkizun egokirik, aldaketa berrietara doitzen jakin ez dutelako edota, mugimendu sozial errebindikatzaileratik sortu direlarik, behin finkatu ondoren, ez dutelako jakin oligarkiaren tentaziotik ihes egiten, hau da, ezin izan dute ekidin Robert Michels-ek bere *Ley de hierro de las oligarquías* (Michels, 1983) lanean aipatzen duen bilakaera.

Gizarteari zerbitzuak eskaintzeko baliabide izateak berak gizarte-errebindikaziorako jitea galtzera eta kudeaketaz obsesionatzera bultzatzen ditu erakunde hauek; finantzaketa publikoa ziurtatzeak gehiago kezkatzen ditu, gizarteko errebindikazioak aurrera eramatea baino. Korporazio bezala izan duten arrakastak, alde batetik, “aktibista” bezala laguntzen die “elkarkidetasun-mugimendu”ekin duten loturagatik eta, bestetik, baliabide publikoen bidezko finantzaketara menderatzen ditu eta eskariak aholkularitza-kontseiluen laguntzaz bideratzea, eta abar.

Zerbitzuaren eta errebindikazioaren arteko anbiguotasun horren bigarren mailako eragina, aipameneko erreferentzia-iturriak adierazten duenez, aitzindarien haztegi bihurtzeko aukeran gauzatzen da. Aukera hori erraztasun handiagoz eskaintzen dute “interesak orde-

Gizarteari zerbitzuak eskaintzeko baliabide izateak berak gizarte-errebindikaziorako jitea galtzera eta kudeaketaz obsesionatzera bultzatzen ditu erakunde hauek; finantzaketa publikoa ziurtatzeak gehiago kezkatzen ditu, gizarteko errebindikazioak aurrera eramatea baino

katzeko eta defendatzeko plataforma” direnek “zerbitzu-hornikuntzarako agentzia” hutsak direnek baino. Aurrenekoek errebindikazio-erakundeak dira eta, ondorioz, gizarte-aitzindaritza eginkizuna betetzen dute; bigarrenek, ordea, errebindikazio-eginkizuna lausotuta daukate ia erabat, eta gehiago kezkatzen dira gizartean jarduten jarraitzeaz kolektiboren baten premiak bideratzeaz baino.

Ondoren, hirugarren sektore hau eratzen duten erakundeen “egoera puru”an dituzten ezaugarriak definitzera joko dugu, *constructo* edo eredu-ideal bezala (Max Weber-en metodologiari jarraikiz) aurkezteko eta gizartean dagokien errealitatea aztertzeke.

Hala, ondoko taulan laburtu ditugu eredu ideal horren ezaugarri nagusiak:

Irabazi asmorik gabeko eremuak, horrela, hainbat aukera eskaintzen ditu eta, aldi berean, erakundeen biziraupenerako eta garapenerako erronka bihurtzen diren hainbat arrisku sortzen ditu

EZAUGARRI NAGUSIAK

- Talde artifizialak dira eta gutxiengo iraupen eta antolamendu bat dute.
- Bertako kideek adostasun bat lortu dute helburu eta xedeei dagokienez.
- Legez bazkideek ezin dizkie etekinak banatu bazkideei (James eta Rose Ackerman, 1986).
- Kolektibo edo komunitateen ongizatea hobetu nahi dute, ez pertsona jakin batzuentzako onurak lortzea.
- Boluntarioak, edozein motatakoak, funtsezko baliabide dira beren egituran (Funes, 1993).
- Diru-sarrerak gutxi-asko dohaintza publiko zein pribatuen bidez lortzen dituzte (Martínez, J.L., 1994)
- Oro har, gizartean oinarritzen dira.
- Beren sustraiak elkarkidetasunaz eta altruismoaz elikatzen dira hein handi batean.
- Kolektibo edo komunitate gutxi-asko zabalduen interesak ordezkatzan dituzte.
- Erakunde pribatuak dira baina lagun hurkoari begira daudenak; nortasunari begira “publiko pribatuak” dira (Giner eta Sarasa, 1995); ondorioz, ez daude juridikoki eeri dministrazioari lotuta.
- Autonomoki gobernatzen dira, beren aginte-organoak dituzte eta ez daude kanpoko erakundeek kontrolaturik (Salomon eta Anheier, 1992).

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurjaritza-Edex, 2003

Bestalde, esaten da, beren anbiguotasuna onartuta ere, oro har ez estatuak ez merkatuak betetzen ez duten eremua mugatzen dutela, eta horretan zilegi dela interes kolektibo partikularrak zein jite orokorrekoak aldarrikatzea. Irabazi asmorik gabeko eremuak, horrela, hainbat aukera eskaintzen ditu eta, aldi berean, erakundeen biziraupenerako eta garapenerako erronka bihurtzen diren hainbat arrisku sortzen ditu.

5.2. AHULUNEAK ETA INDARGUNEAK

Iritzi publikoak eta eguneroko elkarrizketek erakunde hauei buruzko ahuleziak zein indarguneak aukeratu eta azpimarratzen dituzte. Gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeek ez daude kanpo gizarte-elkarrizketaren eta eguneroko elkarbizitzaren lege unibertsal horretatik. Hori horrela izateak, jakina, erraztu eta bideratu egiten du erakundeei buruzko estereotipoak aztertzea eta, egoki balitz, berrestea edo gaitzestea.

Gure lan honetarako gidatzat erabilitako erreferentzia-iturriak gizartean gehien hedatu diren estereotipoak hautatu ditu eta horiek EAEko gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeetan ari diren profesional eta arduradunetz osatutako lagin baten esperientzia eta eskarmentuarekin alderatu ditugu. Lan horren ondorioz, honako emaitzak jaso ditugu:

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
Isolamendua	Tokiko demokrazia
Baliabide gabezia	Profesionaltasuna
Gardentasun gabezia	Kostu txikiko eraginkortasuna
Burokraziakeria	Funtzioak/Disfuntzioak

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

AHULUNEAK

Estereotiporik ezagunenek gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen ahulezia instituzionalak deskribatzen dituzte, nolabait modu lausotu eta nahasian. Estereotipo horiek, oro har, sektorea milaka erakunde txiki eta isolatuetan zatiturik dagoen sektore bezala erakusten dute, iruzurrerako eta nepotismo ideologikorako erakunde egokitatzat; estereotipo horien arabera, erakunde horiek gidatzen dituzten aitzindariak ez dute etorkizunerako ikuspegirik eta ez dira ohartzen inolaz ere gizartearen aldaketak beren erakundeetan izan ditzakeen eraginaz. Sektore hau sektore publikoaren lankidetzaren administratiboaz mehatxaturik dago, hala nola egitura paternalista eta autoritarioaz, eta langile “sasi funtzionarioz” eta “ongintzako turistaz” beteta dago.

1. Isolamendua

Erakunde hauei sarri egozten zaizkien akatsetan nagusienetakoak badu zerikusik gizartetik isolatuta egotearekin; eta isolamendu hori maila askotan ematen da gainera. Kontuan izan behar da sektorea erakunde txiki eta, aldi berean, iraungigarri askotan zatituta egoteak ez

Estereotiporik ezagunenek gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen ahulezia instituzionalak deskribatzen dituzte, nolabait modu lausotu eta nahasian. Estereotipo horiek, oro har, sektorea milaka erakunde txiki eta isolatuetan zatiturik dagoen sektore bezala erakusten dute, iruzurrerako eta nepotismo ideologikorako erakunde egokitatzat; estereotipo horien arabera, erakunde horiek gidatzen dituzten aitzindariak ez dute etorkizunerako ikuspegirik eta ez dira ohartzen inolaz ere gizartearen aldaketak beren erakundeetan izan ditzakeen eraginaz

diela uzten beren izatea eta eragina nabarmenarazten, beren jarduera burutu nahi duten biztanleriaren baitan. Eta, horrekin batera, gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeek gizartean izan duten arrakastak beharrezkoak ez diren edota ezer egiten ez duten boluntarioen erakundeak ugaltzea ekarri du.

40. taula

ISOLAMENDUARI DAGOZKION EZAUGARRIAK

Isolamenduari lotutako ezaugarriak	% adostasuna
Lehiakortasuna ikuskatzen du, lan-metodoekin alderatuz	57,9
EAEEn loturak dauzka sektoreko beste erakunde batzuekin	88,6
EAEtik kanpo loturak dauzka sektoreko beste erakunde batzuekin	59,6
Gizartea sentiberatzen du arazo larrien gainean	70,0
Gizartean ondo sustraiturik dagoen sektorea	72,3
Erakunde txiki gehiegi sortu dira	21,1
Sektoreko erakunderik gehienak ez dira ezagunak	41,8

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

Gai honi dagokionez esan behar da erabateko irizpiderik ez dagoela erakundearen tamaina egokiena zein izango litzatekeen erabakitzeko, ez eta tamainaren eta eraginkortasunaren arteko erlazio positibo bat bermatzeko. Eta are gutxiago eraginkortasuntzat jotzen badugu zerbitzu bat, non pertsonen arteko hurbiltasuna eta berotasuna modu berezian baloratzen diren.

Milaka erakundetan banatuta egoteak, %41aren iritziz, erakundeak ezezagunak izatea eragiten du, eta ez bakarrik herritar gehienek oro har, baizik erakunde horien ekarpenaren xede diren gizarte tarteeke ere. Hala eta guztiz ere, %72k adierazten du erakunde horiek gizartean ondo erroturik dagoen sektorea osatzen dutela, eta gizartea sentiberatzeko gaitasuna dutela beren ekarpenaren garrantziari dagokionez.

Minierakunde hauek informazioa, esperientziak, planak, porrotak eta lorpenak elkarri trukatzeko nahiko trinkotasun handiz; azken finean sare trukaketa etengabeko sare bat osatzen dute, ez dira beraz elkarrekin zerikusirik ez duten erakundeak. %89k dioenez, harreman estuak dituzte antzeko jarduerak burutzen dituzten beste erakunde batzuekin. Eta, erakunde horietako %87k bere eraginak bere udalerrira mugatzen baditu ere, %60k adierazten du harreman iraun-

Milaka erakundetan banatuta egoteak, %41aren iritziz, erakundeak ezezagunak izatea eragiten du, eta ez bakarrik herritar gehienek oro har, baizik erakunde horien ekarpenaren xede diren gizarte tarteeke ere. Hala eta guztiz ere, %72k adierazten du erakunde horiek gizartean ondo erroturik dagoen sektorea osatzen dutela, eta gizartea sentiberatzeko gaitasuna dutela beren ekarpenaren garrantziari dagokionez

korrak dituztela EAetik kanpoko beste erakunde batzuekin. Hala, bakoitza bere tokian ondo erroturik, EAEn eta EAetik kanpo diharduten beste erakunde batzuekin harremanak edukitzeko komunikazio-sareak eratu dituzte.

Tamainarena zenbakietan jartzeak ez du esanahi erakunde hauek gizartetik isolatuta daudenik, ez beren xedeko gizartetik ez eta sektoreko beste erakundeetatik. Sektoreko arduradunek konbentzitura daude erakunde hauek gizartean izate handia dutela eta beren jardueren xedeko gizarteetan ondo sustraiturik daudela, horietako %72k egoitza duten tokian lan egiten duelako. Gizartea bere arazoetaz eta lankidetzaz sentiberatzeko gaitasuna dute %70ek; beren artean elkartasun- eta lankidetzaz-harremanak dituzte %88k; eta informazioa eta esperientziak elkarri etengabe trukutzen dituzte sarri, bata bestearen lehiakortasun profesionala alderatu eta neurtzeko.

2. Baliabide gabezia

Irabazi asmorik gabeko erakundeek ugalketak gorako joera erakusten du, eta joera horrek gainera ez du moteltzeko edo gelditzeko itxurarik ematen. Esan daiteke, beraz, erakunde horiek porrota baino gehiago arrakasta dutela, nahiz eta sarri ikusi erakunde horietako askok oso bizi laburra izaten dutela.

Erakundeak, izatez, gero eta gehiago dira baina gutxi dira tamainaz handitzen direnak. Egiturako murrizketa horrek ustez badu eragina erakundeek entitate indibidual bezala gizartean duten izatea mugatzen dutelako eta horien finantza baliabideak handitzea baldintzatzen dutelako. Baliabide eskasia horrek, bestalde, bide eman du erakunde hauek finantza-urritasun ikaragarrian bizi direla pentsatzeko eta, ondorioz, biziraupena ziurtatzeko ideologia-mendekotasunen bat dutela susmatzeko.

Hori horrela, esan behar da gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak eta antzeko erakundeak laguntza multzo handi baten xede direla, baina laguntza horiek arrisku handi batzuetara lotuta daudela, adibidez, politika publikoetan ematen diren aldatketetara eta aurrekontuetan eskuragarri egoten diren zuzkiduretara, edota kontratu, dirulaguntza, eta abar esleitzeko erabiltzen diren irizpideetara.

Baliabideak eskuratu beharraz baldintzatutako lankidetzaz erraz bihur daiteke instituzioen klientelismoa, batez ere koordinazio eta ordezkartzeko egitura egokirik ez dagoenean, horiek baitira botere publikoarekin negoziatzeko behar den indarra ematen dutenak.

Sektoreko arduradunek konbentzitura daude erakunde hauek gizartean izate handia dutela eta beren jardueren xedeko gizarteetan ondo sustraiturik daudela, horietako %72k egoitza duten tokian lan egiten duelako. Gizartea bere arazoetaz eta lankidetzaz sentiberatzeko gaitasuna dute %70ek; beren artean elkartasun- eta lankidetzaz-harremanak dituzte %88k; eta informazioa eta esperientziak elkarri etengabe trukitzen dituzte sarri, bata bestearen lehiakortasun profesionala alderatu eta neurtzeko

Erakundeak, iritzi horrekin bat etorriz, Estatuaren gizarte-politika gauzatzen duen indar bihur daitezke, baina instituzioen laguntzagatik ordaindu beharreko prezioa handia izan daiteke, eta batzuetan era askotako desorekak sor ditzake: kontrola eta klientelismoa; berebat, gerta daiteke gizarte-ekimeneko politikak korporazio eta mezenas handien esku utzi beharra sortzea. Gobernuaren aukeratzeko indarra nagusitzen denean kalte larriak eragiteko arriskua sor daiteke: klientelismoa eta gehiegikeriazko kontrola eta erakunde hauek duten jarrera kritikoari uko egin beharra. Horrenbestez, boluntariotzaren sektorea haztea nahi da, baina ez da aztertzen sektore hori nola ondu. Boluntarioen sektoreak, testuinguru honetan, larrialdiko zerbitzuaren jitea hartzen du; kalitate-kontrolari dagokionez bigarren mailakoa da, noizbehinka behar izaten dena: Boluntarioen sektorea, horrela, Estatuak bere eginkizunak bete ezin dituen erabiltzen da.

Beste azterketa batzuen bidez metatutako eskarmentuak, alabaina, esaten du erakunde asko eta asko baliabide publikoen sostenguz bizi direla, hein txiki batean bada ere, eta batez ere erakunde horiek gehiagotan estimatzen dutela arreta pertsonalizatua egitura korporatibo bezala beharko luketen tamaina eta eraginkortasuna baino. Berariaz tamaina txikikoak izatea onartzean, erakunde hauek hainbat arrisku baztertzen dute, hala nola, mendekotasunaren arriskua, nepotismo ideologikoa, administrazioaren zerbitzu bihurtzea, eta abar.

41. taula

BALIABIDE GABEZIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK

Baliabidegabeziari dagozkion ezaugarriak	% adostasuna
Baliabide eskasia erakusten du beti	33,1
Morrontza ideologikoa ikusten zaio	8,7
Jardueretan ez du jarraikortasunik erakusten	19,1
Beste erakunde batzuen kontra ari da etengabe	14,8
Epe luzeko programetan ezintasuna du nabarmen	14,1
Autogobernurako gaitasunik ez duen sektorea	39,8
Fondo gehiegi bideratzen dira pertsonal eta administrazioa	9,6

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza-Edex, 2003

Bitxia badirudi ere, erakunde gehienek, %66, ez dute inolako kexarik adierazten finantza-baliabiderik ez dutelako, ez eta beren helburuak lortzeko aski ez direlako ere. Baina, gehiengoak horrela pentsatzen badu ere, beste zati handi batek, %35-40 bitartekoa, kexak adierazten ditu baliabide eskasia horregatik eta esplizituki onartzen du gabezia horrek asko mugatzen dizkiela jarduteko askatasuna eta korporazioaren autogo-

Bitxia badirudi ere, erakunde gehienek, %66, ez dute inolako kexarik adierazten finantza-baliabiderik ez dutelako, ez eta beren helburuak lortzeko aski ez direlako ere

bernurako gaitasuna. Erakundeetako arduradunek, baliabide-eskasia ukatzeaz gain, zera adierazten dute:

- Uste dute bere esku dutela kudeaketa administratiborako gaitasun nagusia, eta ukatu egiten dute zirkunstantzia horrek gaitasuna kentzen dienik epe luzerako helburuak programatzeko.
- Esplizituki gaitzesten dute, kasuen %80k, ideologia mailako zorren bat ordaindu behar dienik beren ongileei.
- Ez dute onartzen baliabide-eskasia hain larria denik, ez behintzat beren ohiko jarduna eten behar izateko beste, edota eskasiak programatuta dauzkaten jarduerak aldizka-aldizka egin behar izatera behartzen dituztenik.
- Azkenik, ukatu egiten dute, indarrez gainera, baliabide eskas horiek lortzeko borroka korporazioen arteko gatazka dakarrenik edo sustatzen duenik.

Alabaina, isolamendua eta horrek eragin kaltegarriak hiru erakundetik batek onartzen baditu ere, baliabide-eskasiak eta horrek dakartzen eraginak (ideologia-askatasuna galtzea, jarduteko ahultasuna, sektoreen arteko gatazkak sortzeko arriskua, fondoak erabiltzerakoan desorekak...) bost erakundetik batek bakarrik onartzen ditu. Erakundearen tamaina txikia izateak nahitaez isolamendurik ez badakar ere, baliabide-eskasiak ere ez du hala beharrez ezintasun operatiborik ekartzen.

3. Gardentasunik eza

Aurreko atalean adierazitako guztia bezain ezaguna da honako ustea: irabazi asmorik gabeko erakundeen administrazio eta finantzaren kudeaketa sekretupean eta ezkutuko maniobrapean egiten dela, inolako gardentasunik gabe, barruko zein kanpoko kontrolpetik kanpo, alegia.

Ekonomikoki korporatibizatzeak, aldi berean, instituzionalki marketinizatzea dakar eta, ondorioz, kapitalismo egoera batean erortzeko arriskua eta kontratu bidezko elkartasuna nagusitzea, elkartasunezko kultura sustatu beharrean.

Paradoxikoki, kontrako zentzuan ugalduz doaz era berean erakunde horietako kudeatzaileek ez dutela behar adina profesionaltasunik esaten duten ahotsak; amateurismoa da nagusi erakunde horien kudeaketa estrategikoetan, eta horrek ez die uzten koordinazio gardeneko prozesuak garatzen, ez eta elkar arteko komunikazio edo doikuntzarako aukerak jorratzen; hain zuzen ere, ez dute lortzen korporaziozko gizarte modernoan funtzionatzeko ezinbestekoak diren koordinazioa eta komunikazioa, eta horren orde z bazkideek eta herritarrek behar bezala alderatzeko aukerarik izan ez duten erabakiak hartzen dituzte.

Erakundeetako arduradunek, baliabide-eskasia ukatzeaz gain, zera adierazten dute bere esku dutela kudeaketa administratiborako gaitasun nagusia, eta ukatu egiten dute zirkunstantzia horrek gaitasuna kentzen dienik epe luzerako helburuak programatzeko

Horietako gehienak, %83k, adierazten dute berriak hartzen dituzten erabakien, onartzen dituzten planen eta jardueren berri guztia ematen dietela beren bazkideei. Zuzendari horietako hein handi batek, %82k, adierazten dute, halaber, beren bazkideek beren jardunean aurkitzen dituzten arazo guztien berri ematen dietela zuzendaritzari

Lan honetarako ikertu diren erakundeetako zuzendariek tinko ukatzen dute aurreko paragrafoetan esandakoa. Horietako gehienak, %83k, adierazten dute beraiek hartzen dituzten erabakien, onartzen dituzten planen eta jardueren berri guztia ematen dietela beren bazkideei. Zuzendari horietako hein handi batek, %82k, adierazten dute, halaber, beren bazkideek beren jardunean aurkitzen dituzten arazo guztien berri ematen dietela zuzendaritzari. Hartu-eman horietan dagoen gardentasuna eta zuzendaritza-taldearen eta lanean ari direnen arteko komunikazioa erabatekoa omen da.

42. taula

GARDENTASUN GABEZIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK (I)

Gardentasun gabeziari dagozkion ezaugarriak (I)	% adostasuna
Badituzte kanpoko ebaluatzaileak beren jarduerak aztertzeko	38,1
Kudeaketa ekonomikoaren kanpoko kontrola dute	69,1
Zuzendaritzak bere jardueraren azalpenak ematen ditu noizbehinka	83,4
Zuzendaritza-taldeak etengabe jasotzen du jardueri buruzko informazioa	82,5

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jauriaritza-Edex, 2003

Maila apalagoan, erakundeek kanpora begira beren kudeaketaren gardentasuna defendatzen dute. Hala, hiru erakundetik bik adierazten dute beren kudeaketa ekonomikoa kanpoko ebaluatzaileez kontrolatzen dela. Kontrola, alabaina, zertxobait apalagoa da zuzendaritza-batzordeetan erabakitzen diren plangintza-prozesuei eta hartutako erabakiei dagokienez. Erakundeak erabat eta guztiz kanpotik kontrolatzeko legeriarik ez egoteak, ez du adierazten nahitaez kontrol hori egiten ez denik edo nolabait ezin daitekeenik egin. Areago, esan daiteke irabazi asmorik gabeko erakundeek aldarrikatzen dituzten bederlatzi gardentasun-printzipioetatik⁴³ hiru heren behar bezala betetzen

Maila apalagoan, erakundeek kanpora begira beren kudeaketaren gardentasuna defendatzen dute. Hala, hiru erakundetik bik adierazten dute beren kudeaketa ekonomikoa kanpoko ebaluatzaileez kontrolatzen dela. Kontrola, alabaina, zertxobait apalagoa da zuzendaritza-batzordeetan erabakitzen diren plangintza-prozesuei eta hartutako erabakiei dagokienez

43. CFR. FUNDACIÓN LEALTAD, GUIA DE LA TRANSPARENCIA, MADRIL (2003)

1. Gobernu organoaren funtzionamendu eta erregulazioa
2. Xede sozialaren argitasuna eta publizitatea
3. Jardueraren antolamendua eta segimendua
4. Informazioaren jarraipena eta irudi leiala
5. Finantzetaren aniztasun eta gardentasuna
6. Fondoaren erabileraren kontrola
7. Urteko kontuak aurkeztea eta zerga-beharkizunak betetzea
8. Urteko aurrekontua egin eta likidatu beharra
9. Boluntariotza sustatzea

direla, modu egokian, alegia. Erakundeak irekita azaltzen dira komunikaziora, ez bakarrik zuzendaritzaren eta oinarri sozialaren arteko barruko komunikazio bertikalerako, baita kanpoko kontrolatzaileen ebaluaziorako edota beren administrazio eta finantzaren kudeaketa zainduko duten ikuskarientzako ere.

43. taula

GARDENTASUN GABEZIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK (II)

Gardentasun gabeziari dagozkion ezaugarriak (II)	% adostasuna
Barruan etengabe eztabaidatzen da jardueri buruz	83,0
Prozesuak ez dira gehiegi burokratizatzen	86,0
Zor ideologikoa adierazten dute	9,0
Jarrera errutina bihurtu dituzten kritika gaitzetsiz	6,0
Arrakasta duten programak errepikatzen eta handitzen dituzte	7,0
Erakundeak mugitzen dituzten ideologiak era askotakoak dira	82,0
Sektorea malgua eta tupustekoa	31,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

Horixe da, dirudienez, erakunde gehienetan nagusi den egoera. Horietan, prozesuak burokratizatzea gertatu beharrean edota jarrerak errutina bihurtu beharrean, etengabeko eztabaida sortzen da helburu, plan eta jarduera kolektiborako behar diren baliabideei buruz.

Sektoreko erakundeak elkarrengandik isolatuta egoteak eta beren arteko gardentasunik ezak gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorea inkomunikatuta dagoela pentsarazten digu kanpora zein barrura begira, eta sektoreko giza oinarriek ez dituztela ezagutzen beren zuzendaritza-taldearen planak, ez eta horiek hartzen dituzten erabakien prozesu eta arrazoiak ere.

Aldi berean, zuzendariak ez dute zerikusirik sektorean diharduten bazkide, langile, boluntario eta emaileen arazoekin eta ilusio pertsonalekin. Gardentasunik ezak gela ilun bihurtzen dute irabazi asmorik gabeko erakundeak, hau da, argazkilariek beren klixek errebelatzen dituztenaren antzera, zuzendariak, sekretuaren iluntasunean ezkutaturik, beren erabakiei bide ematen dizkieten leku bihurtzen dituzte erakunde hauek, beren handi nahiak eta helburu aipatu ezinak abian jarritz.

Baina hipotesi horrek baieztapen partziala baino ez du jasotzen. Erakundeak eta bere kideek, bazkideek, alegia, daukaten komunikazioak errealitate askoz ere konplexuagoa erakusten du, hots, errealitate hori bestelako dimentsio batzuetan kokatzen da. Erakundeak eta bere bazkideek duten komunikazio-fluxua berriak emateko, programak ira-

Erakundeak irekita azaltzen dira komunikaziora, ez bakarrik zuzendaritzaren eta oinarri sozialaren arteko barruko komunikazio bertikalerako, baita kanpoko kontrolatzaileen ebaluaziorako edota beren administrazio eta finantzaren kudeaketa zainduko duten ikuskarientzako ere

gartzeko, arrakasta eta porrotak jakinarazteko, planak eta ideia berriak konpartitzeko, dirudienez, indartsua da baina aldi berean mugatua.

Informazio eta Komunikaziorako Teknologiek aukera handiak ematen dituzte komunikazio-prozesuetarako, eta nahiko modu azkarrean sartu dira sektorean. Hori baieztatzerako dator honako datua: erakundeek %80k ordenagailu pertsonala dauka eta posta elektronikoa erabiltzen du kanpoko harremanetarako. Horrekin guztiarekin, beraz, esan daiteke, irabazi asmorik gabeko erakundeak kanpo aldera isolatuta daudelako ustea, hau da, baliabide informatikorik ez dutela eta barne komunikazioari dagokionez gabezia osoan daudelako ustea, ustela dela, hots, erakundeei buruzko irudi hori distortsionatua eta okerra dela.

44. taula

GARDENTASUN GABEZIARI DAGOKION EZAUGARRIAK (III)

Gardentasun gabeziari dagozkion ezaugarriak (III)	% adostasuna
Hilero sistematikoki harremanak dauzka bazkideekin	58,0
Sistematikoki aldizkari edo agerkari bat argitaratzen du	44,0
Badu faxa	66,0
Badu ordenagailua	80,0
Badu posta elektronikoa	72,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

4. Burokratismoa

Irabazi asmorik gabeko erakundeetan ari diren boluntarioei “onginahiko turista” deitu ohi zaie eta horietan ari diren bazkideei “bigarren mailako funtzionario”. Bi deitura horiek irabazi asmorik gabeko erakundeek beren izate kolektibo eta jokabiderako aldarrikatzen duten elkartasunaren ustezko sendotasunik eza adierazten dute.

Irabazi asmorik gabeko erakundeei egozten zaien burokratismoaren ezaugarriak, erakundeek burutzen dituzten jardueren aukeratze- eta gauzatze-prozesuko errutinan ikus daitezke, baita beren sortze-xedearen inspirazio-iturri izan zen elkartasuneko misioaren esanahiaren galeran ere, edota ekimenen eguneroko garapenean erakusten duten geldotasunean, baliabideak helburu bihurtzean eta sortze-unean ezegokitzat jotzen ziren jarduerak bidegabe egitean.

Sortze aldiko berotasun gartsuaren ondoren monotonia burokrati-koa etorri da erakundeetara; bazkide eta boluntarioen atxikimendua- ren ondoren eta erakundearen lehen sortzaileen balore altruista eta solidarioen ondoren, pasibotasuna eta balore horiek baztertzea nagusi- tu da; erakundearen barruko dinamika indartzeko asmoari lanpostua-

Horrekin guztiarekin, beraz, esan daiteke, irabazi asmorik gabeko erakundeak kanpo aldera isolatuta daudelako ustea, hau da, baliabide informatikorik ez dutela eta barne komunikazioari dagokionez gabezia osoan daudelako ustea, ustela dela, hots, erakundeei buruzko irudi hori distortsionatua eta okerra dela

ren egonkortasunak eta iraunkortasunak jarraiki diote. Azken batean, erakundeek iruzur egiten diote bere sortze-xedeari, eta bazkide eta boluntarioek bertan behera uzten dituzte beren lankidetza eskaintzera bultzatu zituzten baloreak.

Horiek horrela, ziurtatzeke dago deskribapen horiek guztiek erakundeen benetako *modus operandi* adierazten duten ala egiaztapen enpirikoa baino gehiago lukubrazio hutsak diren. Horixe da ikusteko dagoena.

Gaiari buruzko azterlan sistematikorik ez egoteak ez du betarik ematen, orain arteko kontsidero bakar bat ere gutxiengo fidagarritasunarekin baieztatzeko.

Erakundeen hilkortasuna handia dela egia bada ere, Erakundeen Erregistro Ofizialean⁴⁴ begiratzea baino ez dago, ikusteko ez dagoela hain garbi erakunde hauek jarduteko zaharkituta gelditzen direla oso goiz ez dutelako gizarte korporatiboaren eskariak arrakastaz betetzen.

Bigarrenez, ikusteko dago irabazi asmorik gabeko erakundeen bizitasuna ustez lotzen eta estutzen duen ahulezia beren egituren errutina eta burokratizazioaren ondorio denik. Azken batean, ikusteko dago, berebat, erakundeen ustezko burokratizazioa eta errutina existitzen denik ere, nahiz eta askotan baiezkotzat eman.

45. taula

BUOKRATISMOARI DAGOZKION EZAUGARRIAK

Burokratismoari dagozkion ezaugarriak	% adostasuna
Pertsonalak bete-betean partekatzen ditu erakundearen baloreak	90,0
Boluntarioak konprometiturik daude erakundearen helburuekin	75,0
Boluntarioen loturak sendotasuna ematen dio erakundeari	67,0
Emaille-kopurua gehitzeko asmo berezia dute	84,0
Gizartea asko kezkatzen dituzten arazoak konpontzen saiatzen dira	79,0
Sortze-xedea bertan behar uzten dute	2,0
Jarduteko prozesuak gehiegi burokratizatzen dituzte	11,0
Errutina bihurtzen dituzten jarrerak kritika baztertuz	6,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurjaritza-Edex, 2003

Izatez, lanean jarraitzen duten erakundeen esperientzia ikusita, errutinazko burokrazia gutxiengo erakundeetan gertatzen da, inon gertatzen ez dela ez esateagatik. Erakundeak beraiek dira beren baz-

44. Erakundeen hilkortasun handia baliogabe uzten du sektorearen tamaina eta bilakaera ikusteko erabili dugun Erregistro honek. Erakunde hauen indarraldiak hain larri kutsatzen du gordeta dagoen informazioa, ezen norbaitek erregistro horiei "Defuntuen errolda" deitu dio

Izatez, lanean jarraitzen duten erakundeen esperientzia ikusita, errutinazko burokrazia gutxiengo erakundeetan gertatzen da, inon gertatzen ez dela ez esateagatik. Halaber, fikzio hutsa da irabazi asmorik gabeko erakundeek sarri beren sortze-xedea uzten dutenik

kide eta boluntarioen elkartasun-asmoak mantentzeko ahaleginak egiten dituztena eta, batez ere, beren emaileek dituztenak, hala nola horiek egiten dituzten ekarpen finantzarioak eta filantropikoak aragotzeko saiatzeko direnak. Halaber, fikzio hutsa da irabazi asmorik gabeko erakundeek sarri beren sortze-xedea uzten dutenik beren sortze-uneko balore eta helburuen defentsak beheraka egin duela edo hoztu delako. Gezur biribila da esatea erakunde hauek beren erabakiak hartzeko prozesuak burokratizatzen dutela eta errore handia, hein berean, beren eguneroko jarrerak errutina bihurtzen dutela esatea. Sektoreko erakundeetako zuzendari guztiek diote errutina burokratikorik ez dagoela. Horiek egiten dituzten diagnostikoak ikusita, zuzena litzateke esatea oro har hiru elementu direla erakunde hauen funtzionamenduko ezaugarritzat jo daitezkeenak.

Lehenak erakundeekin dauka zerikusi, hala nola beren antolamenduari ematen dioten norabidearekin. Zuzendariak sinestu-sinestuta daude beren erakundeak gizarteari benetan axola zaizkion arazoei erantzunak bilatzen ari direla, eta ez dute onartzen inolaz ere beren erakundeak isolatuta daudenik beren inguru sozialetik gizartearen interesak ez direnen alde dihardutelako. Garrantzi handikoa edo txikikoa, finantzari dagokionez aberatsa edo txiroa, masiboa edo zelularrak, dena dela beren jarduerak badu garrantzia gizartearen barruan, gizarteari benetan axola zaizkion arazoei erantzuten dielako.

Bigarrenak euskal gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen kontzientzia kolektiboa du gaitzat. Horren arabera, kontzientzia hori gizartearen interesari, helburuei eta programei lotuta dago, eta uste du bazkide eta boluntarioek bere eginkizunarekin bat egiten dutela erakundearen sortze-xedearekin aurrera egiteko.

Hirugarrenak dioenez, bazkideek zein boluntarioek bat datoz funtsean eta erakundea sortzeko xedearekin, elkartasun-balore eta irizpideak defendatzen dituzte. Bizirik dirauten erakundeetako boluntarioen egonkortasuna erabat kontraesan dago erakunde askok erakusten duten hilkortasunarekin.

Erakunde hauen barruko dinamika oro har ez ezagutzearen ondorioz beraiek nabarmenarazten dituzten egiturako ahuleziak zehatzak ez izatea eragiten badu, badirudi, arrazoi berberetatik, pentsa daitekeela korporazio bezala beren buruei egozten dizkieten indar guneak ere ez direla oso irmoak izango. Hori dela eta, arrazoizkoa dirudi ondoren egiten den azterketa egitea bai ahuleziei buruz bai indar guneen buruz, horretarako gehien erabiltzen diren elementuak aukeratuz.

Gezur biribila da esatea erakunde hauek beren erabakiak hartzeko prozesuak burokratizatzen dutela eta errore handia, hein berean, beren eguneroko jarrerak errutina bihurtzen dutela esatea

Garrantzi handikoa edo txikikoa, finantzari dagokionez aberatsa edo txiroa, masiboa edo zelularra, dena dela beren jarduerak badu garrantzia gizartearen barruan, gizarteari benetan axola zaizkion arazoei erantzuten dielako

INDAR GUNEAK

1. Tokiko demokrazia

Demokrazia kontzeptu politikoa da eta alde batetik gizartea osatzen dutenek elkarrekin dituzten harremanak aipatzen ditu, hau da, interes eta alternatiben eremu jakin bat aldarrikatzen duten helburuen kategoria bat, eta bestetik eta aldi berean, interes eta alternatiba horiek legitimatzen dituzten motibazio klase bat adierazten du. Orain arte gutxienez, irabazi asmorik gabeko erakundeek ia beti beren gizarte-nortasun apolitikoa aldarrikatu dute, baina beraiek defendatzen dituzten interesen esanahiak eta beren jarduerak duten eragin politikoak, nahitaez, politikaz zipriztindurik uzten ditu irabazi asmorik gabeko erakundeak.

Jarduteko modu bezala, demokraziak estilo bat eskatzen du barruko jardunerako (erakunde barruko kideen artean) eta kanpoko (erakundearen eta beste erakunde batzuen artean). Bere jardueraren xede bezala, hainbat balore eta interesen legitimatze eta promozionatzea nahi izan dezake; ondorioz, bere elementurik funtsezkoena jarduteko autonomia da, horrela bermatuko litzatekeelako bere programei jarraipen bat ematea; aitzitik, baliteke programa horiek garapen politikoko agendan agertu nahi izatea; hortaz, funtsezko elementua partaidetza sozialaren ordezkariak osatzen du.

Berariazko izaera demokratikoa duten hiru ezaugarriak laguntzen diote euskal gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundearen funtzionamendu-prozesuari:

- Beste mota batzuetako erakundeek baino burokrazia txikiagorekin eta malgutasun handiagorekin funtzionatzen dute (%75)
- Giza talde kaltetuen eta herri-administrazioen arteko bitartekaritza-lana betetzen dute.
- Ohiko gizarte-ongizateko babesa iristen ez den kolektibo gehiagotara hedatzen dute gizarte-ongizatea.

Erakundeek, gainera, demokrazia-eskolarenak egiten dituzte beren bazkideentzat maila askotan. Erakundeek demokraziaren jardun zuzena ahalbideratzen dute, biltzar orokorretan zuzendaritza-taldea etorkizuneko jardueren plangintzak eztabaidatzera, urteko balantzeak aurkeztera eta kudeaketaren berri ematera behartzen dutelako (%72).

Erakunde hauek, erakunde bezala, autoritarismo paternalista edo diktatorialetik urrun (%6), gobernuz kanpoko erakundeak dira, eta izatez, gizarteak gobernuz kanpoko erakundeei buruz duen ikuspegiarekin bat datoz (%70).

Berariazko izaera demokratikoa duten hiru ezaugarriak laguntzen diote euskal gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundearen funtzionamendu-prozesuari: beste mota batzuetako erakundeek baino burokrazia txikiagorekin funtzionatzen dute; bitartekaritza-lana betetzen dute; eta ohiko gizarte-ongizateko babesa iristen ez den kolektibo gehiagotara hedatzen dute gizarte-ongizatea

46. taula

TOKIKO DEMOKRAZIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK

Tokiko demokrasiari dagozkion ezaugarriak	% adostasuna
Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak (GEIAE)	
Beste erakunde batzuek baino burokrazia txikiagoarekin eta malgutasun handiagoarekin dihardute	77,0
Era askotako ideologia dute, joera guztiak barnebiltzen dituzte	82,0
Giza talde kaltetuen eta instituzioen arteko bitartekaritzarako baliabideak dira	75,0
Gizartea sentiberatzen dute arazo eta premia handien aurrean	59,0
Gobernuz kanpoko giza taldeen adierazpide dira	69,0
Beren helburu eta jardueren plangintzak biltzarretan egiten dituzte	71,0
Azkar eratzen eta desegiten dira; sektoreari malgutasuna eta bat-batekotasuna ematen diote	31,0
Beren jarduerak paternalismo autoritarioan oinarritzen dira	19,0
Zuzendaritza taldea	
Bazkideek aukeratzen dituzte demokratikoki	71,0
Beren jardueren berri ematen dute sistematikoki	72,0
Erabaki eta jardueren informazioa jasotzen dute etengabe	82,0
Bazkideak	
Balore funtzionalak partekatzen dituzte oso-osorik	90,0
GEIAEn sektorea	
Panorama aberasten duen iritzi-kopuru handi bat ahalbideratzen du	60,0
Aitzindari demokratikoak sustatzen ditu gizartean oinarriturik	31,0
Kolektibo kaltetuen eta instituzioen arteko bitartekaritza	75,0
Gizarte-ongizatea iristen ez den lekuetara hedatzen dute gizarte-ongizatea	82,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

Ondorioz, beren eraginpeko esparruaren barruan (%60) iritzi ezberdinek ematen duten aberastasuna ahalbideratzeaz gain, herri-administrazioek (%77) baino burokrazia txikiagoarekin eta malgutasun handiagoarekin funtzionatzea lortzen dute. Paternalismoa sustatu beharrean, batzuek dioten bezala (%19), ez dute bakarrik banan banakako eztabaida ahalbideratzen (hala zioen aspaldi Emile Durkheim-ek eta oraintsu hala esan du Salvador Ginerrek), baizik eta bitartekaritza baliabidearenak egiten dute eguneroko elkarbizitzak eragiten dituen gizarte-gatazketan.

Erakundeek, gainera, demokrazia-eskolarenak egiten dituzte beren bazkideentzat maila askotan. Erakundeek demokrasiaren jardun zuzena ahalbideratzen dute, biltzar orokorretan zuzendaritza-taldea etorkizuneko jardueren plangintzak eztabaidatzera, urteko balantzeak aurkeztera eta kudeaketaren berri ematera behartzen dutelako

Oro har, esan daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeek, guztien ia heren batek, gizarte-bizitzarako beste alor batzuetarako aitzindari demokratikoak sustatzeko eta entrenatzeko benetako harrobiak direla. Lau erakundetik hiruk jite demokratiko erakunde bezala funtzionatzen du eta iritzi-askatasuna, gizarte-partaidetza eta bitartekaritza soziala praktikatzen eta sustatzen du; eta bost erakundetik lauk herri-administrazioen antzeko instituzioen besteko malgutasuna eta azkartasuna erakusten dute. Irabazi asmorik gabeko erakundeak gizarte-ongizateak asetzen ez dituen premiak betetzera iristen diren esku luzetzat jotzen dira.

2. Profesionaltasuna

Duela urte batzuetatik hona, alarma- eta alerta-hotsak entzuten dira, sinesgarritasuna geroz eta gehiago ari delako galtzen “kudeaketako errengatik, konpetentzia ezleialagatik eta ustelkeria baztertezinagatik”. Arazo horiek guztiak gainditzeko abilezian –hala zioen M. Ossetek– datza eraldatu nahi duten gizartean benetako eraginkortasuna izatea edo Estatuak diruz lagundutako laguntza-funtzioa betetzen duen erakunde hutsa izatea edo Estatu bera ordezkatzeko erakunde izatea. Eta, bere misioa bete beharrean, Estatuaren zerbitzura⁴⁵ dauden sasi-funtzionario hutsak izatera iritsiko lirakeke.

Irabazi asmorik gabeko erakundeek merkataritza-erakunde azkartasun eta estilo beraz “garatu” beharko lirakekeela esaten duen tesi nagusian oinarriturik, irabazi asmorik gabeko erakundeak, gizarte-ekimenekoak barne, profesionalizatu egin behar direla esaten zuen tesia hedatu zen.

Enpresa komertzialetako adituek proposatu duten erakunde-garapena irabazi asmorik gabeko sektorearen kritikoen dotrina izatera iritsi zen. Horien ustez, irabazi asmorik gabeko sektoreak atzerapen handia zuen, ezintasuna ez esatearren, erakunde-garapenaren teoriagileek iradokitzen zituzten bikaintasun estandarrak onartzeko.

Hala, irabazi asmorik gabeko sektorera eraman zen antolaketa idealaren eredu, Meinol Dierkes-i jarraikiz honakoa esaten duenean “*ez da nahikoa aldatetak maila formalean (erabakitzeko sistemak, antolamendua, kontrola, plangintza) egitea, baizik eta horiek sorkuntzaren iturrian bertan, kulturen, alegia, aldateta eragiteko moduko tamaina eta sakontasunekoak beharko lukete izan*”⁴⁶.

Kritika horien guztien ondorioz, irabazi asmorik gabeko erakundeek “beren kultura korporatiboa berritu” behar zutelako ideia sortu

Jarrera-ereduak eta, horiekin bat, enpresa-antolamenduaren kultura onartuz doaz, irabazi asmorik gabeko sektorea gidatzeko eredurik bikainena bezala

45. Osset Hernández, Miguel 1998, El Viejo Topo.

46. Meinolf Dierkes (1997), Sobre paradigmas, aprendizaje y desarrollo empresarial.

47. taula

PROFESIONALITASUNARI DAGOZKION EZAUGARRIAK

Profesionaltasunari dagozkion ezaugarriak	% adostasuna
Enpresako zorrotasunaz lan egiten da	86,0
Epe luzerako planik ezin dute egin	84,0
Kudeaketa ekonomikoa profesionalen esku	70,0
Teknologia berriak etengabe gehitzen dira	54,0
Goi mailako zuzendariak	51,0
Kualifikazio gutxiko langileekin ari da	7,0
Kualifikazio gehiegiko langileekin ari da	3,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza-Edex, 2003

zen, eta enpresako kulturaren gain eraginik handienak dituzten barruko faktoretan zuzendaritzan ari den pertsonala dagoenez, enpresa komertzialetako adituak irabazi asmorik gabeko erakundeetako zuzendaritzarako kontratatze bidea hartu zen.

Enpresari-profilik egokiena eta merkataritza-enpresaren egiturarik onena bilatzeko kezka atzetik gizarte ekimeneko irabazi asmorik gabeko sektorearen inguruan ere filosofia bera ezartzeko ahaleginak etorri dira. Jarrera-ereduak eta, horiekin bat, enpresa-antolamendua-aren kultura onartuz doaz, irabazi asmorik gabeko sektorea gidatzeko eredurik bikainena bezala.

Erreferentziatzat hartu dugun iturriak adierazten duenez, gizarte-zerbitzuetako hainbat arlotan adituak diren geroz eta profesional gehiago daude, eta pozez beterik esaten da “horrek lorpen handia erakusten du”. Profesionalek eginkizun nagusia eta ezinbestekoa betetzen dute, eta aldi berean boluntarioek profesionalen zerbitzura lan egiteko papera onartu dute⁴⁷.

Badirudi, gure autonomia erkidegoko irabazi asmorik gabeko erakundeetako aitzindariak, enpresa-kultura nor bere erakundearen erabiltzeko ahaleginak egiteaz gain, uste dute erakundeek onartu dituztela asmo horiek eta, gainera, beren eguneroko eginkizunetan abian jarri dituztela. Profesional horien ustetan, beren erakundeetan enpresa komertzialetako zorrotasun berberaz lan egiten da, eta gaur egun zuzendaritza zein kudeaketa, bai erakundearena bai finantzarena, profesionalen esku daude.

Ondorioz, gaitasun osoa dutela adierazten dute, etorkizunean gertatu daitezkeen usteak aurreikusiz, epe luzerako plangintzak egiteko.

47. Garcia Fajardo, JC (2001), Manual de Voluntariado. Solidarios. Univ. Complutense, Madrid.

Gizarte-zerbitzuetako hainbat arlotan adituak diren geroz eta profesional gehiago daude

Profesionalek eginkizun nagusia eta ezinbestekoa betetzen dute, eta aldi berean boluntarioek profesionalen zerbitzura lan egiteko papera onartu dute

Alabaina, erakunde hauek, beren tamaina txikia bada ere, irabazi asmotako enpresek ustez diharduten ahalegin profesional berberaz aritzeko ahaleginak egiten dituzte.

3. Eraginkortasuna

Asko dira gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeen izatea zalantzan jartzen dutenak: zertarako gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak? Zer ematen diote gizarteari? eta abar. Badira, gainera, erakunde hauek ezbeharrekotzat edo ezertarako balio ez dutenekotzat jotzen dituztenak. Zalantza horiek guztiak bi mailatan agertzen dira: gizartearen legitimotasuna eta eraginkortasuna.

Lehena gehienbat ideologiko-politiko da, eta gizarte-ekimene-ko irabazi asmorik gabeko erakundeen egon beharra edo egokitasuna jartzen du ezbaian edota horiek beren buruari helburu sozial jakin batzuk jartzea. Azken batean, oro har irabazi asmorik gabeko sektorearen legitimotasun soziala jartzen dute zalantzan. Bigarrena, ordea, gehiago da sozial-operatiboa, eta horrek zalantzan jartzen duena zera da: irabazi asmorik gabeko erakundeek zenbateraino lortzen dituzte beren helburuak? Eta zenbaterainokoa da beren eraginkortasuna beren funtzionamenduak eskatzen dituen ahalegin eta inbertsioak kontuan izanik? Laburtuz, erakundeen eraginkortasuna jartzen du zalantzan.

Zalantza horiek guztiek agerian jartzen dutenez, ez dago frogarik esateko ekimen kolektibo horiek guztiek beren helburuak benetan betetzen dituztela beren jardueraren ondorioz. W. Robits-ek, Gatazkan dauden Baloreen Eredua”ri jarraikiz, funtsezko hiru dimentsiotako amebograma bat erabiltzen du:

- Berrikuntzari lehentasuna ematea eta kontrolaren gaintetik jartzea. Hau da, egonkortasunaren, ordenaren eta aurreikuspenaren aurrean, malgutasuna, egokitzapena eta aldaketa hobestea.
- Pertsonen ongizateari eta garapenari erakundeari baino indar gehiago ematea.
- Baliabideei indar gehiago ematea helburu eta xedeei baino.

Erakundeetako arduradunek beraiek finkatzen dute merituen hierarkia beren kudeaketaren eraginkortasunari dagokionez. Horren bidez, arduradunek erabiltzen duten balorazio ezberdina ikus daiteke, baita hori burutzearen asetasun maila ere. Horien iritziz, sektorearen ezaugarririk behinena zera da “balizko onuradun guztiei berdintasunezko tratamendua ematea” edota “horiei ematen zaien zerbitzua kalitatekoa izatea”.

Asko dira gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeen izatea zalantzan jartzen dutenak: zertarako gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeak? Zer ematen diote gizarteari? eta holakoak

48. taula

ERAGINKORTASUNARI DAGOZKION EZAUGARRIAK (I)

Eraginkortasunari dagozkion ezaugarriak (I)	% adostasuna
Malgutasuna	
Arazoak antzematen aitzindariak izatea	76,0
Burokrazia gutxiagorekin eta malgutasun handiagoarekin jardutea	77,0
Azkar eratzen eta desegiten dira; malgutasuna eta bat-batekotasuna sektoreari	31,0
Aniztasuna	
Sektoreak helburu aniztasunean jarduten du	73,0
Sektorea era askotako ideologiak bultzatzen ditu	83,0
Kontrola	
Sektoreak bere burua gobernatzeko gaitasuna du	42,0
Helburuak biltzarretan antolatzen ditu	58,0
Eragin soziala	
Gizartea arazo larriei buruz sentiberatzea	70,0
Egunez egun emaleak gehitzeko asmoa	74,0
Gardentasuna	
Zuzendariak bere jardueren berri ematen dute	83,0
Ekonomiaren kudeaketa profesionalen esku	71,0
Ekonomiaren kudeaketak kanpoko kontrolak ditu	69,0
Legitimotasun soziala	
Gizartean geroz eta onespren handiagoa	77,0
Sortze-xedea ez alboratzea	97,0

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

Hala, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko sektoreari buruzko ikuspegi orokorra gehiago dela positiboa negatiboa baino.

Eraginkortasuna ebaluatzeko planteamendu horrek nahiago du bere erakundea ikusi, ez bakarrik botere talde ezberdinen kontra dagoen eraikuntza soziala bezala, baizik eta barrutik balore-irizpidez, jarrera-arauez eta errealitate sozialaren interpretazio-sinboloz beteta dagoen eraikuntza kultural bezala. Irizpide horrek, garbi eta argi zehaztuta dauden helburuetan edo helburu horiek kanpotik baldintzatzen eta kontrolatzen dituzten botere-taldeetan ohartu

Erakundeetako arduradunek beraien finkatzen dute merituen hierarkia beren kudeaketaren eraginkortasunari dagokionez. Horren bidez, arduradunek erabiltzen duten balorazio ezberdina ikus daiteke, baita hori burutzearen asetasan maila ere. Horien iritziz, sektorearen ezaugarriak behinena zera da "balizko onuradun guztiei berdintasunezko tratamendua ematea" edota "horiei ematen zaien zerbitzua kalitatekoa izatea"

ERAGINKORTASUNARI DAGOZKION EZAUGARRIAK (II)

Eraginkortasunari dagozkion ezaugarriak (II)	% adostasuna
Mendekotasun ideologikorik ez adieraztea	47,0
Kalitatea da erakundearen ezaugarria	19,0
Lorpen handiak gastu txikiarekin	13,0

Iturriak: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritzza-Edex, 2003

baino nahiago du, gizarte-ekimeneko erakunde edo programa bakoitzean balore-multzoak defendatzen eta sustatzen direla onartu, hala nola, eraginkortasuna gatazkan dauden balore-multzo horietan eta balore horiek defendatzen eta sustatzen dituzten giza taldeetan oinarritzen dela.

4. Funtzioak eta disfuntzioak

Beste aurrerapauso bat emanez, gorago aipatu dugun erreferentzia-iturriaren arabera korporazioaren eraginkortasuna gizartean daukan eraginaren arabera interpreta daiteke eta eraginkortasun hori bere funtzio/disfuntzio-ratioaren arabera neur daiteke. Metodo hau da ohiz irabazi asmorik gabeko erakundeetan erabiltzen dena.

Eraginkortasuna ebaluatzeko planteamendu horrek nahiago du bere erakundea ikusi, ez bakarrik botere talde ezberdinen kontra dagoen eraikuntza soziala bezala, baizik eta barrutik balore-irizpidez, jarrera-arauez eta errealitate sozialaren interpretazio-sinboloz beteta dagoen eraikuntza kultural bezala

GEIAEEN FUNTZIO ETA DISFUNTZIOAK**FUNTZIOAK**

1. Berrikuntza, gizarteko eskariei azkarrago eta hobeto erantzuteko gaitasun handiagotzat ulertuz
 - 1.1. Premia berriei arreta-zerbitzua eskaintzea ideia eta ekimen berriekin eta jardueraren eremu berriei aplikatutako kudeatzeko era berriekin
 - 1.2. Malgutasuna eta azkartasuna zurruntasunaren eta burokratizazioaren aurrean
 - 1.3. Jarduerak baldintza hobegotan gauzatzea
2. Zerbitzua, produktu hobegoen eskaintzat hartuz
 - 2.1. Baldintza hobegotan (pluralismoa, aniztasuna, malgutasuna, berdinkidetasuna eta argitasun handiagoa kostu txikiagorekin)
 - 2.2. Gabeziak estaliz
 - 2.3. Zerbitzuen artean aukeratzea ahalbideratuz
3. Defentsa soziala, prestazio eraginkorragotzat eta merkeagotzat hartuz, berme eta kalitate handiagotzat
 - 3.1. Giza talde jakin baten interesen defentsa
 - 3.2. Gizarteko jarrera gaitzesgarriak borrokatzen ditu eta aldaketa sozialak ezartzen

.../...

3.3. Presio- eta bitartekaritza-neurriak hartzen ditu, herri-administrazioen zenbait jardueren kontra.

4. Kontzientziaztea, banakakoen eta taldeen eskubideen bermetzat hartuz.

4.1. Gizarteko baloreak defendatzea eta sustatzea (elkartasuna...).

4.2. Giza askatasunak eta pluralismo ideologikoaren defentsa.

4.3. Demokraziaren eskola.

5. Garapen komunitarioa, gizarteratzeko prozesutzat hartuz

5.1 Bitartekotzarako egitura: arlo pribatua eta publikoa

5.2. Pertsona eta gizartearen arteko komunikabidea

5.3. Gizarteko jarduerak sustatzea

5.4. Gidaritza garatzea

ARRISKUAK

1. Profesionaltasun gabezia

2. Gardentasun eza, paternalismoa, etnozentrismoa

3. Burokratizazioa eta errutina

4. Baliabide gabezia, dagoen boterearekiko mendetasuna

5. Iraunkortasunik eta finantza-jarraikortasunik eza, instituzioekiko ziurgabetasuna, interes-taldeekiko mendetasuna

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurlaritza-Edex, 2003

Benetako eta baztertezinako arrisku-egoera horren aurrean, sektoreari buruzko ikuspegi-estereotipoak arrakasta erlatibo bat erakusten du zerbitzu-hornitzaile berritzaile, garapen komunitarioaren eta demokratizazioaren defendatzaile eta sustatzaile bezala eta, aldi berean, porrota erakusten du gehiegizko berezikeriaren, paternalismoaren, amateurismoaren eta profesionaltasunaren aurrean, hala nola baliabide-eskasiarekin eta bermerik ezarekin jarduteko arriskua.

Irabazi asmorik gabeko sektoreari buruz egin dugun laburpen horretatik gutxienez ere zera ondoriozta daiteke, sektoreko zuzendariak orain arte esandako guztia ez onartzeaz gain erabat ukatzen dutela. Erakunde hauen dinamika eta funtzionamendua ezagutzen dutenez osatutako gorputz sozialak eta bezero eta onuradunen kritikak zuzenean jasotzen dutenek, hala nola finantzatzen dutenek eta ikuskari kritikoek, guztiz gaitzesten dute azterketa hau guztia

eta gainera beste balorazio bat egiten dute askoz ere baikorragoa eta funtzionalagoa.

Arrakasta positiboetan, sektoreari onartzen zaizkio kostu txikiaz egiten dituen lorpenak, edo burokrazia txikiagoaz funtzionatzea eta malgutasun handiagoaz. Onartzen zaie, halaber, aitzindariak izatea arazoak identifikatzeko orduan, gobernuz kanpoko jardunaren adierazpena izatea, iritzi aberastasuna ahalbideratzea eta bitartekaritza baliabidearenak egitea, baita gizarte-ongizatearen babesle izatea eta gizartea sentiberatzea ere.

50. taula

GEIAE. AUTOEBALUAZIORAKO GAIAK (% ADOSTASUNA)

FUNTZIOAK	%
Lorpen handiak eskaintzen ditu kostu txikiarekin	82,1
Burokrazia gutxiagorekin eta malgutasun handiagorekin jarduten du	75,2
Aitzindariak dira arazoak identifikatzean	75,8
Gobernuz kanpoko sektorean adierazpena izatea	70,4
Iritzi-aberastasuna ahalbideratzea	60,8
Gidari demokratikoak sustatzea	29,1
Bitarteko baliabidea izatea	75,3
Ongizate estatuaren babesla zabaltzea	83,4
Gizartea sentiberatzea	70,1
DISFUNTZIOAK	%
Morrontza ideologikoa adieraztea	8,9
Boterean dauden taldeengan autoritarismoa ikustea	4,7
Arrakasta duten programak eskala handitan burutu nahi izatea	7,0
Epe luzerako programak antolatu ezina	14,1
Kalifikazio gutxiko langileekin lan egitea	7,2
Kalifikazio gehiegi duten langileekin lan egitea	3,1
Prozesuak gehiegi burokratizatzea	12,4
Baliabide eskasia	34,1
Fundazioaren helburua albo batera uztea	1,7
Jardueretan etenak erakustea	19,1
Sarri beste erakunde batzuek kontra aritzea	14,8
Bermerik ez eskaintzea	6,1

Arrakasta positiboetan, sektoreari onartzen zaizkio kostu txikiaz egiten dituen lorpenak, edo burokrazia txikiagoaz funtzionatzea eta malgutasun handiagoaz. Onartzen zaie, halaber, aitzindariak izatea gizarteko arazoak identifikatzerakoan, gobernuz kanpoko jardunaren adierazpena izatea, iritzi-aberastasuna ahalbideratzea eta bitartekaritza baliabidearenak egitea, baita gizarte-ongizatearen babesle izatea eta gizartea sentiberatzea ere

Iturria: El Sector No Lucrativo de Acción Social en la CAPV. Eusko Jaurilaritza-Edex, 2003

Sektore honi, ordea, zera leporatzen zaio, nahiz eta indar gutxiagoz: morrontza ideologikoarekin zerikusi duten disfuntzioak, botere-taldeen autoritarismoa, epe luzerako programak garatzeko ezintasuna, kalifikazio gutxiko lanpostuak edo profesionaltasun gehiegizkoa dutenak, baliabide eskasia eta sarritan beste erakunde batzuen kontra aritzea baliabideak eskuratu ahal izateko.

Gizarte-ekimeneko irabazi asmorik gabeko erakundeek beren inguru sozialean eragiten duten errealitatearen anbiguotasunak erakunde horietan oraindik nagusi diren amateurismoa, berezitasuna, paternalismo autoritarioa eta zurruntasuna kontuan izatera behartzen dute. Baina kritika horrek, erreferentzia-iturrian adierazten denez, ez du desitxuratu behar estigmatizatzailea eta desakreditatzaileagoa baino gehiago positiboagoa eta legitimatzaileagoa den balorazio panoramikoa. Erakunde hauek, moteltze korporatiboko egoera batean finkatu baino gehiago prozesu dinamiko batean mugitzen dira, eta gora egiteko joera handiagoa erakusten dute behera egitekoa baino.

Bikaintasun, dinamismo eta gardentasun baloreak erabat hedatu ez badira ere irabazi asmorik gabeko gorputz sozialean, ezin da ukatu horiek hegemonikoak direnik, kudeaketari eta bazkide eta boluntarioen partaidetzari dagokienez.

Erakundeen bikaintasuna sektoreko zuzendarien gehiengo handi baten tesian nabarmentzen da, horiek sektoreari buruz honako baieztapenak egiten dituztenean: gizartea asko kezkatzen duten arazoei erantzuten die, enpresa serio bat balitz bezala lan egiten du, egindako jarduerak aztertzen dituzten ebaluatzaileak erabiltzen ditu, jarduerak erakundearen helburuetarako egokiak diren ala ez aztertzen ditu, laneko metodoak, gastuen ratioak eta lortutako emaitzak eta antzeko erakundeek lortutakoak alderatuz lehiakortasuna egiaztatzen du.

Irabazi asmorik gabeko erakundeek, printzipioz, independentzia eskaintzen dute gizarte-ekimenerako, baina baita kontrola eta klientelismoa ere. Instituzioen laguntzak oso prezio altua izan dezake, baina finantziario pribatuak ere ez du independentziarako aukera handirik eskaintzen eta ondorio gisa gizarte-ekimeneko politikak korporazio handien eta mezenasen esku uztea ekar dezake. Irabazi asmorik gabeko erakundeak zuzeneko demokrazia dira, baina ondasun publikoen kudeaketa erakundearen zuzendaritza-batzordearen kontrolari baino erantzuten ez diotenen esku uzten dute. Gizarte-babesaren luzapena dira, baina baita murrizketarena ere.

Aurreko lerroetan eman den nolabaiteko ikuspegi samurtuaren aurrean, badago paraleloki sektoreari buruzko irakurketa askoz ere

Sektore honi, ordea, zera leporatzen zaio, nahiz eta indar gutxiagoz: morrontza ideologikoarekin zerikusi duten disfuntzioak, botere-taldeen autoritarismoa, epe luzerako programak garatzeko ezintasuna, kalifikazio gutxiko lanpostuak edo profesionaltasun gehiegizkoa dutenak, baliabide eskasia eta sarritan beste erakunde batzuen kontra aritzea baliabideak eskuratu ahal izateko

zorrotzagoa, ez dena hain lausengatzailea eta onargarria, sektorean arriskuak zehazten dituena.

5.3. ARRISKUAK

1. Krisiaren egoera

Interpretazio horren arabera, sektorea ahultasun-egoera sakon batean murgilduta dago; eta egoera horren ondorioz etor daitekeen porrot-arriskuak berehala sektorea indartzeko neurri batzuk hartzea eskatzen du. Sektoreak eskatzen duen eskuartzea honako lau ataletara bideratu behar da: fondo eskasia, gizarteko isolamendua, plangintzarik eza eta kudeaketako egitura zaharkituak; atal horiek sektorea ahultzeaz gain krisi-egoeran sartu dute.

2. Sasi-funtzionarioen morrontza

Egungo arrakastak geroz eta eginkizun gehiago bereganatzeak ekarri dio sektoreari; arrakasta horrek, alabaina, erakunde hauen jatorriko izaera (hasiera batean altruismoa zen ezaugarri nagusia) aldarazi du. Jatorrizko izaera haren ondoren beste bat etorri da, beste era batera jarduten duena. Hala, hasierako boluntario haien ordez, orain pertsonal kontratatua ari da lanean, eta horrek finantza-baliabide batzuk eta soldatak finkatzea eskatzen du. Arrakasta, beraz, boluntarioen despolitizazioaz eta erakundeen morrontzaz kutsatuta dago.

3. Ongi-nahaiaren iruzurra

Asko eta asko dira boluntarioen erakundeen barruan dagoen demokrazia falta kritikatzeko duten ahotsak. Demokrazia-hutsune hori batzuetan bazkideek parte hartzen ez dutelako gertatzen da; beste batzuetan aitzindari edo liderrak partaidetzari buruz duten ikuspegi eskasak eragiten du, eta beste batzuetan ordea kudeatzaile eta oinarriko kideen arteko desadostasunaren ondorio izaten da⁴⁸.

Haatik, horrek ez dirudi errealitatearekin zerikusirik duenik, Administrazio edo diru-laguntza eman duen erakundeari proiektuak garatzeko esleitu dituzten fondoei emandako erabileraren justifikazio zorrotzak ematen zaizkiela adierazten duten beste informe batzuk aztertzen baditugu.

48. "Proiektuen porrotaren indize"ari buruzko ikuspegi horren aurrean, ordea, Informe de síntesis de las evaluaciones de las ONGDs (OCDEko Garapenaren Laguntzarako Batzordearen ebaluazioko adituen taldeak egina) txostenean adierazten denez "ebalatu diren 240 proiektuetatik %90k arrakastaz bete zituen ezarritako helburuak. Kontueta iruzurra eta makillajea dagoenaren salaketa bidegabekeria da. Proiektuak gauzatzean erakutsi dugun gardentasuna izaten da bermerik onena, gure kontuak kanpoko ikuskaritzaren eskuetan jartzen ditugunean".

Arrakastak, alabaina, erakunde hauen jatorriko izaera (hasiera batean altruismoa zen ezaugarri nagusia) aldarazi du. Jatorrizko izaera haren ondoren beste bat etorri da, beste era batera jarduten duena. Hala, hasierako boluntario haien ordez, orain pertsonal kontratatua ari da lanean, eta horrek finantza-baliabide batzuk eta soldatak finkatzea eskatzen du

4. Erregearen limosnariak

Demetrio Casadok⁴⁹ adierazten duenez “*Ez da inolako desegokikeria edo gehiegikeria inolako zurikeriarik gabe esatea Espainiako Estatuaren esparruan ez dagoela Gobernuaren politika ofizial bat edo antzeko zerbait diseinaturik oro har hirugarren sektoreari buruz*”. Hala ere horrek ez du esan nahi egungo gobernuak edota aurreko gobernuek ez zutenik milaka eta milaka estrategia eta jarduera-politika diseinaturik. Arazoa guztiz kontrakoa da. Egoera honek badu zerikusi sektorearen ezaugarri berezi batekin, alegia, barruko erlazioak oso konplexuak, zaila eta ilunak izatearekin, bata bestearen kontrako lehian ari direnarekin eta aldi berean lankidetzan ari direnarekin, elkarri laguntzekoarekin eta elkarri erasotzekoarekin.

5. *Statu quo*arekin lankidetzan

Irabazi asmorik gabeko sektorearen izaerari buruzko bi planteamendu, gizarte zibilera itzultzearena eta gizarte-ekonomiarena, bat datoz irabazi asmorik gabeko sektorearen dimentsio politiko positibori lehentasuna emateaz eta sektorearen dimentsio negatiboa atzean uzteaz. Alabaina, irabazi asmorik gabeko sektorearen gunerik enblematikoenetako batean, GEIAEan, alegia eta, zehatzago, GGKEan, ahots kritikoak sortu dira, funtzio positibo horiek goraipatzen dituztenen kontra eta aldi berean alde negatiboak azpimarratuz. Ahots horiek adierazten dutenez, irabazi asmorik gabeko sektorearen garapena Estatua ordezkatzeko mekanismo bat balitz bezala manipulatzeko mekanismo arbitrario baten antzekoa da, eta horren xedea zera da:

- Horri nazioarteko mailan dagozkion erantzukizun politikoak bete beharra ekiditea.
- Iparra-Hegoaren arteko elkarriketarako eta lankidetzarako gezurrezko mekanismo bat eraikitzea, bi poloen arteko oreka sozio-politikoan aurrera eragiteko borrokatu beharrean, mantentzeko eta indartzeko ahalegin ezkutua egiten dituen⁵⁰.

6. Erantzukizunaren kontzientziarik eza

Herritarren elkarteak askotan instituzioen erakundeek beren “gizarte-lotzaile” eginkizuna betetzeko baliabiderik onena eta gehien erabiliena dela onartu ondoren, eta herritarren elkarkidetasun hori ez dela botere publikoak bere beharkizunak alde batera uzteko baliabide bat adierazi ondoren, B. Garcíak⁵¹ gogoratu du eskubideen gure

Irabazi asmorik gabeko sektorearen gunerik enblematikoenetako batean, GEIAEan, alegia eta, zehatzago, GGKEan, ahots kritikoak sortu dira, funtzio positibo horiek goraipatzen dituztenen kontrako iritziak emanez edota alde negatiboak azpimarratuz. Ahots horiek adierazten dutenez, irabazi asmorik gabeko sektorearen garapena Estatua ordezkatzeko mekanismo bat balitz bezala manipulatzeko mekanismo arbitrario baten antzekoa da

49. Casado Demetrio (1998), El Sector No Lucrativo en España. 8. kapitulu

50. Ruiz Olabuénaga y Jiménez Lara (1998). El Sector No Lucrativo en España.

51. García Izquierdo B (1996). Boletín de Estudios Económicos 1999.

sistema demokratikoaren barruan gizartearen aurrerabidea geroz eta gehiago oinarritzen dela Estatuak eta gizartearen elkarkidetasunak elkarren arteko legitimazioan. GEIAEei eta bereziki GGKEi ematen zaien garrantzi handia ofizialtasunaren “ez ikuste eta ahanztearen kultura”ri kontrajarrita elkartasunaren kultura eraiki eta sustatzeko xedea duten proiektuak gidatzetik sortu da. Helmuga horretara iristek gure azpiegitura kulturala, munduaren ikuspegia eta bere etorkizunean betetzen dugun eginkizuna eraldatzea eskatzen du.

GKEen erronka nagusia, beraz, bere mezu, ekintza eta helburuak gizartera helaraztea, horrek, aldi berean, irabazi asmorik gabeko erakundeek proposatu dizkieten prozesuan konpromisoak har ditzan. Beren idiosinkrasiak berak honako bideetako bat aukeratu beharra eskatzen die: jada finkatuta dagoen sistema soziopolitiko, ekonomiko eta kulturean aldaketa garrantzitsuak egitea edota estatuari ordezkari izatea horren erantzukizun zati handi bat bereganatuz. Aukeraketa horrek, era berean, erakundeei edo konpromiso politikoa eta aldaketa soziala aukeratzea edo operatibotasunaren ildoan jarraitzea aldaketarik egin gabe eta betiere ikuspegi ekonomizistaren barruan.

B. Garcíak nabarmenarazten duenez *"Onartu beharrekoa da GEIAEk, sarritan, itxura ematen dutela ez direla ohartzen zein egoeratan dauden, hasierako laguntza-fasetik egungo boterera, tokian tokiko eskuartzetik eskuartze globalera, norabide bakarreko laguntza-eskaintzatik ikasketa elkarrekin trukatzera beraiek izan duten bilakaeraren ondorioz"*. GEIAEk gaur egun dauden fase honetan *"premiakotzat jotzen da baliabideen zati garrantzitsuagoak bideratzea nork bere herritarrak sentiberatzera, kontzientziatzera eta mobilizatzera; hartara herritarrek ez daitezten mugatu dohaintza hutsak egitera, tupusteko beroaldiaren arabera ekintzak egitera eta kontzientziak lasaitzeko jardueretara, baizik eta munduko justizia-egoera hobetzearen eta gizarte-bazterketa kentzearen aldeko gizarte-mugimenduei eta programei laguntzera"* (Ibidem).

“David eta Goliat” elkarrekin alderatzea bada ere, oinarritzko elkartearen jarrera iraunkor eta errepikariak, M. Funes-ek⁵² dioen bezala, eraginak dauzka korporazioetan, zenbait alderdi jakini dagokienez. Ez dugu ahaztu behar erakunde altruisten eginkizun behinena gizartea zenbait planteamenduren gainean sentiberatzea dela, hala nola beraiek defendatzen dituzten ondasunenganako begiruneko ikuspegia zabaltzea edo hori ulertarazteko joera hedatzea.

GKEen erronka nagusia, beraz, bere mezu, ekintza eta helburuak gizartera helaraztea da, horrek, aldi berean, irabazi asmorik gabeko erakundeek proposatu dizkieten prozesuan konpromisoak har ditzan

52. Funes M.J. (1995) La Ilusión Solidaria. UNED. Madril

GEIAEn estrategiarik egokiena eta lehentasun handiena duena da garapenerako sentiberatze eta heziketa hedatzeko jarduerak areagotzea. Hemen iradokitzen diren sentiberatze-jarduerak beste jarduera batzuekin osatu behar dira, adibidez, erakundeen identitatea, xedea eta egiten duten lana komunikatzeko eta adierazteko ahaleginak gehitzea.

GEIAEk aurrean duten beste erronka bat da beren oinarri soziala kuantitatiboki eta kualitatiboki garatzeko jarduerak antolatzea. Horrenbestez, erakundeek oinarri sozial bat eratu behar dute, parte-hartzailea, beren etorkizuneko jarduerak oinarri sendo bat izan dezaten. GEIAEn itxurazko arrakastak ez du esanahi elkartasunak gure gizartean gora egin duenik, baizik eta elkartasun horrek egitura natural eta bat-batekotik beste egitura korporatibo eta propositiborako jauzia eman duela. Hau da, ez dago elkartasun eta lankidetzaz sozial gehiagorik, elkarre eta erakunde gehiago daudela baizik. Eta jarraitzen du, *“Autore askok –eta ni horiekin bat– diote Espainian elkartasun iraunkorren kultura bat dagoela. Kultura hori garatzea da, hain zuzen, bere eginkizunik premiazkoena”* (Ibid).

7. Bitartekaritza babestua

González Parada, Canciani eta beste batzuen aburuz, *“Iparralde garatuak Hegoalde azpigaratuarekin antolatzen dituen lankidetzazko programak irizpide politikoekin finkatzen dira, eta irizpide horiek gehiago begiratzen diote gizarte aberatsek gizarte pobreak ustiatzen jarraitzeko xedeari, herrien berdintasunean oinarritzen den nazioarteko elkartasunari baino”*. *“Nazioarteko lankidetzazko estatuen arteko hartu-eman ekonomikoaren modu bat da, baina baita ere estatu aberatsen ideologia berri bat, geroz eta gehiago barrura begira antolatzen dena”*.

Politikoki berdinararen diren herritarren arteko elkartasunezko lankidetzazko baino gehiago, *“herrialde aberatsen jarduerak bateratu edo adostu honek batzuetan lankidetzazko hartzen duen herrialde pobreak bigarren Gobernu balitz bezala jarduten du. Hartara, Hegoaldeko herrialdeetan ‘gubernukide’ batzuk sortzen dira eta, ondorioz, herrialde horietako Gobernu nazionalak tokiko ordezkariarena egiten du eta kanpoko lankidetzazko nazioarteko ordezkariarena. Injerentzia humanitarioaren ondoren eta ondoriozko subiranotasunaren galeraren ondoren, kanpoko jurisdikzioa sartzen da eta hori herrialdean herrialdeko ordenaren gainean jartzen da, baita giza bizitzaren, merkataritzaren eta garapen ekonomikoaren gainean ere”*⁵³. Testuin-

GEIAEn itxurazko arrakastak ez du esanahi elkartasunak gure gizartean gora egin duenik, baizik eta elkartasun horrek egitura natural eta bat-batekotik beste egitura korporatibo eta propositiborako jauzia eman duela

53. González Parada y otros (1995). La Función de las ONGs en la ayuda al desarrollo.

guru horretan, eta estatu aberatsak herrialde horietako garapenera bideratzen diren baliabideen hornitzaile nagusiak direnez, GEIAEak dilema gaindiezinaren aurrean aurkitzen dira: edo herrialde aberats horien fondoei uko egin beren elkartasunezko asmoak gordetzeko edo Estatu indartsu horien menera jarri beren baliabideak erabili ahal izateko. Nazioarteko programa horietan parte hartzen duten GEIAEak, herrialde pobre horietako gizartean dagokien eginkizunari ukorik egin gabe ere, elkartasun-asmoa ordezkatzeko eginkizuna bereganatzen dute eta Hegoak Iparrari zor dion mendekotasuna betikotzen laguntzen dute, erabat baztertu den elkartasun- eta altruismo- irudiz mozturirik.

“Botere publikoek geroz eta gehiago galtzen ari diren legitimazioaren aurrean, GEIAEn jarduera adostasunerako faktoretzat erabiltzaket –izatez, jada erabiltzen ari dira– botere horiek. Jakina, horrekin ez dugu esan nahi GEIAEak horretara dedikatzen direnik, baizik eta Estatu indartsuei horixe interesatzen zaiela, hau da, GEIAEak beren tresna bezala erabili, eta nahiko arrakastaz lortzen dute gainera. Beren eginkizunaren ordezkapen horrekin GEIAEak Estatu ahulen eta indartsuen arteko bitartekari bihurtzen dira, fondoak lortzeko, daudenak handitzeko edota pobreen politikak aldatzeko; GEIAEak gizartera ‘jaisten’ dituzte gizarte horretatik oso hurbil dauden herrialdeek estrategikoki antolatutako politikak. Hala ere, horrekin abantaila batzuk lortzen dituzte eta horietako bat da, Hegoko erakundeekin duten lotura handiagoa izatea, hots, herrialde horiek arazoi buruzko informazio hurbilekoa eta lehen eskukoa jasotzen dute. Horrekin guztiarekin, beren eginkizunaren garrantziak gora egiten du eta Gobernuak alde aurretik eratzen dituzten helburu eta politiken erantzukizuna eta konpromisoa (hau da, mendekotasun instituzionala) bereganatzen dute; GEIAEk, bestalde, gobernu horiengana jotzen dute beren proiektuak aurrera ateratzeko”.

Lankidetasunaren arloko anbigutasun horiei buruz ohartzeak ekarri du, alde batetik, GEIAEk lortu duten heldutasuna (laugarren belaunaldikoak) eta, bestetik, heldutasun hori boteretsu bihurtzea (empowerment) gizarteko eginkizunetan eta politikaren presioan.

8. Pobreziaren suhiltzaileak⁵⁴

Garapenerako nazioarteko lankidetzaren kritikariek ez diete eskatzen GEIAEi kontzientzia berri bat hartzeko gizartean dagoen erantzukizunari buruz, eta ez diete eskatzen ezta ere beren lana

Estatu aberatsak herrialde horietako garapenera bideratzen diren baliabideen hornitzaile nagusiak direnez, GEIAEak dilema gaindiezinaren aurrean aurkitzen dira: edo herrialde aberats horien fondoei uko egin beren elkartasunezko asmoak gordetzeko edo Estatu indartsu horien menera jarri beren baliabideak erabili ahal izateko

54. Paz y Tercer Mundo (2002), Una Cooperación Alternativa para otro mundo posible.

Estatuei hegemonia soziala kentzera mugatzeko. Porto Alegreko foroan parte hartu zutenek (Euskal Autonomia Erkidegoko taldeek parte hartze handia izan zuten foro honetan) erakunde hauei egindako kritikak onartu zituzten zera adierazi zutenean: *“Garapenaren lankidetzarako gobernuz kanpoko (GGKE) erakundeek betetzen ditugun eginkizunen kontra egindako kritikak zuzenak dira, instituzio ekonomiko eta politiko indartsuenek, Iparraldeko gizarteetan adostasun moral hipokrita bat sinatzeko, pobreziaren suhiltzaile eta armada humanitario bezala ematen diguten paperari zor diogun mendekotasuna erakusten duten heinean”*.

Instituzio neoliberalak mugimendu sozial alternatiboak ordezkatzeko baliabidetzat erabiltzen dituzte GGKEak. Instituzio horiek, halaber, beren bezeroak izango diren oinarri sozialak sortzeko eskatzen diete GGKEi; edota horiek Estatuaren gizarte-eginkizunak bere gain har ditzaten nahi dute, Estatuak errepresio-aparatu izan daitezzen edo merkatu globalaren diktaduraren morrontzan dagoen atal politiko hutsa.

Adituek, ordea, ukatu egiten dute kritika hau GGKE guztietara zabaldu daitekeenik, eta onartzen dute badirela hainbat eta hainbat erakunde, maila herrikoian, aldaketa politikoaren aldeko prozesu sozialetan eta gatazketan konprometituta daudenak. Porrota, beren iritzian, ez da GGKEtan gertatu, garapenerako lankidetzaren mugimenduarekin batera egindako teoriarik baizik; horren arabera, herrialde aberatsen hazkunde garrantzitsu batek gainontzeko herrialdeen hazkunde ekarriko lukete. Baina, aberatsen hazkunde horrek kontrako eragina izan du eta garbi ikusten da horien bizimodua, ongizatea, munduko gainontzeko herrialdeetan desberdintasuna gehitzeaz mantentzen dela bakarrik, aberastasun hori mundu mailan hedatzea ezinezkoa delako.

Horregatik, munduko instituzio ekonomikoek, gobernuak eta nazioarteko erakundeek, aspaldi utzi dute Hegoaldeko herrialdeen garapena alde batera, eta GGKEen egungo gorakada tranpaz eta maltzurkeriaz beteta dago: elkartasuna deitzen zaio, errealitatean kredituz eta enpresak itxuraz mozorroturik sartzen den merkantilismo hutsari edota, onen onenean, egiturazko pobreziaren arazoari aurre egiteko ezintasunez beteta dagoen asistentziari.

Egungo globalizazioa geroz eta gehiago politikoa dena desagertzean oinarritzen den sistema politiko bezala aurkezten da. Apolitikotzat aurkeztuz, globalizazio neoliberalak goi politika egiten du, bere printzipioa merkatuak agintzen duena betetzea delako eta gobernuak merkatu totalitario horrek agintzen duena administratu behar dutelako.

Instituzio neoliberalak mugimendu sozial alternatiboak ordezkatzeko baliabidetzat erabiltzen dituzte GGKEak. Instituzio horiek, halaber, beren bezeroak izango diren oinarri sozialak sortzeko eskatzen diete GGKEi

Mundu merkantilista horrek, boteretsua bada ere, aldi berean neoliberalismoaren bakardadea adierazten du, eta ahalegin ikaragarria egiten du, Hegoaldeko herrialdeetako gizarte zibilaren deialdian parte hartzeko, bere egokitzapen-planen kontrako protestak samurtzeko eta bere proiektuen aldeko laguntzak bilatzeko. Hori dela eta, GGKEi partaidetza eskatzen die Hegoaldeko herrialde horiek hobeto gobernatzeko eta era berean herrialde horietako gobernuetara egonkortasun soziala eta legitimotasun politikoa eramateko. Joko politiko horren truk, herrialdean herrialdeko politika neoliberalak pobreziaren kontrako hitzarmenak egin eta dirutza handiak emango lituzkete. Neoliberalismoak instituzio publikoak ordezkatzeko dituen gizarte zibila behar du, hots, herrialde horietako gobernuari dagozkien gizarte-erantzukizunak bereganatuko dituen gizarte zibila. Hala, Estatuak boterea banatu egiten du bere erantzukizunei itzuri egiteko eta botere ekonomiko handiek luzatutako zuzkiduren administrari bihurtzeko.

GGKEen kasuan, horiek etengabeko egiaztatu behar dute beren independentzia lankidetzaz neoliberalen programa eta ahalegin horietan, eta gizartean eskuartzeko alternatibak aurkeztu behar dituzte, Estatuari beren gizarte-erantzukizunak beregana ditzaten eskatzeko. GGKEak gaur egun dauden bidegurutzea ez da etorri bakar-bakarrik biktimen aldeko estrategiaren zerbitzuan egoteaz edo ez egoteaz. Egoera horrek badu zerikusirik, bereziki gainera, neoliberalismoak gobernu eta hainbat instituzioen bidez (Munduko Bankua, FMI, eta holakoak) ematen dien eginkizunarekin. Horregatik GKEak erne ibili behar dute estatuen erantzukizunak ez ordezkatzeko edota erantzukizun horiek nahigabe desegiteko.

5.4. ERRONKAK ETA KUDEAKETARAKO ALTERNATIBAK

Erronkak

Arriskurik handienei begiratu bat eman ondoren, instituzio bezala jarraitzeak daukan mehatxua azpimarratu nahi dugu, hala nola, merkaturia globalizatu duten agentziek egiten dituzten mehatxuak: morrontza, burokratizazio marjinala, iruzurrerako bidea, erantzukizunak bertan behera uztea, zaintzapeko bitartekaritza, lehiakidetzak, eta abar. Arrisku horiek guztiak benetakoak dira, eta sektorearen bizipenaren eta heldutasunaren kontrako erronkak dira. Erronka horiek guztiak alternatiba bihurtzen dira, baina Scilla eta Caribdisen antzerik, elkartasunaren itsaso barean pasabidea estutzen dute eta sektorearen bizia arriskuan jartzen duten mehatxu bihurtzen dira. Izatez,

Horregatik GKEak erne ibili behar dute estatuen erantzukizunak ez ordezkatzeko edota erantzukizun horiek nahigabe desegiteko

sektoreak alternatiba itxuraz mozorrotuta agertzen diren hainbat erronkari egin behar die aurre, edo horiek guztiak ekidin behar ditu

Erronka horien jiteak alde batetik bestera mugitu beharra eskatzen du, estatu-merkatuaren eta irabazi asmorik gabeko sektorearen arteko gatazka-hipotesitik beren arteko lankidetzaren autonomora.

Irabazi asmorik gabeko sektoreak, adibidez, geroz eta gehiago herri-administrazioa (tokikora, lurraldekora, erkidegokora edo estatukora) hurbiltzeko ahaleginak egiten ditu, beste era batera lortuko ez lukeen finantza-euskarria aurkitzeko, baina aldi berean bere jarduerestrategiak aukeratu, garatu eta kudeatzeko ahaleginak egiten ditu, erakunde eratu bati dagozkion autonomia eta nortasunik handienaz. Ibilbide horretako edozein hertzetara kontrolik gabe desbideratzeak labarren kontra kolpatu eta desegitea ekar dezake.

Esan izan da, eta arrazoi handiz gainera, hirugarren sektorearen ezaugarriak nabarmenena komunitatea gizarte zibilaren bidez egituratzeko gai dela. Bestalde, eta kontuan izanik elkarte hauek ezinbestekoak direla gizarte zibila egituratzeko, aldi berean gizartea aldatzeko alternatiba-iturriak ere badira eta plataformarenak egiten dute herritarrek beren erantzukizun soziala betetzeko beren borondatez erabakitzen dituzten jardueren bidez. Misio hori, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta batez ere gizarte-ekimenekoek bereganatzen dutena, ez da nahastu behar Estatuari dagokion rolaekin, horrek eginbeharrak herri subiranoaren eskuz hartzen baititu, hau da, botoaren bidez. Administrazioari dagokion legitimotasuna ez da irabazi asmorik gabeko erakundeei dagokien bera.

Egia da herritarren eskuartze antolatuak eragina duela pertsonen oinarrizko eta funtsezko eskubideei buruzko errespeturik eta asetasunik handiena lortzeko bidean; eta egia da, berebat, herritarren elkar-teak sarritan baliabiderik onenak eta eraginkorrenak direla instituzioek beren “gizarte-kohezionatzaile” papera betetzeko, baina erakundeek “beregantutako misio” horrek ez du herriaren “onespen ofizial”ik, hau da: a) misio hori ezin da botere publikoari bere erantzukizunak bertan behera uzteko baimena ematen dion mekanismotzat hartu eta eginkizun hori elkarteen esku jarri eta bere herritarrei gutxiengo ongizatea emateko obligaziotik libre gelditzeko; b) misio hori ezin da ulertu administrazioei herritarrek eman dieten eginkizunak betebeharrean ordezkatzeko legitimotasun aski duen misiotzat. Gainera, kontuan izan behar da, elkarte edo erakunde hauek (GEIAEak eta GGKEak) ez dutela ez baliabide nahikorik ez behar den indar espezifikorik, sis-

Irabazi asmorik gabeko sektoreak, adibidez, geroz eta gehiago herri-administrazioa (tokikora, lurraldekora, erkidegokora edo estatukora) hurbiltzeko ahaleginak egiten ditu, beste era batera lortuko ez lukeen finantza-euskarria aurkitzeko, baina aldi berean bere jarduerestrategiak aukeratu, garatu eta kudeatzeko ahaleginak egiten ditu, erakunde eratu bati dagozkion autonomia eta nortasunik handienaz

tema sozialean aldaketak eragiteko, egun batean nazioarteko eszenategian nagusi diren botere nazional indartsuek eta multinazionalak duten eraginaren kontra jokatu nahi badute.

Horrek guztiak, oro har, GEIAEak “demokrazia ezperfektu”aren aporiaren aurrean jartzen du, ezinezko bidearen aurrean ez esatearren. Eta hori garbi ikusten da: a) GEIAEek eskaintzen duten elkartasun antolatua ez gozatzen duen gizartearen legitimotasunak erantzun bat eskatzen diete erakundeei gizarte horren beharrak arintzeko eta asetzeko; b) aldi berean, Administrazioaren erantzukizuna albo batera uzteko (eta are gutxiago ordezkatzeko) legitimotasun ezak “bigarren mailako sasifuntzionariotza”ren papera betetzera eramaten ditu edota “ongizatea iraultzeko profetismo edo frenetismora”.

Gobernuz kanpoko erakundeek gizartean lortu duten arrakastak gizartearen laguntza-eskaera (instituzioek egiten ez dutena betetzeko, zuzentzeko eta alternatiba bezala) areagotzen du, baina erakunde hauek beren elkartasun-programak modu “autonomo”an kudeatzeko duten baliabide eta bitartekorik ezak aporiazko alternatibetara bultzatzen ditu, eta horiek “utopia” irrazionalaren eta agintaritzaren interesen segimendu baldintza gabearen inguruan mugitzen dira. “Ongizate-estatuaren estatalizazio”aren eta “gizarte zibilerako itzul”eraren bitartean elkartasun eran eta modu interesatuan onartu daitezkeen jarduera-estrategien plataforma bat dago. Estrategia-plataforma horren aurrean burutu behar den politikari buruzko eztabaidak ez doaz aldarrikapen ideologikoak baino harantzago. Hori dela eta, arreta pixka bat eskatzen dute.

Kudeaketa alternatibak

“Demokrazia ezperfektu” honek misio boluntarioko erakundeei galdetzen dizkien eztabaidak era askotakoak dira, eta horien bidez erakundeek etorkizun hurbilean izango dituzten erronkak ikus daitezke.

Borondatezko erakundeen garapenerako gizarteak egiten dituen erronka horietako bakoitzak kudeaketarako estrategia alternatiba sorta bat aurkezten du. Hona horietako batzuk laburbilduz:

- **Pobreak baina autonomoak versus iturri kontrolatuak.** Erakundeen helburuak erakundeek bereganatutako misio mota bakoitzaren arabera kudeatzeko baliabideak lortzeko borroka arriskuan jartzen du irabazi asmorik gabeko erakundeen izaera, horiek (herri-hizkeran esaten den moduan) “Salvation Army” balira bezala jardutetik “pertsiar merkatu”ko beduinoen karabanak bailira jardutera aldatzen direlako.

“Ongizate-estatuaren estatalizazio”aren eta “gizarte zibilerako itzul”eraren bitartean elkartasun eran eta modu interesatuan onartu daitezkeen jarduera-estrategien plataforma bat dago

- **Lobbying-makinak versus “gizarte-langileak”.** Ikuspegi zabalago eta sakonago batetik begiraturaz, GKEk gaur egun konpromiso politiko baten alde jokatu behar dute trinko eta erabakigarri, edota bestela pertsonen bizi-baldintzak presionatzera eta aldatzera mugatu behar dira; beste era batera esanda, gizartearen sustapeneko proiektuak gauzatu behar badituzte ere, *statu quo* kontrolatzen duten botere eta egiturekiko mugatuta daude. Alternatiba horren kontrako analisi asko plazaratu dira eta horietan adierazten denez, GEIEAek arrisku handia dute manipulatuak izateko eta epe luzera pobreziaren kontrako suhiltzailearenak egingo duten bitartekari hutsak izateko, edota Administrazioek ezarritako herri politiketako funtzionario ordezkari bihurtzeko. Paradoxikoki, GGKE baten arrakasta zenbat eta handiagoa izan askoz ere handiagoa izango da zurgatzaileen ahaleginen menpe jartzeko arriskua eta, ondorioz, “elkartasunaren protagonista” zena “agintari politikoen mandatari” bihurtzekoa.

Gizarteari zerbitzuak eskaintzeko tresna izateak erakunde hauek beren errebindikazio sozialaren jiteari uko egitera eta horren ordeztaliabideak kudeatzeko enpresa-eredua onartzera eramaten ditu

- **Korronte globalean edo bere tokian egon beharra** “Mundua aldatzeko erantzukizuna ezin da utzi GKEen eskuan” zioen ACNUReko goi arduradun batek, indar ekonomiko nazionalen eta multinazionalen eraginaren aurrean. Baina irabazi asmorik gabeko erakundeak ezin dute eskuak lotuta egon eta indar horiei nahi duten guztia egiten utzi. Paradoxa bada ere, globaltasunari irabazi asmorik gabeko erakundeek eratu dezaketen beste globaltasun baten bidez erantzun behar zaio.

Gizarteari zerbitzuak eskaintzeko tresna izateak erakunde hauek beren errebindikazio sozialaren jiteari uko egitera behar ditu eta horren ordeztaliabideak kudeatzeko enpresa-eredua onartzera eramaten ditu. Irabazi asmorik gabeko elkarkidetasun-mugimenduaren arrakasta sozialak (politikoa bezain ekonomikoa) interes eta jardueragaitasun batzuk sustatu beharra eskatzen du eta, ondorioz, erakundeek erabat berregituratu behar dituzte beren filosofia, jardunbidea, korporazio-egitura eta azken helburuak

Laburbilduz, esan daiteke “berregituratzeko presio” aren prozesu horiek, kontzienteki edo inkontzienteki, “gezurrezko urrats” bihurtzeko sektorearentzat. Lan honetarako erabili den erreferentzia-iturriaren egileek uste dute urrats horiek gehiago direla kaltegarri mesedegarri baino irabazi asmorik gabeko sektorearentzat:

- **Bigarren mailako funtzionaritzaren finkapena**, lau dimentzio kontrolatzen ez badira: mesfidantza historikoa, estatu-

fedea, instituzio eta ekonomiarenganako morrontza eta klientelismoa.

- **Ohargabeen elkarkidetasun-sindikalismoa sustatzea**, korporatibizazio prozesuen bidez elikaturik, kritikari uko egitea, sektarismoa eta tribalizazioa, errutina eta Ongizate-Estatuarenganako morrontza pribatizatua.
- **Elkarkidetasuneko kapitalismoaren garapen progresiboa**, modernizatze, profesionalizatze, ekonomizismo eta marketinizatzea bultzaturik.
- **Misioaren ahultzea**, zenbait instituzioek (kudeatzeko baino gehiago fondo-sortzaile diren aurrezki kutxak, kooperatibak, kirol klubak, fundazioak...) izan duten antolakuntza-prozesuetan erortzea.

Irabazi asmorik gabeko
elkarkidetasun-
mugimenduaren
arrakasta sozialak
(politikoa bezain
ekonomikoa) interes eta
jarduera-gaitasun
batzuk sustatu beharra
eskutzen du eta,
ondorioz, erakundeek
erabat berregituratu
behar dituzte beren
filosofia, jardunbidea,
korporazio-egitura eta
azken helburuak

*6. Hirugarren sektorearen eta euskal
administrazioaren arteko
harremanak. Biek egiten duten
ekarpena gizarte eta ekonomian
sartzeko*

6. Hirugarren sektorearen eta euskal administrazioaren arteko harremanak. Biek egiten duten ekarpena gizarte eta ekonomian sartzeko

Irabazi asmorik gabeko sektoreak oro har oso harreman garrantzitsuak dauzka euskal Administrazioarekin, eta harreman hori are estuagoa da gizarte-ekimeneko erakundeetan. Hirugarren sektoreko erakundeek eta euskal Administrazioak ahalegin bereziak egiten ari dira arreta berezia behar duten giza talde ezberdinen premiei aurre egiteko proiektu eta ekimen berriak sustatzeko.

Aipagarri gertatzen dira euskal Administrazioak hirugarren sektoreko erakundeekin dituen harremanetan eman diren aurrerapausoak. Horiek batez ere bi alderdi nagusi hauen inguruan bideratu dira:

- Irabazi asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko erakundeei Eusko Jaurlaritzaren aholkularitza batzordean (Gizarte-Ongizateko Euskal Kontseilua, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Euskal Boluntarioen Kontseilua...) parte hartzeko aukera ematea.
- Euskal Administrazioaren laguntza era askotako ekimen berriak sortzeko: gizarteratzen laguntzeko enpresak⁵⁵, aurrezteko elkartasun-entitateak eta banka; zerbitzuen aniztasuna, pobrezian dauden giza taldeengana, drogamenpekotasuna dutenengana eta tratu txarrak jasaten dituztenengana iristeko, eta abar; edota, jite estrategikoz eta izaera irekiz ekimen aitzindari bezala eratu den Boluntariotzako Lehen Euskal Planaren barruan boluntariotza sustatzeko neurriak hartzea.

Ildo horretatik, eta irudi bat emateko asmo hutsarekin, kapitulu honetan Equal, Ekimen Komunitarioaren gizarteratze-enpresak sustatzeko ITUN (Lan Baliagarri eta Beharrezkora Gehitzea) Proiektuaren laburpen bat eskaintzen dugu, hala nola jada aipatutako Boluntariotzako Euskal Planeko laugarren eta azken kapitulua, hain zuzen ere, jarduera-ildoak jasotzen dituztenak.

Azpimarratu beharra dago, halaber, gure komunitateak jada nahiko adibide dituela, euskal Administrazioa eta hirugarren sektorea elkarren osagarri direla egiaztatzen dutenak, hots, elkar aberastu eta

Hirugarren sektoreko erakundeek zerbitzuak eskaintzen dituzte eta euskal administrazioak ahalegin bereziak egiten ari dira arreta berezia behar duten giza talde ezberdinen premiei aurre egiteko proiektu eta ekimen berriak sustatzeko

55. Abenduak 26ko 305/2000 Dekretuak, gizarteratze-enpresen kalifikazioa arautzen duenak, bertarako sarbidearen prozedimendua eta gizarteratze-enpresen erregistroa jasotzen du.

promozionatzen dutenak. Elkarri laguntzeko ikuspegi horretan oinarriturik, emaitza positiboak lortzea eta zerbitzu eraginkorrak eta kalitatekoak lortzeko ahaleginak egin dira; esan gabe doa, lorpen horiek bestela oso zailak izango zirela, ezinezkoak izango zirela ez esatearren. Esan behar da, berebat, ahalegin horiek bata bestearen parte hartzea eskatzen zutela eta gizartean eskuartzeko planteamendu bateratuak eta partekatuak egitea, bai diagnostikoa eta antolaketa egiterakoan bai zereginak arautzerakoan, kudeatzerakoan, segimendua egiterakoan eta ebaluatzerakoan.

Gainera, uste da euskal Administrazioa eskaintzen ari den laguntza desberdinek ezinbesteko gertatu direla hirugarren sektoreko erakunde asko eta asko indartzeko eta finkatzeko. Eta horrek, aldi berean, aukera eman dio Administrazioari, maila askotan gainera, gizarteko eskari eta premia garrantzitsuei erantzun egokiak emateko. Honetan sartu garelarik, esan behar da, Administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko lankidetzak hori gabe ezinezkoa izango zela gaur egun EAEn daukagun gizarte-ongizate maila lortzea.

Nolanahi ere, ez ditugu ahaztu behar gure gizarteak aurrean dauzkan gizarte-premia eta arriskuen tamaina eta konplexutasuna. Arazo horri loturik, hain zuzen, hainbat forok irabazi asmorik gabeko sektorearen eta herri-administrazioen arteko harremanak sakondu, trinkotu eta aberastu beharra aldarrikatzen dute. Lankidetzak horren onura ahaztu gabe, gogorarazi behar da bi sektore horiek beren balore, nortasun eta gaitasun bereziak mantendu behar dituztela, eta ahaleginak egin behar dituztela beren arteko sinergiak eta misio partekatua hobetzeko eta indartzeko.

Herri-administrazioen eta irabazi asmorik gabeko erakundeen artean dauden esperientzia baikorrak eta egoeren ezberdintasuna onartu ondoren, aditu batzuek hirugarren sektoreko erakundeen eta euskal herri-administrazioen artean dauden ahuluneak eta erronkak identifikatu dituzte.

AHULUNEAK:

- Aurreiritziak
- Mesfidantza
- Ikuspegi partzialak
- Mendekotasuna
- Nortasuna eta misioa lausotzea
- Elkarriketa zatikatua.

Elkarri laguntzeko ikuspegi horretan oinarriturik, emaitza positiboak lortzeko eta zerbitzu eraginkorrak eta kalitatekoak lortzeko ahaleginak egin dira; esan gabe doa, lorpen horiek bestela oso zailak izango zirela, ezinezkoak izango zirela ez esatearren. Ahalegin horiek bata bestearen parte hartzea eskatzen zuten, hala nola gizartean eskuartzeko planteamendu bateratuak egitea, prozesu iraunkor eta integralerako

ERRONKAK ETA JARDUERA-PROPOSAMENAK

- Jardueraren xede izan daitezkeen balizko giza taldeen premia eta eskariak gune berean biltzea.
- Ikuspegi eta balore komun eta bereziak lantzea, hala nola kultura partekatua
- Herritarrak eta produkzio-bilbea sentiberatzea eta dinamizatzea; dauden bideak indartzea eta beste berri batzuk eratzea jarduerak antolatzeko, kudeatzeko eta ebaluatzeko.
- Koordinazio- eta lankidetzaren sareak eratzea eta indartzea.
- Kudeaketa modernizatzea. Arreta berezia ematea giza baliabideei –langileak eta boluntarioak– eta horien profilak, gaitasunak eta heziketa-premiak identifikatzea.
- Jite orokorreko politika publikoak ezartzea, legearen esparruan eta beste batzuetan jarduera-ildo berriak garatzeko eta horiekin egitura eta baliabideak partekatzeko bideak bilatzeko, boluntariotza sustatzeko, gizartean asmoak eta sentiberatasuna hedatzeko eta lankidetzaren eredu bat sustatzeko, baita herri-administrazioaren eta hirugarren sektorearen arteko harremanak bateratzeko ere.

Hainbat forok irabazi asmorik gabeko sektorearen eta herri-administrazioen arteko harremanak sakondu, trinkotu eta aberastu beharra aldarrikatzen dute

ITUN PROIEKTUA (www.ituna.org)

ITUN proiektua –Lan Baliagarri eta Beharrezkora Gehitzeko Proiektua– premiazko jarduerakotzat sailkatu diren bederlatzi eskualdetan dauden pertsona baztertuekin jarduteko programa integral bezala proposatu da.

Helburu orokorrak

Baztertuta daudenei enplegu bat bilatu eta gizarteratzen laguntzeko eratzten diren jarduerak eta programak aurrera ateratzeko ikuspuntuak, ekimenak eta esperientziak aurkeztea, eztabaidatzea eta elkarri trukitzea dira ITUN proiektuaren helburu nagusiak

Helburu bereziak

Honakoak dira, besteak beste, ITUN programaren helburuak:

- Gizarteratzeko baliabide eta zerbitzu berriak esperimentatzea.

- Gizarteratzeko enpresak eta horien laguntzarako sareak sustatzea.
- Elkartasuneko enpresak garatzea.
- Elkartasuneko ekonomiarako bideak garatzea (banka soziala...).

Agenteak

Proiektu hau era askotako agente edo eragileentzat egin da. Horrekin, EAEn orain arte inoiz erabili ez diren ikuspegi, metodo eta praktika berriak jarri nahi dira abian lan-merkatutik bazterketa, diskriminazioa eta desberdintasuna kentzeko.

Ondoren, ITUN Proiektua Garatzeko Elkarteak eratu duten eragile horien zerrenda eskainiko dugu.

- Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza

- Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza
- Gipuzkoako Foru Aldundia, Ekonomia eta Turismo Departamentua
- BBK Gazte Lanbidean Fundazioa
- Euskadiko Kutxa
- Gipuzkoa Donostia Kutxa
- Vital Kutxa
- Egailan- Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Sozietate Publikoa
- Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea
- Eudel- Euskadiko Udalen Elkartea
- Garapen- Garapen Agentzien Euskal Elkartea
- Gizarte Laneko Eskola, Deustuko Unibertsitatea
- Lan harremanetako Unibertsitate Eskola, Euskal Herriko Unibertsitatea
- Hetel-Heziketa Teknikoko Elkartea
- Ikaslan Bizkaia- Bizkaiko Bigarren mailako hezkuntzako Institutuen Elkartea
- Ikaslan Araba- Arabako Bigarren mailako hezkuntzako Institutuen Elkartea
- Agiantza Elkartea
- Cáritas Euskadi
- Peñascal Fundazioa
- Sartu Federazioa
- Reas Euskalherria- Red de Economía Alternativa y Solidaria
- Pobrezia eta Bazterketaren kontrako Europako Elkartearen Sarea (Eapn - European anti poverty network)
- LAB
- ASLE- Euskadiko Elkartelaren Taldea
- FCTAE Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

Jarduera-ardatzak

ITUN proiektuaren garapena bi motatako ardatzetan egituratzen da: gaikako ardatzak eta zeharkako ardatzak. Ondoren zehaztuko dira laburturik horietako bakoitzak barnebiltzen dituen atalak:

Jarduerarako gaikako ardatzak

• Gizarteratzeko enpresak. Helburua

Gizarteratzeko enpresak sustatu eta garatzeko plana bat adostu eta abian jartzea, programa amaitzen denean Euskal Autonomia Erkidegoko enpresak errealitate baliagarria eta egokia izan daitezenez programa amaitzean gizarteratzeko baliabide gisa.

• Enplegua eta prestakuntza. Helburua

Lan-merkatutik baztertuta dauden pertsonen beren gaitasun eta mugen arabera enplegu bat emateko programa berriekin esperimentatzea. Neurri berriak bideratzea, baztertze-egoeran dauden pertsonen gizarteratzeko zirkuituetara iristeko aukerak eskaintzeko.

• Enpresa-taldea eta aholkularitza. Helburua

Enpresa sozialak eta autoenplegua bultzatzeko proiektuak sortzea, adostutako sustapen- eta garapen-planaren bidez. Jada abian diren lege eta neurriak betetzen lagunduko duten alderdi esperimentalak eta berritzaileak landuko dira eta bazterketa-egoeran dauden giza taldeak lan-merkatura gehitzeko ahaleginak egingo dira, norbere negozioaren eta negozio partekatuen arriskuei aurre egiteko gaitasunaren arabera.

• Elkartasuneko finantzaketa, tokiko kapitala/kapital soziala, diru-hurbila. Helburua

Lurraldearen barruan (hobe eskualde edo udal mailan) hirugarren sektoreko erakundeei baliabide berriekin esperimentatzeko bideak finantzatzea, egoera berezian dauden pertsonen lan-merkatura gehitzeko aukera eskainiz: Horretarako, zera lortu nahi da:

- Finantzaketarako “esperimentu kontrolatu”a abian jartzea –modu zorrotzean–, egokia dela ikusiz gero, “ITUN plataforma”tik beste eskualde eta proiektuetara eramateko.
- Baliabide garrantzitsu baten (dirua, aurrezpena, eta abar) erabilerarako bideak berritzea eta arriskatzeko, eta horri tratamendu berezia ematea helburu nagusiaren atzetik; bazterke-

ta-egoeran dauden pertsonentzat enplegua sortzea.

- **Transnazionalitatea. ASSET Proiektua**

ITUN proiektuak ASSET proiektuan (Against the Situation of Social Exclusion Together) parte hartzen du Transnazionalitate Lankidetzarako Akordioaren bidez. Akordio horren helburua lan-merkatuko diskriminazioaren kontrako borrokan praktika onak trukitzea da; lekuan lekuko helburu publikoek aurrean dituzten oztopoei aurre egiteko hartutako neurriak zehaztea. Asmo hau 6 estatu kideetako 7 erakundek onartu dute: Espainia (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Kantabria), Finlandia, Frantzia, Luxenburgo eta Lituania.

Jarduerarako zeharkako ardatzak

- **IKTB – Informazio eta Komunikazioko Teknologia Berriak. Helburua**

Gizarteratzearen alde eta bazterketaren kontrako borrokaren zerbitzura jartzea IKTBek eskaintzen dituzten ahalmenak; eta teknologia berriei atxikitako ikuspegi berriak pertsona eta lurralde kaltetuenak gizarteratzeko erabiltzea, baita lan-merkatuan egoera larrian

daudenei eta enplegu-eskatzailerei teknologia berriek eskaintzen dituzten perspektiba berriak erakustea.

- **Aukera-berdintasuna. Helburua**

Genero-ikuspegia gehitzea proiektuko fase guztietan eta ondorioz programan parte hartzen duten eragileen laneko ohiturak aldatzea, genero-ikuspegia hasiera-hasieratik irizpide teknikoa izan dadin. Horrela, proiektua amaituta ere aldaketak iraunkorrak izango dira.

- **Helgarritasuna. Helburua**

ITUN proiektuaren maila guztietan parte duten pertsona eta erakunde guztientzat diseinuaren filosofia hedatzea eta horiei oinarritzko baliabideak ematea nork bere erakundean eta inguru, produktu eta zerbitzuetan filosofia hori erabiltzeko.

- **Transferentzia eta ebaluazioa. Helburua**

Proiektuaren barruko ebaluazioaz arduratzea. Emaidzak hedatzea eta lortutako ikasketak politika sozialetara eta enplegurako politiketara eramatea.

ERAGINKORTASUNAREN ANALISIA

ITUN proiektuaren barruko ebaluazioari buruzko lehen txostena. 2003ko abendua.

ITUN proiektuaren barruko ebaluazioari buruzko lehen txostenean adierazten denez, aipatutako proiektu horrek barruko ebaluaziorako bere eredu bat dauka, hala nola metodologia berezi bat, jardueren garapena aztertzeko, edota jardueren azken helburuetan proiektuak dauzkan eraginak neurtzeko, baita ekimenaren xede diren oinarritzko printzipioei buruzko sistemak eta betetze maila ikusteko ere.

Txosten horretan adierazten denez, ITUN proiektuaren gauzatze mailak, 2003ko abenduaren 31n, ez du betarik ematen froga enpirikoak biltzeko eta horiekin emaitza eta eraginetan sakontzeko. Hau da, data horretaraino lortu diren aurrerakuntzak ez dira nahikoa, berriaz diseinatu zen barruko ebaluaziorako metodologian

aurreikusitako adierazleak erabat aplikatzeko.

Edozein modutara, aipameneko txostena bat dator Egitura Fondoetako xedapen orokorrekin eta Europako Gizarte-Fondoaren Administrazio Atalak (UAFSE: Unidad Administradora del Fondo Social Europeo), Equal Ekimen Komunitarioaren barruan laguntzen diren proiektuak barrutik ebaluatzeko, emandako marko metodologikoarekin.

Ondoren, txostenaren zati txiki bat aurkeztuko dugu, hain zuzen ere eraginkortasuna aztertzeko erabiltzen dena.

ERAGINKORTASUNAREN ANALISIA

1. TESTUINGURUAN DITUEN ERAGINAK

ITUN proiektuak garatzen dituen jarduerak

lan-merkatuko bazterketa eta diskriminazioaren kontrako enplegu- eta prestakuntza-politiketan esku-hartzen duten eragile guztiak jarduera-proiektu bateratu batean biltzea lortu dute lehenbiziko aldiz gure herrialdean.

Gainera, arlo honetan eragile bakoitzari dago-kion funtzio eta eginkizunak banatzea adostu da:

- Erakunde publikoek laguntzak emateko erabakietan lan egingo dute (proiektuak hautatzeko epaimahaietan).
- Enpresen sustapen eta garapenerako erakundeek analisi teknikoak egingo dituzte, jasotako proposamenen bideragarritasuna ikusteko (proposamenak baloratzeko batzordeak).
- Gizarteratzen laguntzeko enpresen, enpresa sozialen eta enplegu-ekimeneko erakundeen proiektuak sustatzen dituzten gizarte-erakundeak hertsiki-hertsiki lan egingo dute promozio-erakundeekin eta onuradunekin.
- Unibertsitateak ahaleginak hezkuntzara bideratuz..
- Beste erakunde batzuek laguntza, asistentzia eta aholkularitza emango dute

2. ENPRESEN GAINEKO ERAGI-NAK

2.1. Gizarteratzeko enpresak

Gizarteratzeko enpresa-taldeari buruz aurreikusitako helburua 10-15 inguru enpresa bultzatzea da. Ildo horretan eman dira zenbait urrats

egoki. Txosten hau egiterakoan, jada hamabost hitzarmen daude sinatuta beste hainbat gizarteratzeko enpresa sortzeko. Hitzarmenak 2003ko ekainaren 23an sinatu ziren (irailaren 26an sinatu ziren bi izan ezik). Hitzarmen horiek 2004ko uztailean arte iraungo dute.

Ondorengo taulan, onartutako proiektuen ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira: erakunde bultzagileak, jarduera sektorea, onuradunak eta enpresa-jardueraren eremu geografikoa.

Onartutako gizarteratze proiektuetatik 7 zuzenean daude lotuta ITUN proiektua bultzatzen duten 4 erakunderekin. Laguntza jaso duten gizarteratzeko enpresek burutuko dituzten jardueri dagozkien sektoreei buruz esan behar, 4 proiektuk eraikuntza sektorearekin zerikusi dutela, 3 garbiketa-zerbitzuekin eta 3 ingurumenarekin. Gainontzekoak era askotako enpresa-jardueretakoak dira, adibidez, ostalaritzakoak eta salmentaren komunikaziokoak eta/edo adinduentzako arreta zerbitzuak. Proiektu hauen babesean estalkia jasotzen duten onuradunak era askotakoak dira, nahiz eta badiren proiektu batzuk berriaz gazteentzat eta emakumeentzat antolatzen direnak. Banaketa geografikoari dagokionez, proiektuak EAE osoan zehar banatzen badira ere, gizarteratzeko enpresa gehienak Bizkaian daude (dirulaguntza jaso duten 15 proiektuetatik 10).

2.2. Gizarteratzeko enpresak

Orain arte 4 hitzarmen sinatu dira gizarteratze-enpresak sortzen laguntzeko. Hitzarmenak

DIRULAGUNTZA DUTEN GIZARTERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO PROIEKTUAK ETA BEREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gizarteratze enpresa	Erakunde bultzatzailea	Jarduera-sektorea	Onuradunak	Eremu geografikoa
Agitsas Agiantza	Agiantza Elkartea	Aisialdirako itsasontzien mantentimendu integrala eta garbiketa		Bizkaiko eta Kantabriako kostak
Amitza Margotu Berriak	ERROAK Elkartea	Etxebizitza eta lokalen pintura eta dekorazioa	Gizarte eta lanetik baztertuta daudenak	Donostialdea
Ekiber	Rezikleta s. coop. Berohi s. coop. Asoc. Lanberri	Hondakin solidoak birziklatzeko planta Berreskuratze enpresentzako zerbitzuak	Bilbo V. distrituan langabezian dauden gazteak, gizarte eta lan-mundutik baztertuta daudenak (immigrazioa, guraso-bakarrak, toxiko-hartzaileak, arazo sozialak eta prestazio sozialak hartzen dituztenak).	Bilbo

Gizareratzeko enpresa	Erakunde bultzatzailea	Jarduera-sektorea	Onuradunak	Eremu geografikoa
Emaus Ezker Aldea	Emaus Bilbao s. coop.	Etkez etxe altzari erabiliak jasotzea eta geroko tratamendu ekologikorako egokitzea. Bigarren eskuko altzariak saltzeko zerbitzua	Gizartetik bazterketa-egoeran daudenak: immigranteak, toxikomano ohiak, presoak, preso ohiak, gutxiengo etniak, familia-erantzukizunak dituzten emakumeak, iraupen luzeko langabetuak eta kalifikaziorik gabe edo arriskuan dauden gazteak.	Ezkerraldea
Enlogika	AURKILAN Elkarte	Logistika: ibilgailuz eraman beharreko edozein gauza edo zerbitzuen (garraioak, mezuak, etxe aldaketak...) zuzeneko edo zeharkako banaketa.	Gizarte eta lanetik baztertuta daudenak. Lehentasuna emango zaie alokairu soziala hartzen duten emakumei, batez ere ama bakarreko familiak osatzen dutenei, familia ugariari edota tratatu txarrak jasotzen dutenei (%75). Ezintasun fisikoak edo psikikoak dituzten langileak (%10).	Enkartzioak
Gizarline	Arabako SARTU Elkarte	Komunikazio telefonikorako zerbitzuak: telemarketing zerbitzua, call center, herritarrei arreta eta informazioa emateko zerbitzua, LANGAI enplegu eskaintzak...	Gizarteratze bidean daudenak, batez ere bazterketa egoeran edo arriskuan daudenak.	Aiara
Unide	CÁRITAS Bilbao-APIM	Pintura eta pladurraren lanak, gremioak koordinatzea.	Oinarrizko errenta jasotzen dutelarik, gizarteratzeko hitzarmenak egiten dituztenak, prestakuntza eta lanera gehitzea norbere ibilbide profesionaleko baldintza direnean. Oinarrizko errenta jasotzen dutelarik, bazterketa-aren berariazko arrazoia dirua denean. Langabezian daudenak, batez ere emakumeak. 20-35 urte bitarteko gazteak. Kalifikazio ezegokia dutenak, nahikoa ez dena edo eguneratu gabea.	Bilbo eskualdea
Limpieza y mantenimiento de inmuebles	GAZTAROA Elkarte	Eraikinetako barruko garbiketa. Kristalen garbiketa. Tximinien garbiketa. Berdeguneen mantentimendua. Itsasontzien garbiketa.	Lanean eta gizartean txertatzeko arazo bereziak dituzten giza taldeak, adibidez, gizarteratzeko enpresatan gizarteratu behar direnak (Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuko 4. artikulua)	Bilbo
Limpieza y tareas auxiliares	ZABALTZEN Elkarte	Garbiketa industrial. Partikularren garbiketa. Obra amaierako garbiketa	Laneko merkatutako baztertuta daudenak edota horra iristeko zailtasun handiak dituztenak; emakumeari lehentasuna emango zaio.	Durangaldea
Garbinguru	IRSE Elkarte	Ingurugiroko zerbitzuak: lorezaintza, basozaintza eta ingurumena.		Gasteiz
Alkar Bizis	LANBERRI Elkarte	Adinduek partekatzeke etxebizitza-sarea.		Bilbo
Bar restaurante Bilbao	PEÑASCAL Elkarte	Taberna-jatetxea		Bilbo
Iturrigorri	PEÑASCAL Elkarte	Klimatizatzeko sistema instalatzea eta mantentzea, eta ingurugiroa.		Bilbo
Zurtek	PEÑASCAL Elkarte	Eraikuntza: frisoak fabrikatzea, egurrezko egiturak eta muntaiak, briketak fabrikatzea eta hondakinak aprobetxatzea.		Arratia
Itzala	AGIFES Elkarte	Apainketa oro har, berezia eta artisautzakoa.		Donostia

DIRULAGUNTZA JASOKO DUTEN GIZARATERATZE-ENPRESAK ETA HORIEN EZAUGARRI NAGUSIAK

Gizarateratzeko enpresak	Erakunde bultzagilea	Jardueraren sektorea	Onuradunak	Garapenaren egoera
Margotze-enpresa	Gaztaroa	Margoketa	Gizarte eta lan-mundutik baztertuta daudenak	Jardunean
Jazki-20	Cáritas	Jantzigintza	Emakumeak	Jardunean
Montatek	Peñascal Fundazioa	Egitura eta muntaiak	Gizartetik baztertuta dauden gazte langabetuak	
Izarza	Peñascal Fundazioa	Jatetxe eta ostalaritza-zerbitzuak	Gizartetik baztertuta dauden gazte langabetuak	Sortua

2003ko irailaren 26an sinatu ziren eta 2004ko uztailean arte iraungo dute. Guztira 9 proiektu aurkeztu ziren gizarateratze-enpresei eta autoenplegurako ekimenei laguntzeko deialdira. Proiektu horietako bi autoenplegurako ekimenak izan ziren eta bost gizarateratze-enpresak sortzeko. Alabaina, autoenplegurako bi ekimenak atzera bota ziren, balorazio-batzordearen iritziz oso enpresa-jite ahula eta gutxi garatu zutelako⁵⁶.

Ondoko taulan ikus daitezke aurreko ataletan esandakoaren haritik onartutako proiektuen ezaugarri nagusiak.

Azpirarratu behar da dirulaguntza jasotzen duten hiru proiektuk giza talde berezien premiak estaltzeko xedea dutela: emakumeak eta gizartetik baztertuta dauden gazteak.

ESPERIMENTAZIO-EKIMENAK

PROIEKTUA	ERAKUNDEA	KOLEKTIBOA	JARDUERA MOTA	EREMU GEOGRAFIKOA	EGOERA
Uribarri lan-munduratzeko proiektua	BIZITEGI ELKARTEA	Gizarteko bazterketa jasaten dutenak, batez ere toxikomanoak eta adimen gaixotasuna dutenak. Plaza-kop.: 16	Lanera aurreko lantegia: • Laguntza eta lanerako orientazioa • Lanera aurreko gaitasunak eskuratzea	Bizkaia Lekua: Bilbo	Fase guztiak garapen bidean
BERRIZPENA	PEÑASCAL FUNDAZIOA	LANBIDE HASTAPENENKO ZENTROAK (LHZ) 16-21 urte bitarteko gazteekin lan egiten dutenak	LHZ zentroetan GESO lortzeko curriculumaren diseinua	EAE	Gauzatzen
Gizartetik baztertuta dauden emakumeak laneratzeko ibilbidea finkatzea	GIZAKIA FUNDAZIOA	Espetxeetan dauden edo egon diren emakumeak. Hartutakoak: 10	• Motibazioa. • Laneko orientazioa. • Laneko prestakuntza: lisaketa. • Praktikak enpresetan	EAE Lekuak: • Langraitzeko esp. • Bilbo esp.	Garapenean: kudeaketa administratiboko fasea

56. Proiektu batek "La Voz de los emigrantes" izeneko egunkaria sortu nahi zuen; besteak immigranteak zituen xede baina jarduerak teknologia berriekin zerikusia zuen.

DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUETAN AURREIKUSITAKO ENPLEGUAK

GIZARTERATZE-ENPRESAK	AURREIKUSITAKO ENPLEGUAK			
	GUZTIRA		GIZARTERATZEKOAK	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Agitsas Agiantza	2	2	1	1
Amuitza Margotu Berriak	3	3	1	2
Ekiber	4	8	2	4
Emaus Ezker Aldea	3	3,5	0	3,5
Enlogika	1	3	0	2
Gizarline	4	13	0	10
Unide	5	3	2	3
Limpieza y mantenimiento de inmuebles	1	3	1	2
Limpieza y tareas auxiliares	4	11	3	7
Garbinguru	3	1	2	0
Alkar Bizis	15		15	
Bar restaurante Bilbao	5	9	3	7
Iturrigorri	3	7	3	6
Zurtek	15	2	10	1
Itzala	13		10	
GUZTIRA	75	71	33	65

146 enplegu berri sortzeko asmoa dute, eta horietatik 98 (%67) gizarteratzeko enpleguak izango dira.

Sortutako enplegu guztietatik, 71 emakume-entzako enplegu berriak dira (%48,6); gizarteratzeko enpleguen arloan ehuneko horrek gora egiten du %66,3 arte, hau da, 65 lanpostu.

4. ERAGINAK BALIABIDEETAN

4.1. Gizarteratze-enpresen taldea

Protokolo eta erreminten (lortutako produktuak eta esperimintatutako prozesuak) garapenari dagokionez, ezin da produktuei (protokoloak eta planak) buruzko baloraziorik egin, ez eta hasitako prozesuei buruz ere; baina hori jada aurreikusita zegoen diseinatutako metodologian, horiek guztiak oraindik diseinatzeko hasitapen-fasean daudelako. Arazo hori kontuan izan beharko da etorkizunean egiten diren eba-

luazioetan, hau da, produktuak amaitutzat jotzen direnean eta alderatzeak eta/edo esperimintatzeak eta ondorengo doikuntzak egiten direnean.

Gizarteratze-enpresetako pertsonalaren prestatuntzari dagokionez, egoera berdintsuan gaude.

Alabaina, "Arazoaren egoera eta laguntza, aholkularitza eta gizarteratzeko baliabide honen estaldurari buruzko legeria konparatu"ari buruzko mintegiaren emaitzak eta ondorengo eraginak jakin daitezke. Mintegi horretako hizlari eta moderatzaileek egin dituzten ekarpenek, hala nola mintegiaren harira sortu diren eztabaida eta azterketek gizarteratze-enpresen taldeari aukera eman diote 1 laukian datozen ondorioak ateratzeko: "Arazoaren egoera eta laguntza, aholkularitza eta gizarteratzeko baliabide honen estaldurari buruzko legeria konparatu"ari buruzko mintegiaren emaitzak.

“ARAZOAREN EGOERA ETA LAGUNTZA, AHOLKULARITZA ETA GIZARTERATZEKO BALIABIDE HONEN ESTALDURARI BURUZKO LEGERIA KONPARATU”ARI BURUZKO MINTEGIAREN EMAITZAK.

1. IDEIA ETA FILOSOFIARI DAGOKIONEZ

- Uste da gizarteratze-enpresak, gure inguruan, badutela nahiko legitimazio, bai nahastuta dauden pertsona-kopuruagatik, bai sortutako lanpostuen nolakotasunagatik, bai esku-hartzen duten erakundeek ematen dieten erabilgarritasunagatik.
- Oro har, baztertze egoeran dauden pertsonen gizarteratzea laguntzeko erabiltzen diren baliabide-etakotzat jotzen dira, eta aldi berean enpleguak sortzen dituzten baliabidetzat. Hau da, beren eginkizuna ontzat ematen da –gizarteratze-enpresena, alegia– enplegu-politiketako jardueren eta bazterketaren kontrako politiken arteko bereizketa gainditzeko laguntzen duten heinean.
- Uste da onartze-etapa amaitu eta laguntza osoak planteatu behar direla beren garapen eta funtzionamendurako, hala nola enpresa bultzagileentzako laguntzak gauzatu.

2. ANTOLAMENDU- ETA FUNTZIONAMENDU-EREDUEI DAGOKIENEZ

- Hizkera bateratu bat hitzartu beharra dago, izaera bereizlea izango ez duena. Terminologiari buruzko eztabaidei itzuri egin behar zaie eta ahaleginak gorputz teoriko eta praktikoa bat sortzera bideratu behar dira, hau da, gizarteratze-enpresen izatea hobeto ulertzeko saioak egin behar dira.
- Gizarteratze-enpresen ildo estrategiko bat da –eta modu zabalagoan izan beharko litzateke, gainera– eremu/lurralde jakinetan borondate politikoak eta bereizitasun kulturalak bilatzea.
- Oso inportantea da, berebat, enpresa-munduko eragile guztiekin (jabegoa, kudeaketa eta sindikatuak) lankidetzak eta “kutsadura positiboak” lortzea.

3. LANGILEEN ESTATUTUARI DAGOKIONEZ

- Oso argi utzi behar da prozesu/ibilbideko zati guztietan zer motatako lotura erabiliko den. Gizarteratze-prozesuan dagoen pertsonak betetzen duen eginkizunari buruzko nahasketak ekidin behar dira: gizarteratze-prozesuan dagoen erabiltzailea edo bezeroa, langilea edo inorentzat ari dena, eta abar.
- Badira, oraindik, gizarteratze-prozesuan dauden pertsonen gizarteratze-enpresan bertan izan behar duten partaidetzari buruzko zenbait galdera; iritzi asko daude arazo hori ulertu eta aplikatzeari dagokionez: ordezkapen-demokrazia, partaidetza, kudeaketan esku-hartzea... eta badira baita ere hainbat zalantza gizarteratze-enpresako onuradunak zein izan behar direnei buruz.

4. MARKO JURIDIKOARI DAGOKIONEZ

- Egungo marko juridikoak nahikoa ematen badu ere, egia esan ez dago marko juridikorik. Erabilgarriagoa eta egokiagoa izango litzateke enpresa berezi bat egongo balitz enplegua sortzeko helburuaz eta giza talde hauek gizarteratzen laguntzeko asmoaz.
- Une batzuetan eztabaidak oso latzak izan ziren, antolatzaileek halakorik nahi ez bazuten ere. Eztabaida gogorrenak gizarteratze-enpresen erakunde bultzagileek erabili behar zuten antolamenduari buruzkoak izan ziren; batez ere, antolamendu edo antolatzeko modu horrek asko baldintzatzen dituelako gizarteratze-enpresak.

5. ENPRESAREN IZAERARI DAGOKIONEZ.

6. ALDERDI HEZITZAILE ETA PSIKOSOZIALARI DAGOKIENEZ.

- Badirudi maila sozialean jada garbi dagoela enpresen eginkizuna gizarteratze-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen laguntzea dela eta prozesu horietan sartuta dauden pertsonena gaitasun pertsonalak –gizartekoak eta gaitasun teknikoak– eskuratzea. Garbi dago, halaber, lotura estu batzuk egon behar direla gizarteratzeko ibilbideetan garatzen diren beste jarduera batzuekin.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko apirilaren 15ean onartu zuen Boluntariotzaren Lehen Euskal Plana. Hori aldeaz aurretik aho batez onartu zen Eusko Jaurlaritzak, Eudelek, Foru Aldundiek eta Boluntariotza-erakundeek osatutako Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan.

Proiektu honen helburu nagusia 1998ko ekainaren 25eko Boluntarioen Legean aurreikusitako boluntariotza sustatzeko neurriak garatzea eta gauzatzea. Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Sailak, ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilekoan Urteko Jardueren Programa aurkeztuko dio Gobernu Kontseiluari, eta dagokion aldia amaitzen denean, oroitidazki bat egingo du Euskal Autonomia Erkidegoko Boluntarioen Egoerari buruz, eta horrek, era berean, Planaren segimendu eta bilakaerari buruzko Balantzea jasoko du.

Boluntariotzaren Euskal Plana, lehenbizi, hiru urterako egingo da. Hori "ekimen aitzindaria" da Euskadin, eta izaera "estrategiko irekia" dauka. Horren xedea indarrak eta borondateak batzea da, Boluntariotzaren errealitatea aldatzeko eta hobetzeko prozesuan. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen da "borondate hutsez eta elkartasunez pertsona fisikoek" gure erkidegoan burutzen dituzten jite orokorreko jarduerak sustatzea.

Ekintza-lerroak

Boluntariotzako euskal planean lortu nahi diren helburuak proposatu ondoren, nahi diren lorpen edo eragin horiek lortzeko aukera emango duten ekintza-lerroak aurkeztu behar dira. (ikus 3. eranskina).

Boluntariotzako Euskal Planaren laugarren eta azken atal honen helburua, une honetan lehen aipatutako boluntariotzaren esparruaren barruan oso konprometituri dauden agente eta eragileetarako bakoitzarentzat proposamenak egitea da. Horrek ez du esan nahi Planaren hurrengo bertsioetan ez direnik beste zenbait eragile edo agente identifikatuko, ez eta horien ekarpenak planteatuko ez direnik ere. Hemen biltzen diren proposa-

menen esparruan, agente edo eragile horietako bakoitzak Planak harengandik espero duen ekarpen espezifikoak egiteko aukera emango dieten politikak, estrategiak, prozesuak eta jarduketak diseinatu eta burutuko ditu.

Plan honen helburua, boluntariotzaren esparruan eragina duten eta normalki Boluntariotzaren Euskal Kontseiluan ordezkaturik dauden agente ezberdinen eta eragile ezberdinen arteko adostasun politiko edo estrategiko orokorraren adierazpena izatea da. Horregatik, eragile horietako bakoitzari edo agente horietako bakoitzari eskatzen zaizkion egitekoak edo rola era ordenatu eta koordinatua banatzea du helburu.

Argi dagoenez gero, eragile edo agente horiek dagoeneko gauzatzen ari diren jardueren onarpena eta balorazioa da abiapuntua, eta horien guztien adostasunarekin eta laguntzarekin beste urrats bat egin nahi da, haiek egiten dituzten ahaleginak hobeto banatzeko eta ahalik eta sinergiarik handiena lortzeko.

Helburuen atalean adierazleak eta estandarrik lortu nahi diren emaitzekin eta inpaktuarekin parekatu diren bezala, une honetan Planaren burutzapena ebaluatzea ahalbidetuko duten prozesuko adierazleak eta estandarrik proposatuko ditugu. Kasu honetan ere proposatzen ditugun (beti bat ekintza-lerro bakoitzeko) adierazle eta estandarren entsegu-izaera azpimarratu nahi dugu, eta ebaluazioa egiten dutenek adierazle-sorta osatu behar dutela gogorarazi nahi dugu, bereziki ondokoa egin beharko dutelarik:

- Prozesuen hartzaile eta protagonisten poztasuna islatzen duten adierazleak ahalik eta gehien barne hartzea.
- Emandako datuak beste aldagai batzuen arabera (adibidez, sexua edo adina) bereiztea, hala dagokion bakoitzean, horiek ez badira kontuan hartzen informazio balioduna ezkutuan gera daitkeelako.

Atal hau zazpi zatitan banatuta dago, eta Boluntariotzako Euskal Planak jarduketaren propo-

samenak egiten dizkien eragile edo agente bakoitzari zuzenduta daude:

- Boluntarioak dituzten erakundeak eta hauen sareak.
- Boluntariotzako agentziak.
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- Udalak eta hauen elkarteak.
- Foru Aldundiak.
- Eusko Jaurlaritza.
- Beste zenbait eragile edo agente garrantzitsu.

Argi eta garbi utzi behar da Plan honetan proposatzen diren ekintza-lerroek ez dutela agente horietako bakoitzak boluntariotzari loturik egiten duen guztia agortu nahi. Eragile bakoitzari zenbait jarduketa-orientabide ematea du helburu, guztion ahaleginarekin proposatu diren helburuak lortzea ahalbidetuko dutelarik.

1. Boluntarioak dituzten erakundeak eta hauen sareak

Boluntarioak dituzten erakunde eta sareentzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

- 1.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartzailean.
Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.
Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.
- 1.2. Erakunde bakoitzean edo erakunde-sare bakoitzean boluntarioak erakarri, barne hartu eta, oro har, laguntzeko ekintza espezifikoak barne hartzen dituzten giza baliabide boluntarioen kudeaketa-prozesuak diseinatzea (edo ben-ikustea, lehendik diseinatuta baldin badaude), burutzea eta ebaluatzea, ateratako ondorioen berri emanez eta prozesu horien arduradunak identifikatuz.
Adierazlea: Boluntarioen laguntzerako erantzukizunak esleituta dituen erakunde-kopuruaren gehikuntza.
Estandarra: %50

- 1.3. Erakunde bakoitzean edo erakunde-sare bakoitzean boluntarioen premien azterketan oinarrituriko prestakuntza-prozesuak diseinatzea (edo berrikustea, lehendik diseinatuta baldin badaude), burutzea eta ebaluatzea. Prozesu horiek, alde batetik, erakundearen ekintza eta hausnarketa-dinamitaren aprobetxamendua (prestakuntzari loturik) barne hartuko dute, eta bestetik, barneko prestakuntza-ekintzen burutzapena eta kanpoko prestakuntza-ekintzen parte-hartzea (lehentasun gisara, erakundearen lan egiten duten pertsona guztiei zuzendutakoak eta boluntarioei bereziki zuzendutakoak elkartuz).

Adierazlea: Prestakuntzarako plan idatzia duten erakunde-kopurua areagotzea, eta plan horretan emakume boluntarioak kontuan hartzea.

Estandarra: %100

- 1.4. Erakundeetan edo erakunde-sareetan Boluntariotzari buruzko I.legaren 8.4.a artikulua eskatzen duen boluntarioaren estatutua lantzeko edo berrikusteko prozesuak garatzea.
Adierazlea: Boluntarioaren estatutua lantzen edo berrikusten duen erakunde-kopurua.
Estandarra: 250
- 1.5. Boluntarioek lan egiten duteneko erakundearen hausnarketa eta erabakietan parte hartzeko gune edo agente formal eta operatiboak sortzea edo, hala dagokionean, indartzea, arreta berezia eskainiz boluntariotzaren balioak indartuko dituen ekintza eta nor-tasunaren arteko orekari.
Adierazlea: Parte hartzeko guneak formalizatzen eta abian jartzen dituen erakunde-kopurua.
Estandarra: 50
- 1.6. Erakundeetan genero-ikuspegia barne hartzearen alorrean esperientzia berritzaileak egitea eta plazaratzea.
Adierazlea: Plazaratutako esperientzia-kopurua.
Estandarra: 10.

1.7. Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorean sartzeko beharrezkoak diren tramiteak egitea.

Adierazlea: Erroldan sartzeko beharrezkoak diren tramiteak egiten ari den erakunde-kopurua.

Estandarra: 500.

1.8. Erakunde eta erakunde-sareen eta gizarte-komunikabide, enpresa-erakunde eta sindikatuen artean elkarrizketa-ekintzak burutu, ebaluatu, hobetu eta plazaratzea, instituzio horiek boluntariotzari buruz duten irudiarengan eta boluntariotzarekiko duten portaerarengan eragiteko xedez.

Adierazlea: Egindako eta komunikatutako elkarrizketa-ekintzen kopurua.

Estandarra: 150..

2. Boluntariotzako agentziak

Boluntariotzako agentzientzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

2.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

2.2. Boluntariotzari buruzko Legearen 12.e artikulua aipatzen dituen eta agentziak jadanik gauzatzen ari diren informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikorako ekintzak berrikusi, doitu, burutu, ebaluatu, hobetu, sistematizatu eta plazaratzea.

Adierazlea: Agentziek informazio, dokumentazio, aholkularitza eta laguntza teknikorako egindako zerbitzuekin erlasionaturik dauden eta dokumentu bidez egiaztatu den hobe-kuntza-kopurua.

Estandarra: 30.

2.3. Boluntarioei bereziki zuzendutako prestakuntza-eskaintzak prestatu, burutu eta ebaluatzea (ateratako ondorioen berri emanez).

Eskaintza horiek, erakundeek edo beste zenbait prestakuntza-hornitzailek burutzen dituztenen osagarri izango dira.

Adierazlea: Agentziek eskainitako edo proposatutako prestakuntza-ekintzetan urte osoan igarotako ordu-kopurua.

Estandarra: 300 edo gehiago.

2.4. Boluntarioen laguntzeaz eta, oro har, giza baliabide boluntarioak kudeatzeaz ardurazten diren pertsonen bereziki zuzendutako prestakuntza-eskaintzak prestatu, burutu eta ebaluatzea (ateratako ondorioen berri emanez). Eskaintza horiek, erakundeek edo beste zenbait prestakuntza-hornitzailek burutzen dituztenen osagarri izango dira.

Adierazlea: Agentziek eskainitako edo proposatutako prestakuntza-ekintzetan urte osoan igarotako ordu-kopurua.

Estandarra: 150 edo gehiago.

2.5. Boluntariotzaren alorrean praktika egokiak eta, bereziki, praktika berritzaileak zabaltzeko ekintzak sistematikoki burutzea.

Adierazlea: Praktika egokiak eta praktika berritzaileak zabaltzeko ekintza-kopurua.

Estandarra: 10 edo gehiago.

2.6. Boluntario-jardunaren estandar etikoak garatu eta zabaltzea.

Adierazlea: Boluntario-jardunerako estandar etikoen garapen eta zabalkuntza-ekintzen kopurua, publikoki ezagunak direla eta horietan bi erakundek edo gehiagok parte hartzen dutela.

Estandarra: 10.

2.7. Agentzien artean eta, oro har, boluntariotzaren esparruko eragile edo agente ezberdinen artean hausnarketa eta eztabaidarako harreman eta truke-dinamikak sendotzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren barnean eta kanpoan.

Adierazlea: Bi erakundek edo gehiagok parte hartzen duten jardunaldien edo, oro har, boluntariotzarekin erlasionaturako jardueren ondorioz egindako argitalpen-kopurua.

Estandarra: 10.

2.8. Harremanetan daudeneko boluntariotzako sektoreen dibertsifikazioa helburu duten ekintzak.

Adierazlea: Plana burutzen hasten den unean handiena den boluntariotza-sektorean barne hartuta ez dauden erakundeei zuzendutako komunikazio-kopuruaren gehikuntza.

Estandarra: %100

2.9. Agentziek boluntariotzaren esparruan burutzen dituzten bitartekotza-lanak egituratu eta hobetzea.

Adierazlea: Agentziek burutzen dituzten bitartekotza-prozesuetan sartutako eta dokumentu bidez egiaztaturiko hobekuntzak.

Estandarra: 5.

3. Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarentzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

3.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

3.2. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak bere jardueraren plangintza, burutzapena, ebaluazioa eta zabalkundea egitea, Boluntariotzari buruzko Legean ezarritakoaren arabera.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak egindako jardueren eta lortutako emaitzen zabalkunde-ekintzak.

Estandarra: 5.

3.3. Boluntariotzaren esparruan barne hartuta dauden agente ezberdinekin sistematikoki elkarrizketan jardutea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera jarduten duten erakunde publiko eta pribatuen kopurua.

Estandarra: 20.

3.4. Boluntariotzako Euskal Planaren burutzapenaren etengabeko jarraipena egitea, eta prozesu, emaitza eta inpaktuari buruzko balorazioak egitea.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planaren burutzapenaren jarraipenerako urtean zehar egindako saio-kopurua.

Estandarra: 2.

3.5. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren barne-hartzean, egituratzean, funtzionamenduan eta harremanetan sartu beharreko aldaketei buruzko hausnarketa egitea.

Adierazlea: Hausnarketa horretarako egindako saioak.

Estandarra: 2

3.6. Kontseiluaren berrikuntza-prozesua dinamizatzea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseilua berritzera zuzendutako ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

4. Udalak eta hauen elkarteak

Udalentzat eta hauen elkarteentzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

4.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

4.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanek, tokiko komunikabideei ere).

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 30.

4.3. Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa

duen presentzia mantendu, barne hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten Udalen kopurua.

Estandarra: 15.

- 4.4. Toki-eremuan boluntariotza duten erakunde ezberdinen arteko elkarreragina bultzatzen duten ekintzak diseinatu, burutu, ebaluatu eta zabaltzea.

Adierazlea: Ekintza-kopurua.

Estandarra: 30

- 4.5. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea

Adierazlea: Udalek eta hauen elkarteek boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 15.

- 4.6. Toki edo eskualde-mailan herritarren parte-hartzerako prozesuetan boluntariotzaren erakundeei eskaintzen zaizkien gune eta prozesuak egituratzea eta hobetzea.

Adierazlea: Herritarren parte-hartzerako guneetan egindako aldaketei buruz zabaldu-tako esperientziak.

Estandarra: 15

5. Foru Aldundiak

Foru Aldundientzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

- 5.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.
- Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lar-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

- 5.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanez,

eskualdeko komunikabideei ere), arduradunak izendatuz.

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 6 (hiru Foru Aldundiak batuz).

- 5.3. Boluntariotzaren eskualde-agentzien funtzionamendua, garapena eta sendotzea ahalbidetzen duten finantzaketa egonkorra (batez ere hitzarmenen bitartez) eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea.

Adierazlea: Boluntariotzako agentziek Foru Aldundien bitartez jasotako laguntzari buruz azaldutako poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.

- 5.4. Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundietako departamentu ezberdinen politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa duen presentzia mantendu, barre hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten Foru Departamentuen kopurua.

Estandarra: 10.

- 5.5. Boluntarioei bereziki zuzendutako eta lurralde-eremuan egindako prestakuntza-ekintzak burutzeko finantzaketa egonkorra eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea.

Adierazlea: Finantzatutako prestakuntza-ekintzen kopurua.

Estandarra: 10 (hiru Foru Aldundiak batuz).

- 5.6. Boluntarioak dituzten erakundeek. egiten duten giza baliabide boluntarioen kudeaketa erraztu eta egituratzeko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

- 5.7. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde ezberdinetako enpresa-erakundeekin boluntariotzaren gaiari buruzko truke eta

elkarreraginerako harremanak ezarri eta mantentzea.

Adierazlea: Foru Aldundien eta enpresa-erakundeen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

- 5.8. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea.

Adierazlea: Foru Aldundiak boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 10.

6. Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzarentzat ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

- 6.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

- 6.2. Boluntariotzako Legean aurreikusitako boluntariotza sustatzeko neurriak garatu eta burutzea.

Adierazlea: Arauak garatzeko gauzatutako ekimenak.

Estandarra: 2

- 6.3. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanaz, erkidegoko komunikabideei ere), arduradunak izendatuz.

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 2

- 6.4. Euskal Autonomia Erkidegoko boluntariotzaren errealitateari eta egiten diren esku-hartze ezberdinek errealitate horrengan sortzen dituzten eraginei buruzko ikerketa-lan bat (sistematikoa, partaidetzazkoa eta genero-

ikuspegia barne hartzen duena) egitea, bai eta emaitzen berri ematea ere.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzak garatzen dituen ikerketa-prozesuei buruz azaldutako poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.

- 6.5. Eusko Jaurlaritzak boluntariotzaren egoera aztertzeke martxan dituen gizarte-ikerketako baliabideak erabili ahal izateko elkarrizketak eta lanak egitea.

Adierazlea: ikerketa-baliabideek boluntariotzari loturiko alderdiak barne hartzeko xedez departamentuen artean egindako hilerak eta lanen urteko ordu-kopurua.

Estandarra: 40.

- 6.6. Lurralde-agentziei finantzaketa egonkorra (batez ere hitzarmenen bitartez) eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea, Boluntariotzari buruzko Legearen 9. artikuluan Eusko Jaurlaritzari emandako ondoko eskumenak gauzatzeko: Autonomia Erkidegoan garatzen diren baliabideei buruzko katalogo publiko bat egitea; lehendik dauden fondoak koordinatutako dituzten boluntariotzari buruzko agiri-fondoa eta datu-basea sortzea; erakundeei eskatzen dituzten aholkularitza tekniko eta lankidetzak zehatza eskaintzea.

Adierazlea: Sinatutako hitzarmenak.

Estandarra: 3.

- 6.7. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateekin harremanak finkatu eta sendotzea, gizarte-segmentu edo sektore ezberdinetan boluntariotza-jardunaren errealitateari eta gaitasunei buruzko doktorego-tesien eta bestelako ikerketen burutzapena eta zabalakundea bultzatzeko eta, oro har, boluntariotzaren alorrean unibertsitateen lankidetzak sendotzeko.

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren eta unibertsitateen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

- 6.8. Euskal Autonomia Erkidegoko sindikatuekin

boluntariotzaren gaiari buruzko truke eta elkarreraginerako harremanak ezarri eta mantentzea (enpresaren munduan boluntariotza sendotzeko helburuarekin, besteak beste).

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren eta sindikatuen ordezkariak egindako bilerak.

Estandarra: 10.

- 6.9. Eusko Jaurlaritzako sail ezberdinen politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzak zeharkako elementu gisa duen presentzia mantendu, barne hartu edo hobetzea (eta zabaltzea).

Adierazlea: Politika, plan, programa edo proiektuetan boluntariotzaren zeharkako elementu-izaerarekin erlazionatutako alderdi berriak sartzen dituzten boluntariotzaren alorrean eskumena duen sailaz bestelako Bailen kopurua.

Estandarra: 4.

- 6.10. Finantzaketa egonkorra eta beste zenbait laguntza-mota (eta ikuskaritza-mota) eskaintzea, bereziki boluntarioei zuzendutako eta Euskal Autonomia Erkidego osoan egiten diren prestakuntza-ekintzak burutzeko.

Adierazlea: Finantzatu diren prestakuntza-ekintzen kopurua.

Estandarra: 10.

- 6.11. Boluntarioak dituzten erakundeek genero-hesia gainditu ahal izateko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

- 6.12. Boluntarioak dituzten erakundeek hesi digitala gainditu ahal izateko ekintzak diseinatu, burutu eta ebaluatzea.

Adierazlea: Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

- 6.13. Boluntariotzari buruzko I.egearen eta, bereziki, Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorraren existentziaren zabalkunderako (boluntarioei, erakundeei, instituzioei eta, oro har, gizarteari zuzenduta) eta era-

kundeak errolda horretan barne har daitezzen bultzatzeko ekintzak burutzea.

Adierazlea. Ekintza-kopurua.

Estandarra: 5.

- 6.14. Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorraren arduradunen eta fundazioen eta elkarten erregistroen arduradunen artean funtzionamendu-akordioak ezartzea.

Adierazlea. Dokumentu-euskarriarekin ezarritako protokoloa.

Estandarra: 1.

- 6.15. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendurako eta hura indartzeko finantzaketa eta bestelako laguntzak ematea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak jasotako laguntzari buruz azaltzen duen poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

- 6.16. Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin lankidetzan, boluntariotzaren egoerari eta lehen Boluntariotzako Euskal Planaren eraginei buruzko ebaluazio etengabea, osatua eta parte-hartze handikoa egitea (hala pertsona boluntarioen nola boluntario-ekintzaren hartzaile diren pertsonen ekarpenekin), bigarren Plan bat egiteko oinarriak finkatuko dituelarik.

Adierazlea: Ebidentzia enpiriko nahikoa eta egokia ematen duten eta Planean barne hartuta dauden adierazleen ehunekoa.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa

- 6.17. Boluntario-jarduera garatzeko azpiegitura eta material-ekipamenduen ekarpena egitea eta horien eskaintza hobetzea.

Adierazlea: Eusko Jaurlaritzak boluntariotzaren erakundeei eskainitako azpiegitura berriak.

Estandarra: 5.

7. Beste zenbait eragile edo agente

Boluntariotzaren esparruan jadanik laguntza garrantzitsua eskaintzen ari diren Aurrezki Kutxak eta Fundazioak bezalako erakundeentzat, ondoko lehentasunezko ekintza-lerroak proposatzen dira:

7.1. Boluntariotzako Euskal Plana aztertu eta hedatzea, testuinguru jakin bati egokitutako modu pedagogiko eta parte-hartze handikoan.

Adierazlea: Boluntariotzako Euskal Planari buruzko lan-ekintzen kopurua haren aplikazioaren lehenengo urtean.

Estandarra: 2ko batez bestekoa agente edo eragile bakoitzeko.

7.2. Boluntariotzari laguntzeko (adibidez urteroko) planak, programak edo proiektuak diseinatu (dagozkien alde aurreko azterlanekin), burutu eta ebaluatzea (emaitzen berri emanez).

Adierazlea: Onetsi, burutu eta ebaluatutako plan, programa edo proiektuen kopurua.

Estandarra: 5.

7.3. Aurrezki Kutxak eta Fundazioak bezalako erakundeek boluntariotzako agentzia eta

erakundeei finantzaketa eta bestelako laguntzak ematea.

Adierazlea: Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak Aurrezki Kutxek eta Fundazioek emandako laguntzari buruz azaltzen duen poztasun-maila.

Estandarra: %70ekoa edo handiagoa.


7.4. Boluntariotzari laguntzen dioten Aurrezki Kutxa eta Fundazioen eta boluntariotzaren esparruan diharduten beste zenbait agenteren artean elkarrizketa-bide normalak ezartzea.

7.4. Boluntariotzari laguntzen dioten Aurrezki Kutxa eta Fundazioen eta boluntariotzaren esparruan diharduten beste zenbait agenteren artean elkarrizketa-bide normalak ezartzea.

Adierazlea: Hasitako elkarrizketa-dinamika berrien kopurua.

Estandarra: 10.

1. ERANSKINA BOLUNTARIOTZAREN ESPARRUA



2. ERANSKINA HELBURUAK

	2. ESPERO DIREN EMAITZAK	3. ESPERO DEN INPAKTUA
1. BOLUNTARIOTZAN	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskubideak eta betebeharrak ezagutzea. 2. Diskurtso propioa. 3. Gaitasunak hobetzea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Boluntario-kopurua. 2. Egonaldia edo iraunaldia. 3. Dedikazio-denbora. 4. Aniztasuna. 5. Konpromisoa.
2. ERAKUNDEETAN	<ol style="list-style-type: none"> 1. Berrikuntza. 2. Estandar etikoak. 3. Autoidentifikazioa. 4. Lankidetzazabalagoa. 5. EAEaz gaindiko sareak. 6. Tokiko sareak. 7. Sareak sendotzea. 8. Erroldan dauden erakundeak gehitzea. 9. Sektore-heterogeneotasuna. 10. Estatutuaren kalitatea. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Izaera eraldatzailea. 2. Boluntarioen parte-hartzea. 3. Sendotze instituzionala. 4. Diru eta material zuzkidura. 5. Praktika egokiak. 6. Generoa. 7. Diskriminazioak. 8. Giza baliabideen kudeaketa. 9. Hesi digitala.
3. HERRI ADMINISTRAZIOETAN	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zeharkako elementua. 2. Zuzeneko politikak. 3. Praktika egokiak eta egonkortasuna. 4. Helgarritasuna eta erabilgarritasuna. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ezagutza eta zerbitzu hobeak. 2. Aldaketak legeen, lanaren eta zergen alorrean.
4. BOLUNTARIOTZAREN ESPARRU OSOAN	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ezagutza 2. Gizarte ikertzeko tresnak 3. Eztabaida soziala. 4. Informazioa eta laguntza-zerbitzuak. 5. Boluntarioen prestakuntza. 6. Arduradunen prestakuntza. 7. Trukeak. 8. Kontseilua sendotzea. 9. Hartzaileak eta aldagaiak identifikatzea. 10. Boluntariotza hegoaldean. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Enpresen laguntza. 2. Irudia.

3. ERANSKINA

EKINTZA-ARDATZAK

Ondoren, zenbait ekintza-ardatz aurkezten dira, eta bertan Planaren 4. idatz-zatian aurkeztutako eragile edo agente bakoitzaren ekintza-lerroak ezartzen dira:

	Eragileak edo agenteak						
	1	2	3	4	5	6	7
Ardatzak	Antolakuntdeak	Agentziak	Boluntario- tzako Euskal Kontseilua	Udalak	Foru Aldundiak	Eusko Jaurjaritza	Beste agente batzuk
Plangintza	1, 2, 3	1, 2, 3, 4	1, 2	1, 2, 3, 4	1, 2, 4, 6	1, 2, 3, 9, 11, 12	1, 2
Prestakuntza	3	3, 4			5	10	
Giza baliabideak kudeatzea	2				6		
Informazioa eta laguntza (teknikoa)		2			3	6, 12	
Parte-hartzea	4,5		2,5,6	6		4,16	
Elkarrizketa eta trukea	8	7, 8, 9	2, 3, 5, 6	4, 6	3, 7	5, 7, 8, 14, 15	4
Berrikuntza eta praktika egokiak (generoa, etika)	6	5, 6				4, 11	
Finantzaketa eta babesa				5	3, 5, 8	6, 10, 15, 17	3
Erregistroa	7					13,14	
Hedapena	1, 2, 6, 8	1, 2, 3, 4, 5, 6	1, 2	1, 2, 3, 4	1, 2, 4	1, 3, 9, 13, 14	1, 2
Ikerketa						4,5,7	
Ebaluazioa	2, 3, 8	2, 3, 4	2, 4, 5	2, 3, 4	2, 4, 6	3, 9, 11, 12, 16	2

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- Acotto, Laura. (2003): *Las Organizaciones de la Sociedad Civil. Un camino para la construcción ciudadana*. Editorial Espacio. Buenos Aires.
- Anheier, H.; Glasius M.; Kaldor, M. (2.001): *Global Civil Society*. Oxford University Press. New York.
- Anheier, H.; Glasius M.; Kaldor, M. (2.002): *Global Civil Society*. Oxford University Press. New York, p.197.
- Anheier, H. & Kendall J. (2003): *Third Sector Policy at the Crossroads*. Roudledge. London & New-York.
- Andrés Orizo, Francisco; Elzo, Javier y Otros. (2000): *España 2000, entre el localismo y la globalidad*. Santa Maria Fundazioa. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- Apalategi, Jokin. (1999): *Psico-Sociología de los Movimientos Asociativos Vascos: Sus Representaciones Sociales*. Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados. Gasteiz.
- Aranguren Gonzalo, Luis A. (2001): *Repensar el Voluntariado*. Documentación Social .Madril.
- Ariño Antonio. (2003): *Diccionario de la Solidaridad (I)*. Cuadernos de Solidaridad. Valentzia.
- Barea Tejeiro, José y Monzón, José Luis. (2000): *La Economía Social en España*. Ciriec España. Valentzia.
- Bellostas Pérez- Grueso, Ana y otros. (2002): *Mimbres de un País. Sociedad Civil y Sector No Lucrativo en Aragón*. Prensas Universitarias Zaragoza. Zaragoza.
- Brilliant L, Eleanor. (2001): *The American Third Sector at the end of the twentieth century*. En Helmut Anheier. Thrid Sector Policy at the Croosroads. Roudledge. Londres.
- Cabra de Luna, Miguel Ángel. (1992): *Estudio sobre Donaciones benévolas y el voluntariado en España*. Boletín de Estudios y Documentación Social. Madril.
- Cabra de Luna, Miguel Ángel. (1998): *El Tercer Sector y las Fundaciones de España. Hacia el nuevo Milenio*. Fundación ONCE. Escuela Libre Editorial. Madril.
- Casado Demetrio. (2003): *Imagen y Realidad de la Acción Voluntaria*. Editorial Hacer. Bartzelona.
- Chacón, F. y Vecina, M.L. (2002): *Gestión del Voluntariado. Análisis e Intervención Social*. Editorial Síntesis. Madril.
- Chaves , Rafael y Otros. (2000): *Economía Social y Empleo en la UE*. CIRIEC- España. Valentzia.
- CIRIEC. (2000): *Revista de Economía Pública Social y Cooperativa*. Nº 34. Valentzia.
- Cooperación para el Desarrollo. (2000): *La Cooperación al Desarrollo: Surgimiento y Evolución histórica*. Manuales de Formación. Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco. Gasteiz
- Domínguez Cascón, María y Ballesteros Ordóñez, María. (2003): *Las Empresas de Inserción: Su Acceso a la Contratación Pública*. Editorial Caja de Burgos. Burgos.
- Domínguez Vázquez, I.; Cerrato Allende, J.; García García, I. (2001): *La Realidad de las Fundaciones en España*. Fundación Marcelo Botín. Madril.
- FEDEI. (2003): *Identificación y Diagnóstico Integral de las Empresas de Inserción en España*. Editorial Popular. Madril.
- Funes, M.J. (1995): *La Ilusión Solidaria*. UNED. Madril.

- Fundación Esplai. (2002): *El Tercer Sector visto desde dentro: La renovación de las ONGs y los retos de exclusión social*. Bartzelona.
- Fundació d'Amics de la UPC. (2002): *Transparencia y Buen Gobierno*. Icaria Editorial. Universitat Politècnica de Catalunya. Bartzelona.
- García Fajardo, José Carlos. (2001): *Manual del Voluntariado. Solidarios para el Desarrollo*. Editorial Solidarios. Madril.
- García Izquierdo, Bernardo (2000): *El valor de compartir beneficios. Las ONGD y el marketing con causa: retos y oportunidades*. Instituto de Derechos Humanos. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- García Izquierdo, Bernardo (2001): *Nuevos socios para nuevas ONGD*. Instituto de Derechos Humanos. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- George, Susan (2001): *Informe Lugano*. Icaria editorial. Bartzelona.
- Giner, Salvador; Pérez Yruela, M. (1979): *La Sociedad Corporativa*. CIS. Madril.
- Gómez de la Iglesia, Roberto. (2002): *Economía Social, Nuevos Yacimientos de Empleo y Desarrollo Social*. Xadibe. Gasteiz.
- González Parada, J.R. (1995): *La Función de las ONGs en ayuda al desarrollo*, Hondarribia (Gipuzkoa) Hiru.
- Marcuello, C; Bellostas, A; Marcuello, Ch. (2001): *Economía Social y Sin Ánimo De Lucro*. Cuadernos Aragoneses de Economía. Universidad de Zaragoza. Zaragoza.
- Martínez Martín, M^ª Isabel y otros. (2000): *Empleo y Trabajo Voluntario en las ONG de Acción Social*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Fundación Tomillo. Madril.
- Morris Susannah. (2000): *Defining the Non Profit Sector*. Working Paper. N.S
- Pérez Díaz, Victor y López Novo, Joaquín P. (2003): *El Tercer Sector Social en España*. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. Madril.
- Raya Díez, Esther. (2001): *Políticas Sociales y Ciudadanía*. Gobierno Vasco. Gasteiz.
- Revilla Blanco, Marisa. (2002): *Las ONG y la Política*. Editorial Istmo. Madril.
- Rodríguez Cabrero, Gregorio. (2003): *Las Entidades Voluntarias de Acción Social en España*. Fundación Foessa. Madril.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio. (1995): *El Sector No Lucrativo en España*. Fundación BBVA. Madril.
- Salinas Ramos, Francisco y colab. (2001): *La Evolución del Tercer Sector hacia la Empresa Social*. Plataforma para la Promoción del Voluntariado en España. Caja Madrid. Madril.
- Salomón Lester, M., Anheier, Helmut K. (1998): *The Emerging Sector Revisited*, The Johns Hopkins University. Baltimore. USA.
- Salomón Lester, M., Anheier, Helmut K; List Regina & Otros. (1999): *Global Civil Society. Dimensions of the Nonprofit Sector*. The Johns Hopkins University. Institute for Policy Studies. Baltimore. USA.
- Salomon, Lester, M. (2001): *The Non Profit Sector at a Crossroad*. En Helmut K. Anheier: *Thrid Sector Policy at the Croosroads*. Roudledge. Londres.
- Salomón Lester M.; Anheier K. & otros. (2001): *La Sociedad Civil Global. Las dimensiones del Sector No Lucrativo*. Fundación BBVA. Bilbo.
- Salomon, Lester M.; Wojciech Sokolowski, S. & List Regina. (2003): *Global Civic Society An Overview*. The Johns Hopkins University. Institute for Policy Studies.

Salvador Juan. (1999): *L' utilité sociale de l'activité associative face á la professionnalisation et á la "marchandisation"*. Elsevier, Paris.

Schlütter A &, otros (2001): *Foundations in Europe*. Bertelsmann Foundation. London.

Themudo, N.(2.002): *Global Civil Society*, Oxford, University Press. New York.

INFORMAZIOA SAREAN

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

www.gizarte.net

EUSKADIKO GAZTERIAREN EUSKAL KONTSEILUA

wwgk.org

EUSKADIKO GKE-EN KOORDINAKUNDEA

www.ongdeuskadi.org

GIZARTE-ONGIZATEAREN EUSKAL KONTSEILUA

www.ej-gv.net

GIZALDE.VOLUNTARIADO GIPUZKOA

www.gizalde.com

CONSEJO DE LA JUVENTUD DE ESPAÑA

www.cje.org/actividades.nsf

FUNDACION EDEX

www.edex.es

FUNDACION LEALTAD

www.fundacionlealtad.org

FUNDACION BBVA

www.fbbva.es

CONSEIL DE L'EUROPE. ORGANISATIONS NON GOUVERNAMENTALES

www.coe.int/T/F/ONG/Public

RED EUROPEA DE ASOCIACIONES DE LUCHA CONTRA LA POBREZA Y LA EXCLUSION SOCIAL. EUROPEAN ANTIPOVERTY NETWORK (EAPN)

www.eapn.org

CENTER FOR CIVIL SOCIETY STUDIES

www.jhu.edu

LE CENTRE CANADIEN DE PHILANTROPIE

www.nonprofitcan.ca

ASSOCIATION FOR RESERCH ON NONPROFIT ORGANIZATIONS AND VOLUNTARY ACTION (ARNOVA)

www.arnova.org

INTERNET NONPROFIT CENTER

www.nonprofits.org

MANAGEMENT ASSISTANCE PROGRAM FOR NONPROFITS

www.mapnp.org

INSTITUTE FOR VOLUNTEERING RESEARCH (UK)

www.ivr.org.uk

POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN KONTRAKO ELKARTEEN EUROPAKO SAREA. EUROPEAN ANTIPOVERTY NETWORK (EAPN)

www.eapn.org

CENTER FOR CIVIL SOCIETY STUDIES

www.jhu.edu

LE CENTRE CANADIEN DE PHILANTROPIE

www.nonprofitcan.ca

ASSOCIATION FOR RESERCH ON NONPROFIT ORGANIZATIONS AND VOLUNTARY ACTION (ARNOVA)

www.arnova.org

INTERNET NONPROFIT CENTER

www.nonprofits.org

MANAGEMENT ASSISTANCE PROGRAM FOR NONPROFITS

www.mapnp.org

INSTITUTE FOR VOLUNTEERING RESEARCH (UK)

www.ivr.org.uk